

PANTAILA BETE AHOTS

IKERKETA ESPLORATZAILE
BAT EIBAR.ORG-EN INGURUAN

Maialen Odriozola Martija
Juan San Martin Beka 2013
Eibarko Udala - UEU

LABURPENA

Gaur egun ohikoa bihurtu da sarean argitaratu, zabaldu edota partekatzea. Normal-normalala. 1998.urtea zen, ordea, Eibar inguruko hainbat erabiltzaile elkartu zenean, eta orduan, amaraunak ez zituen orain bezala gure bizitzako (ia) esparru guztiak hartzen. Testuinguru horretan, liburuko protagonistak lehenengotarikoak izan ziren, euskaraz funtzionatzen zuen posta-zerrenda sortzen. Aitzindariak, halaber, euskal blogosferan. Hori guztia, ahots publiko bat izateko aukera eskainiz herritarrei, eurak izan zitezen -eta izan daitezten- zertaz hitz egin nahi duten aukeratzen dutenak, euren iritzia agertzeko aukera emanez interesatzen zaizkien gai guztien inguruan. Ildo horretatik, ikerketa honek blogari eta zerrendakideen motibazio, errealitate eta esperientziak islatu nahi ditu elkarrearen hiru dimentsioak oinarri hartuta: Eibar, euskara eta teknologia berriak.

Keywords: Internet, ahots publikoa, parte-hartzea, hiritar digitalak, blogak, posta-zerrendak, euskal blogosfera

SUMMARY

Publishing, spreading and sharing on the net have become common and very typical activities nowadays. However, it was in 1998 when many users from Eibar (and from other places) met. At that time, the web was not present in all aspects of our life though. Dealing with that context, the protagonists of the book were among the earliest to create a mailing list working in Basque. They were likewise pioners on the basque blogosphere, providing the citizens with the option to have a public voice so that they could –and can- choose the topics they would like to talk about, and to have the opportunity to express their opinion about their interests. In this sense, the aim of this investigation is to reflect the motivation, reality and experiences of the bloggers and list members, on the basis of three dimensions of the community: Eibar, Basque and new technologies.

Keywords: Internet, public voice, participation, digital citizens, blogs, mail lists, basque blogosphere.

Aurkibidea

Taulen aurkibidea	IV
Grafikoen aurkibidea	V
1. Kapituluua: Sarrera	6
1.1 Esker onak	6
1.2 Testuingurua	6
1.3 Helburuak eta ikerketa-galderak	8
1.4 Ikerketaren mugak	9
1.5 Hurrengo kapituluaren laburpena	9
2. Kapituluua: Abiapuntu teorikoa	11
2.1 Ahots publikoa eta komunikazio parte-hartzailea	11
2.1.1. Ahots publikoa: Hitza hartuta, plazara	13
2.1.2 Komunikazio parte-hartzailea: Pantaila bete ahots	12
2.1.3 Esatearen ederra: Igorle bihurtzeko pausua	14
2.2.1 Zerrenda, enborra	15
2.2.1.1 Zer da zerrenda bat?	17
2.2.1.1.1 Posta elektronikoa: zerrendaren oinarri-oinarrian	20
2.2.1.2. Iraultza bertan zegoen	22
2.2.1.2.1 Klik egin eta lehen komunitateak eratu	22
2.2.1.1.2. Klik egin eta berdintasunean eraiki	23
2.2.1.1.4. Klik egin eta sareko lengoaia sortu	23
2.2.1.2.5 Klik egin eta hedabideetatik at, komunikazioa harrotu	24
2.2.1.3 Parez-pare: Abantailak eta desabantailak	25
2.2.1.3.1 Abantailak: Ona, ederra, merkea...eta askea	25
2.2.1.3.1 Desabantailak: Denak urreak ez dira	25
2.2.1.4 Posta-zerrendaren ezaugarriak	26
2.2.1.4.1 Moderazioaren arabera	26
2.2.1.4.2 Sarbidearen arabera	27
2.2.1.4.3 Fitxategien kontsultaren arabera	27
2.2.1.4.4 Eibartarrak, eskema	27
2.2.2 Blog komunitatea, ezpala	28
2.2.2.1 Zer da weblog bat?	29
2.2.2.1.1 Zerk definitzen du? Eta zerk bereiztu?	29
2.2.2.1.2 Ezaugarriak	30

2.2.2.1.3 Egitura	30
2.2.2.2 Blogintza, kazetaritza eta bien arteko elementu komun eta ñabardurak	31
2.2.2.3 Gaitegiari dagokionez askea, askotarikoa	32
2.2.2.4 Blogaria, edukia eta esfera publiko eta pribatua	33
2.2.2.5 Blogaria eta bere hamaika arrazoiak	34
2.2.2.6 Audientzia(k)	35
3. Kapituluak: Metodologia	36
3.1 Atariaren jarraipena	36
3.2 Inkesta	38
3.3 Elkarrizketa	40
3.3.1 Bideoan elkarrizketatuak	40
3.3.1.1 Bideoan parte-hartu duten Eibar.org-eko blogariak:	40
3.3.1.2 Bideoan parte-hartu duten Eibar.org kanpoko blogariak:	41
3.3.2 Bideotik kanpo egindako elkarrizketak	42
4. Kapituluak: Emaitzak eta analisisia	45
4.1 Posta zerrenda	45
4.1.1 Lehen ikerketa-galderari dagozkion emaitzak	48
4.1.2 Bigarren ikerketa-galderari dagozkion emaitzak	48
4.1.3 Hirugarren ikerketa-galderari dagozkion emaitzak	57
4.2 Blog komunitatea	66
4.2.1 Lehen ikerketa-galderari dagozkion emaitzak	66
4.2.2 Bigarren ikerketa-galderari dagozkion emaitzak	78
4.2.3 Hirugarren ikerketa-galderari dagozkion emaitzak	90
4.3 Elkartea	95
5. Kapituluak: Ondorioak	100
5.1 Posta zerrenda	100
5.1.1 Lehen ikerketa-galderari dagozkion emaitzak	101
5.1.2 Bigarren ikerketa-galderari dagozkion emaitzak	103
5.1.3 Hirugarren ikerketa-galderari dagozkion emaitzak	106
5.2 Blog komunitatea	108
5.2.1 Lehen ikerketa-galderari dagozkion emaitzak	108
5.2.2 Bigarren ikerketa-galderari dagozkion emaitzak	112
5.2.3 Hirugarren ikerketa-galderari dagozkion emaitzak	115
5.3 Elkartea	116

Bibliografia	119
Eranskinak	125

TAULEN AURKIBIDEA

1. Taula Hedabideen erabilera emantzipatu/errepresiboa	13
2. Taula: Gizarte demokratiko batentzat komunikazio aldaketa	14
3. Taula: Eibartarrak posta- zerrendaren helburu informalak	17
4. Taula: Eibartarrak, eskema	27
5. Taula: Blogen ohiko elementuak	30
6. Taula: Ikerketan erabilitako teknika motak	36
7. Taula: Esku hartu duten harpidetuen zenbaketa	52
8. Taula: Esku hartu duten harpidetuen jokabidea	53
9. Taula: Zerrendaz harpidetuek egiten duten balorazioa	57
10. Taula: Blogaren sinesgarritasunarekin lotutako elementuak	77
11. Taula: Iruzkin kopurua blogetan	85
12. Taula: Partekatze kopurua	88
13. Taula: Komunitatearen abantaila eta onura nagusiak	96
14. Taula: Komunitatearen desabantaila nagusiak	97

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. Grafikoa: Ikerketaren egitura orokorra	10
2. Grafikoa: Euskadiko herritarrek Internet erabiltzeko arrazoiak	21
3. Grafikoa: Esfera sozial, publikoa eta pribatuaren arteko eraztunak	34
4. Grafikoa: Inkesta eredu motak	39
5. Grafikoa: Zerrendaren bizitasunaren inguruan harpidetuen iritzia	49
6. Grafikoa: Zerrenda erabiltzeko arrazoiak	51
7. Grafikoa: Harpidetuen parte-hartzea zerrendan	51
8. Grafikoa: Mezuek izandako elkarreragina zerrendan	54
9. Grafikoa: Harpidetuen laguntasun harremanak zerrendan	55
10. Grafikoa: Harpidetuen harreman profesionalak zerrendan	56
11. Grafikoa: Herriko gertaeren berri izateko zerrendaren balioa	59
12. Grafikoa: Herriko gertaerak komentatzeko zerrendaren balioa	58
13. Grafikoa: Euskararen eta euskalkiaren erabilera zerrendan	62
14. Grafikoa: Euskararen garrantzia sarean	63
15. Grafikoa: Iritzi-azterketa (Blogak hedabide pertsonalak dira)	67
16. Grafikoa: Iritzi-azterketa (Blogak iritzi-artikuluak dira)	68
17. Grafikoa: I.A (Blogak kazetaritza parte-hartzailearen baitan sartzen dira)	70
18. Grafikoa: Iritzi-azterketa (Blogak espazio alternatiboak dira)	71
19. Grafikoa: Blogarien gaitetgia	74
20. Grafikoa: Blogetako sarreren gaurkotasuna	75
21. Grafikoa: Blogean idazteko arrazoiak	77
22. Grafikoa: Iruzkinen garrantzia blogetan	85
22. Grafikoa: Blogean hedapena sare sozialetan	86
23. Grafikoa: Blogeko jarduna uzteko intentzioa	89
24. Grafikoa: Blogeko jarduna uzteko zergatia	89
25. Grafikoa: Komunitateko beste blogak irakurri edota komentatzea	91

1. Kapituluua: Sarrera

1.1 Agurtzeko eta eskertzeko, bi hitz

Eskuetan duzun liburua Eibar.org elkarteaz aztertzeko egin den ikerketaren emaitza da. Juan San Martin Bekaren baitan garatu da proiektua; 2014ko hasieran ekin genion ikertzeari eta 2015eko ekainera arte luzatu da proiektua.

Dokumentazio lanak, ikerketa teknika ezberdinak, denbora, gogoia eta indarra jarri dira honetan. Bila hasteak hori du eta: galdera gehiagorekin topo egitea. Oro har, gustura egindako lana da honakoa, tarteka, galduta eta estu sentitu arren. Bidea, ordea, ekinaren ekinez baino ez da egiten, eta proiektu honek, bidelagun asko aurkitu ditu albo banatan aurrera egiteko. Mila esker, beraz, inkesta bete, galderak erantzun eta nire zalantzak argitu dituzuenoi. Eskerrik asko, benetan.

Irakurle: Ikerlan honetan bildutakoa irakurtzeko aukera izango duzu hemendik aurrera. Hona hemen nire posta-elektronikoa, zure ikuspuntua partekatu nahi izanez gero: maialenodriozola@gmail.com

1.2 Testuingurua

Sareak, komunikazio eskema tradizionala apurtu du eta norabide bakarreko igorle ahalguztidunaren aurrean, ahots eta mezuen ugaritasuna gailendu da (Alkorta eta Zuberogitia, 2009).

Teknologien aurrerapenei esker, egitura mediatiko berri baten aurrean gaude (Ruiz, 2005). Hedabideak errealitate sozialaren egile eksklusiboak izateari utzi diote, eta geroz eta errazagoa da edonoren partetik informazioa ekoiztu edota eskuratzea. Testuinguru honetan, erabiltzailearen papera inoiz baino aktiboagoa da: batetik, eskaintza handiagoa du edukia aukeratzeko; bestetik, norbere komunikabidearen igorle bihurtu daiteke; eta horrez gain,

hedabide handi edo tradizioaletik at, elkartrukerako espazioak sor ditzake (Gonzalez, López eta Moreno Castro, 2005).

Hain zuzen ere, ingurune digitaleko komunikazio parte-hartzaile horren adibide da lan honen ikergaia; Eibar.org komunitate euskaldun aitzindari eta erreferentziala. Iritziak eman eta informazioa partekatuz, mezubide propioa sortu dute bertako kideek eta elkar topatzeko espazio autonomoa eraiki. Bakarka ez ezik, kolektiboan ere egin dute, gainera. Blogen jardunari edo eztabaida foroetan emandako solasaldiei esker talde izaera eraikitzen baitute erabiltzaileek (Peraltes, 2008).

Zerk bultzatu ditu baina euren eduki propioak sortzera? Eta zerk partekatzera? Nolakoa da zerrendako harpidetuen parte-hartzea? Nolakoa da blogariak irakurleekin duten harremana? Galdera batetik bestera igarotzean, komunikazio digitalaren lur mugikorretan barrena jauzi egiten ariko gara eremu batetik bestera. Izan ere, ereduak, kultura digitalaren eta sareko komunikazioaren inguruko hainbat gai buruz hitz egiteko aukera emango digu: Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien bidezko partaidetza, herritartasun digitala, komunikazio horizontala etab.

Aspaldian, asko hitz egiten baitugu herritarren parte-hartzean oinarritzen den komunikazioari buruz, utopia, kea, mitoa, anekdota, iragana ala etorkizuna den ondorioztatu ezinik. Espekulazioetan aritu baino Eibar.org-en errealitateaz baliatuko gara errealitate ezberdinen gaineko ikuspegiei buruz hitz egiteko; sustraietatik adarretara egingo dugu eta adarretatik sustraietara.

Kontuan izan behar da, hamasei urte pasa direla *eibarnautek* posta-zerrendan parte hartzeari ekin zientetik, eta tarte horretan, 33.500 mezu baino gehiago elkartrukatu dituztela¹. Hari beretik, blog komunitatearen hamar urteko jardunean, 11.000 testu baino gehiago argitaratu dituzte. Guztiak euskaraz eta denak publiko. **Jardun horren ekarpena? 1998tik ari dira euren hedabide propioa elikatzen, eztabaida publikoan parte-hartzen eta euskal blogosfera aberasten.**

¹ <http://postaria.com/pipermail/eibartarrak/>
<http://article.gmane.org/gmane.culture.language.basque.eibartarrak/33203>

1.3 Helburua eta iker galderak

Ikerlan honek Eibar.org-en unibertsoari neurri hartzea du xede; komunitatea ikertzea, ebaluatzea eta azaltzea. Komunikatzeko dituzten tresnak -posta-zerrenda eta blog komunitatea- eta elkarte bera aztertuko dira horretarako, arreta berezia jarriz elkarteak hartzen dituen hiru dimentsiotan; euskara, Eibar eta teknologia berriak.

Komunitateko kideen parte-hartzea sustatuz euren mezubide propioa eratu dutela, uste hori izan dugu abiapuntu. Eta planteamendu horretatik datoz lehen bi ikerketa galderak:

- Lehen ikerketa galdera (IG1): Ze ezaugarri ditu komunikazio prozesuak?
 - Bloga idazteko arrazoiak.
 - Aukeratutako gaitegia.
 - Erabiltzaileen parte-hartzea.
 - Iruzkinen funtzioa.

- Bigarren ikerketa galdera (IG2): Zeintzuk dira partaideen oztopo, erronka eta motibazio nagusiak?

Aurreneko bi galdera horien bitartez, elkarteak dituen komunikatzeko tresnen ezaugarriei begira jarriko gara eta partaideek egiten duten erabileran arakatuko dugu. *Informazio emaria ez ezik, Eibar.org herritarrak elkar topatzeko espazioa da*, hortxe ikerketa gidatu duen bigarren ideia, bera da azken ikerketa galderaren iturburu:

- Hirugarren ikerketa galdera (IG3): Nola uztartzen dira komunitatearen bereizgarriak?
 - Komunitatearen garrantzia.
 - Iruzkinen funtzioa.
 - Eibar, teknologia berrien eta euskararen eragina.

1.4 Ikerketaren mugak

Eibar.org bizirik eta mugimenduan dagoen komunitatea izanik, beharrezkoa da lortutako emaitzak etengabe berrikustea. Baina modu berean, ezinbestekoa zaigu denboran zehar mantenduko diren irizpide egonkor batzuk zehaztea. Bi faktore horiek medio, eta denbora baliabide mugatua izanik, elkarrearen behaketa lau hilabeteren bueltan egitea erabaki da.

Beste muga batzuk ere badaude; inkesta bete dutenak, boluntarioak izan dira guztiak. Beraz, litekeena da, iritzi ezberdina duten hainbat kideren pentsaera ez agertzea lan honetan jasota. Azkenik, esan, komunikazio parte-hartzailearen inguruan ikerlan bat egiteko, kasu jakin bat aztertzea izan dela lan honen giltzarria. Hau da, komunikazio-mota honen prozesu osoa azaltzea eta ondorioak ikuspuntu praktiko batetik ateratzea. Horregatik hemengo emaitza guztiak ezingo dira estrapolatu beste komunitate batzuetara.

1.5 Hurrengo kapituluaren laburpena

Sarrera honetaz aparte, beste bost atal ezberdinetan banatu dugu ikerlan hau:

1- Irakurlea testuinguruan kokatzea ezinbestekoa dela uste dugu eta horretarako, azterketa gaiaren marko teorikoa aurkituko duzu jarraian. Ikerketa girotzea izango da, beraz, atal honen funtzioa.

2- Marko teorikoa zehaztuta, ikerketa burutzeko metodologiaren nondik norakoak zehaztuko dira bigarren sailean. Bertan, ikerlanaren diseinua, erabilitako teknika motak, prozedura, unibertsoa ... topatuko ditu irakurleak.

3- Hirugarren atala, ikerketaren datuen muina da; Eibar.org-aztertzeko erabili ditugun tekniketatik lortutako emaitzak aurkezten direlako. Komunikatzeko erabiltzen dituzten tresna ezberdinen arabera antolatu ditugu azpiatalak (posta-zerrenda eta blog komunitatea) eta horietariko bakoitzean sarrera honetan aurkeztu ditugun iker-galderei erantzuten saiatu gara.

4- Laugarren sailean, ikerketa-galderen arabera sailkatuta, azterketaren ondorio nagusiak batuko ditugu multzotan.

5- Azkenengo atalean, erabilitako bibliografia kontsultatu ahal izango du irakurleak.



1. Grafikoa: Ikerketaren egitura orokorra. Iturria: Norberak egina.

2. Kapituluua: Abiapuntu teorikoa

Marko teorikoan, ikerketa honetan gakoak izango diren erreferentziak identifikatu, aztertu eta azaltzea izango dugu helburu. Bidea argituko diguten autoreak lagun, dagokigun gaira lehen murgilketa izango da honakoa, ikerketa objektura hurbiltzen hasteko.

Elkartea aurkezteko, bere ibilbidearen laburpen azkar-azkar bat egingo dugu -zehaztasunetan, aurrera egin ahala sartuko gara-. *Eibartarrak* posta-zerrendarekin hasi zen dena, 1998an. Han sortutako hartu-emanei esker, afari baterako elkartu eta bertan atera zen elkartea sortzeko ideia. Eibarri buruzko webgune bat eraikitzea ere pentsatu zuten, herriari buruz zerbait egon zedin sarean. XX. mendearen amaiera zen eta internet egiteko zegoen (Fernandez, 2014), edukiak behar zituen. Esan eta egin: Eibarri buruzko informazioarekin atari estatiko bat sortu zuten. Estatikoa zena, mugimenduan jarri zuten blog-komunitatea sortzean, 2004ean. Euskal blogosferan lehena izan zen. Talde moduan hainbat ekimen ere sustatu dituzte euren bereizgarriak uztartuz: teknologiak, euskara edota Eibar. Tartean daude, *Aurki* Euskara hutsezko lehen bilatzailea, *Eibarko Kalamua* mahai-jokoa edota GPS-a euskaraz jartzeko ahotsak. Ikerlan honetan, dena den, Eibar.org-en baitan kideek komunikatzeko dituzten bitartekoak aztertuko ditugu: posta-zerrenda eta blog-komunitatea.

Laburpena eginda, ekin diezaiozun espedizioari orain, ibilbide orria marraztuz. Lehenengo bi geldialdiak **ahots publikoa eta komunikazio parte-hartzailea azaltzeko egingo ditugu**. Bitarteko teknologikoen komunikatzeko daukagun moduan eragin zuzena izan ohi dute. Zentzu horretan, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiek (IKT) eraldaketa garrantzitsua ekarri dute; hartzailea igorle bihurtu dute. Gaur egun guztiok izan gaitezke diskurtso sortzaile eta gure iritzi, sentimendu eta ezagutzak argitaratu. Hartara, plazan aditzera ematen denak, bere ahots publikoa erabiltzen du.

Beraien ahots publikoa erabiltzeko, blog komunitatea eta posta-zerrendaz baliatzen dira Eibar.org-eko kideak. Bi tresna horien definizioa eta azalpenak ere emango ditugu. Horrenbestez, **bloga eta posta-zerrenda dira hirugarren eta laugarren giltzarria marko teorikoan**.

2.1 Ahots publikoa eta komunikazio parte-hartzailea: Begiratzeko bi modu

2.1.1. Ahots publikoa: Hitza hartuta, plazara

Norberaren interesekoak diren gaiei buruz hitz egiteko zein harremanetarako, geroz eta herritar gehiagok erabiltzen dituzte bitarteko elektronikoak. Gauzak horrela, sarea, hamaika errealitate eta kontakizunen aterpe eta leiho bilakatu da. Herritarren protagonismoa berreskuratzeko medio gisa ere balio dute; hartzailea igorle bihurtuta, eztabaida herritarrean parte-hartzeko.

2.1.2 Komunikazio parte-hartzailea: Pantaila bete ahots

Taldean pentsatuta, ahots publikoa komunikazio parte-hartzailea bihurtzen da; denbora eta espazio mugak gainditu, eta erabiltzaileen partaidetzan oinarritzen den norabide anitzeko elkarrizketa. Hona, Rheingolden hitzetan, komunikazio parte-hartzailea definitzen duten ezaugarriak (2008):

- Komunikazioa norabide anitzekoa da: Konektatuta dagoen orok testuak, irudiak, audioak, bideoak, softwarea, data, eztabaidak (...) igorri edo jasotzea ahalbidetzen du konektatuta dagoen beste edonoren partetik.
- Indarra, jendearen parte-hartze aktibotik datorkio: Ez audientzia erraldoi batetik, baina bai erabiltzaileek euren artean loturak egiteko duten ahalmenetik.
- Hedapena azkarragoa da, zabalagoa eta kostu baxuagoak ditu: Giza sareak, informazio eta komunikazio sareekin lotzen direnean, mezuen fluxua bizkorragoa da, jende gehiagorengana iritsi daiteke eta merkeagoa da.

Beste batzuen artean, hauek egongo lirateke komunikazio parte-hartzailearen tresnen baitan: blogak, posta-zerrendak, wikiak, RSSak, etiketak eta laster markak, musika/argazki/bideoak partekatzeko plataformak, podcastak, komunitate birtualak...

Mass mediarekin kritikoez urte luzez salatu dute hedabide horiek instituzioen interesak lagundu dituztela, komunitate lokalen interesak babestu ordez (Adorno eta Horkheimer, 2002; Habermas, 1991). Hedabide handiak, haien arabera, norbanakotik urruti daude eta ez dira egokiak komunitateentzat beren interes propioak zabaltzeko. Webgune parte-hartzaileek, ordea, herritarrek ahalduzko gaitasuna dute Howard-en hitzetan (2008). Izan ere, herritarrek ahots publikoa eskuratzea dela dio medioen eta herritarren arteko zubia eraikitzeke modua.

Komunikazio parte-hartzailea: Melel Xojobal Kasua, Chiapas, Mexiko artikuluan (2005), hedabideen eragin sozialaz hitz egiten du Izaro Gorostidik. Hans Magnus Ensenbergerren eta Joseph Rotaren proposamenak dakartza bertan gogora:

Ensenberger (1974)

Hedabideen erabilera errepresiboa	Hedabideen erabilera emantzipatua
Kontrol zentralista	Programa deszentralizatua
Igorle bakarra, hartzaile asko	Hartzaile bakoitza, igorle potentziala
Gizabanako isolatuaren gelditasuna	Masen mobilizazioa
Kontsumoaren aurrean abstentzio pasiboa	Parte-hartzaileen elkarrekintza, feedbacka
Despolitizazio-prozesua	Ikaskuntza politikoaren prozesua
Espezialisten produkzioa	Talde-produkzioa
Jabe edo burokraten kontrola	Erakunde autogestionatuen kontrol sozializatua

1.Taula: Hedabideen erabilera emantzipatu/errepresiboa

Iturria: "Komunikazio parte-hartzailea: Melel Xojobal Kasua, Chiapas, Mexiko" artikulua.

Izaro Gorostidi

Rota (2001):

Gizarte demokratiko batentzat ezinbestekoa da komunikazio-aldaketa hau:

Kontrolpean izatetik	Erabilgarri izan behar den baliabidera
Zentralizatuta egotetik	Deszentralizatuta egotera
Jabetza burokratikotik	Giza jabetzara
Larderiako eredutik	Eredu demokratikora
Bide bakarretik	Bide bikoitzera edo anizkunerara
Bertikaltasunetik	Horizontaltasunera
Informatibotik	Parte-hartzailea eta elkarriketan jarduna izatera
Kanal itxietatik	Kanal irekietara
Teknikoa eta murriztua izatetik	Irekia eta ulertteraza izatera

2 Taula: Gizarte demokratiko batentzat komunikazio aldaketa.

Iturria: "Komunikazio parte-hartzailea: Melel Xojobal Kasua, Chiapas, Mexiko" artikulua.

Izaro Gorostidi

Monopolio informatiboak edota zentsura ez dira gaurkoak lehenengo taulan ikusten den bezala. Mundua mundu denetik eta informazioa informazio, komunikazioa kontrolatzeko nahia egon da. Komunikazio deszentralizatua, elkarrekintza, hartzailea igorle potentzial bihurtzea... ere adigai berriak ez diren modu berean. Ahotsa falta zaienetik dute herritarrek hitza hartzeko gogoia. Medio sozialek betiko problematikentzat irtenbide berriak planteatzen dituzte. Baina beste faktore batzuk ere badaude hori aurrera eramateko. Tartean, noski, protagonismoa -eta horrekin batera, erantzukizuna- berreskuratzeko nahia egon behar da.

2.1.3 Esatearen ederra: Igorle bihurtzeko pausua

Komunikazio parte-hartzailearen indar -eta ahulgune- handienetako bat jendearen parte-hartze horizontalean oinarritzen dela da. Hartara, ez badago ahots publikoa eraiki nahi

duen herritarrik, komunikazio parte-hartzailea ere pobrea izango da. Ildo beretik, zaila egiten da hedabideen eskema tradizionalan ikus-entzule soil izan den herritarra eduki egile bihurtzea. Ez dezagun ahaztu, diskurtso publikoan eragiteko zein informazioaren zirkulazioan esku hartzeko ahalmena talde editorialetan, komunikabide tradizionalen, estatuen... menpe egon dela, neurri handi batean. Medio sozialek, aldiz, testuinguru mediatikoan, oro har, mutu izan diren irakurle, ikusle eta entzuleei, komunikazio publikoan eragiteko hainbat baliabide eskaini dizkiete. Konplikatu da, era berean, kontu kontari dabiltzan milioika erabiltzaileen ikuspuntu, iritzi zein testigantzek duten eragina zenbatekoa den neurtzea. Teorian, komunikazioa parte-hartzailearen baitan, norberaren ahotsa, komunitatearen soslai bihurtzen da. Baina, praktikan?

2.2 Posta-zerrenda eta bloga: Enborretik ezpala

2.2.1 Zerrenda, enborra

Eibarko euskaldunentzako zerrenda bat. Aurkezpen horrekin ekin zion bere ibilbideari, Eibartarrak posta-zerrendak 1998.urtean Luistxo Fernandez eibartarraren mezu batekin. Fernandez bera eta beste sei lagun izan ziren zerrendaren lehen harpidedunak; gaur egun 86 dira².

Istoria hau kokatzeko baina, egin dezagun lehenbizi denboran atzera. Internet jaio eta gizarteratzen hasi zenean, posta-zerrenden inguruan batu ziren lehen sarelariek (Alonso eta Vazquez, 2013). Ikerketa honetarako egindako elkarrizketan Fernandezek horrela kontatzen du:

90. hamarkadan, posta-zerrenda, Internet erabiltzeko modu praktikoena zen. Orduan ingelesez funtzionatzen zuen bat zegoen euskaldunen artean eta beranduago euskarazko bat sortu zuten. Oso bitarteko

² 2014ko irailaren 9ko datuak. Guztira, 89 ageri dira, baina 3 kontu artxibo sistemenak dira (ez dira humanoak).

interesgarria iruditu zitzaidan. Halako batean norberak bere posta-zerrenda sortzeko tresna bat deskubritu nuen.

Hori izan zen abiapuntua, eta hura izan zen atzetik etorriko zen guztiaren iturburu:

Haren ondorio bat da Eibar.org elkarte, eta baita Eibarko blog komunitatea, sareko lehen blog komunitate euskalduna.

Euskal zerrendei dagokienez, aitzindarien artean egon zen eta hasiera horietatik martxan jarraitzen duen bakarretakoa da³. Denboraren poderioz, beste leku batzuetako jendea ere harpidetzen joan, eta eibartarrena ez ezik, *eibarnauten* komunitatea osatzen joan dira. Josu Landak Euskarazko Kazetaritza I.Kongresurako egindako Informazioaren Gizartea? dokumentuan (2004) zerrenda honi buruz hurrengo adierazi zuen: *gizabanakoei ahotsa emanda, itzelezko sentimendu kolektiboa sortu dute.*

Gizabanakoa. Ahotsa. Kolektiboa. Hitz gakoak agertzen doaz. Zer diote eibar.org-ekoek baina? Nola deskribatzen dute zerrendaren sustatzaileek komunikatzeko bitarteko hau? Elkartearen web orrian ageri den definizioa, hemen:

Eibartarrak posta-zerrenda eztabaidagune ireki bat da, nahiko jardun bizikoa (ikus azken mezuak artxiboan⁴). Ez da zerrenda moderatua, baina bi arau daude: jarduna euskaraz da, eta ez dago partaidetza anonimorik, zure burua aurkeztu behar duzu parte hartu nahi baduzu.

Tresnaren izaera ezagutzeko gako garrantzitsu gehiago ematen dizkigu definizioak eta bertako arauak: **euskalduna, izenduna, publikoa eta parte-hartzailea**. Horrelakoa da

³ 1993ko abenduan jaio zen Euskal Herriari buruzko lehen zerrenda; New Yorkeko Unibertsitate batetik sortua eta gehien bat ingelesez funtzionatzen zuena. Hiru urte geroago, 1996an, Euskal Kulturaren Batzarraren (EKB) eskutik eta Eusnet elkartearen baliabideei esker, "EuskaraZ" zerrenda sortu zen (egun"desagertua). Martxan dauden euskarazko posta-zerrenda beteranoenak "Eibartarrak" eta "Itzul" dira, biak 1998an sortuak. Ikus: <http://eu.wikipedia.org/wiki/Posta0zerrenda> orria.

⁴ <http://news.gmane.org/gmane.culture.language.basque.eibartarrak/> helbidean ikus daitezke Eibartarrak posta-zerrendan elkartrukaturako mezuak.

eztabaida. Mamiz bete behar da gero hori, ordea: Zertarako balio du? Zergatik erabili? Baten faltan lau arrazoi ematen dizkigute. Behean, zerrendatuta, euren helburu informalak:

- Jardun eta jardun, euskaraz, edozerren gainean.
- Interneteko euskal foro aspergarrietan nekatu direnentzako txoko beroago bat eskaini.
- Jendearen arteko informazio trukea: web majo bat topatu duzula, programa trukea, Eibarko suzediduak komentatu...
- Eibarrespazio guztiko eibarnautak elkartu.

3. Taula: Posta-zerrendaren helburu informalak.

Iturria: Eibar.org, Zerrenda

Informazio iturri gisa edota elkarreraginerako baliabide bezala, bitarteko baliotsuak diren arren, ez dago ikerketa askorik zerrenden inguruan. Azterlan gehienek, gainera, zerrenda zientifikoei erreparatzen diete. Ikerketa honen objektua, ordea, *hartuemon jeneralekoa* da, Fernandezek, zerrendaren sortzaileak, zehazten duenez.

Horiek horrela eta Eibartarrak zerrendari buruzko ahalik eta ikuspegi osoena lortzeko, ikerketa teknika ezberdinak erabili ditugu: posta-zerrendari egindako jarraipena, harpidetuei inkesta, elkarrizketak eta posta elektroniko bidezko komunikazio pertsonala.

2.2.1.1 Zer da zerrenda bat?

Helbide elektronikoz osatutako lista bat da, interes bat edo hainbat interes partekatzen dituzten erabiltzaileen inguruan jaioa, funtsean, jakin-mina sortzen dieten gaien inguruan hitz egiteko. Harpidedun batek gai bat proposatu eta taldekideek euren ekarpenak egiten dituztenean pizten da solasaldia edo eztabaida, elkartrukatzen den informazio hori zerrendakide guztientzat interesgarria izango delakoan.

Zerrenda baten partaide izateko beharrezkoa da gailu horretara harpidetzea, normalean, formulario bat betez. Behin harpidetuta, posta elektronikoaren bitartez jarrai daitezke

elkarrizketak. Gauzak horrela, hasita dagoen solasaldi bat iruzkintzeko aukera dugu edo norbera izan daiteke gai bat proposatzen duena. Lehenengo kasuan nahikoa da erantzuteko aukerari ematea; bigarreanean, zerrendaren helbide kolektiboa jarri beharko da hartzailearen tokian mezua bidaltzeko⁵. Bi kasuetan, zerrendara harpidetuta dauden kide guztiek ikusi ahal izango dute edukia, eta nahi izanez gero, iruzkindu. Hortxe, bada, **zerrendaren grazia, mezuen harilkatze horretan.**

Komunikazioa eta informazioa dira, horrenbestez, zerrendaren bi gakoak. Informazioa, arlo ezberdinetako eduki formal zein informalak partekatzen direlako; eta komunikazioa, hizketaldiak ematen direlako harpidetuen artean.

Aipatzekoa da bestalde, elkartrukaturako mezuak gorde egiten direla eta, hortaz, aurrerago, kontsultak egin edo elkarrizketa atzera hartzeko aukera ere badagoela.

Zerrendak aztertu dituen ikertzailea da Victor Feliu eta bitarteko horretan aditu den Jesus Sanz de las Herasi egiten dio bere artikulu batean erreferentzia (1999). Bigarren horren iritzi, zerrendak balioa galtzen dute kide gehiegi dituztenean -500 kide baino gehiago aipatzen du eta baita elkartrukaturako mezu kopuru handiegia denean -eguneko hamar mezu baino gehiagotan jartzen du itopuntua-.

Lehenengo kasuan, hau da, taldea handiegia dela pentsatzen dutenean, baliteke kideek ez idaztea hainbeste ahotsen artean euren iritzia galdu egingo ote den beldurrez. Bigarren kasuan, mezu gehiegi daudenean, harpidedunek posta betetzen dien mezu guztiak irakurtzeko denborarik ez dutela senti dezakete.

Baina kopuru estandarrak alde batera utzita, zerrenda batean gehiago eragiten du barne dinamikak, harpidedun edo mezu kopuruak baino. Izan ere, guztiak izan daitezke baliotsuak; txikiak, handiak, orokorrak zein espezifikoak.

Zentzu horretan, partaide kopuru handia izateak ez du ziurtatzen mezu kopuru handia izango denik; eta alderantziz, mezu kopuru handia izateak ez du esan nahi bere horretan harpidetuak asko direnik. Izan ere, erabiltzaileak ez du esan nahi derrigor parte-hartzailea.

⁵ "Eibartarrak" zerrendaren kasuan, esaterako, helbide hori eibartarrak@postaria.com da.

Nabarmendu behar da, aurrerago esan bezala, komunikazio parte-hartzaileari indarra, erabiltzaileen esku hartze aktibotik datorkiola (Rheingold, 2008). **Zerrendakideen erabilera aktibo edo pasiboan dago, hortaz, auziaren iltzea.**

Parte-hartzeari dagokionez, hain zuzen ere, Paretoren edota 80/20 araua, testuinguru elektronikora ekarri dute hainbat ikertzailek; zerrendetan mezuen % 80, harpidedunen % 20k sortzen dutela esateko (Echavarria, Mitchell, Liston, Peters eta Wentz, 1995).

Interpretazio antzekoa egiten du Bart-Ilanek (1997) ere, eta bitarteko modernoak izan arren, bertan ematen diren jokabideak tradizionalak direla dio; elkarlana eta parte-hartzea eskasa dela eta bizitasuna eta berrikuntza talde txiki beretik datozela ia beti.

Victor Feluiren arabera, eskarmentu handiena duten harpidedunek osatzen dute gutxiengo aktibo hori. Euren bereizgarrien artean, berriz, ohiko parte-hartzea, gaiak proposatzea, beste erabiltzaileak ere esku hartzera animatzea... daude.

Hizlari aktiboenen erradiografia egin berri dugu, baina zer gertatzen da inoiz ahorririk zabaltzen ez duten horiekin? Uxune Martinezek puntu hau aipatzen du "Euskara eta teknologia berriak: ikusezina agertarazteko auzolana jorratzen", artikuluan (2004). Bertan, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiek ahalbidetzen dute parte-hartzean, jende guztiak ez duela neurri berdinean jokatzeko azaltzen du. Arrazoi ekonomiko edo sozialek eragindako etenak egon daitezkeela nabarmentzeaz gain, erabiltzaile guztiak ez direla eduki sortzaileak azpimarratzen du:

Teknologiak ohituta dauden erabiltzaileen artean partaide pasiboak nagusi dira. Hau da, teknologiak erabiltzen dituzte informazioa eskuratzeko, baina ez dute informazio-erabilerik sortzen. (...) Izan ere lurker⁶ batentzat jasotzen duen informazioa oso baliagarria den arren, bere partaidetza ez zaio onuragarria iruditzen, ez dio balio erantsirik aurkitzen parte hartzeari (Martinez, 2008).

⁶ Lurker hitza ingelesezetik mailegaturiko hitza da, *zelatari* edo *kuxkuxero*, moduan euskaratu daiteke. Interneteko munduan *lurker* esaten zaio gizarte sarean edo beste online komunitate batean begira begira dagoen pertsonari eta parte hartze aktiborik erakusten ez duenari. Besteen mezuak irakurri eta mezurik igortzen ez duen pertsonari esaten zaio *lurker*. Iturria:Wikipedia

Dena den, jarduna areagotu egingo da norberaren bizian gaiak duen garrantziaren edo pizten duen interesaren arabera edo konfiantza hartu ahala -eguneroko jarduna eta lagun arteko estiloa tarteko-.

Emaitzen atalean, Eibartarrak posta-zerrendan erabiltzaileen portaera nolakoa den aztertuko dugu gai hauei dagokionez.


2.2.1.1.1 Posta elektronikoa: zerrendaren oinarri-oinarrian

Posta-elektronikoaren bitartez funtzionatzen du zerrendak, izan are, haren bitartez egiten da mezuen elkartrukea. Interneteko elementu erabilienetarikoa da posta elektronikoa; egunero bilioika mezu gurutzatzen dira haren bitartez sarean. Tresnara sarbidea edukitzeko, aurretiazko hainbat baldintza ditu behar ditugu: Internetera konexioa duen terminala –ordenagailua, telefono mugikorra...-, posta elektronikoen programa aparatuan edo horren orde, zerbitzu hori eskaintzen duen webgune batera sarbidea. Horrez gain, kontu baten jabe ere izan behar gara. Garrantzitsua da, era berean, aurretik aipatutako programak erabiltzeko gaitasuna izatea, eta horrenbestez, gutxieneko trebakuntza bitarteko informatikoarekin. Baldintza hauek desorekak sor ditzakete gizartean; bai estatu baten barruko maila sozial eta adin tarte ezberdinen artean, eta baita lurralde arteko desorekak ere.

Duela 43 urte sortu zenetik, izugarritzko arrakasta izan du posta elektronikoa. Bere hastapenetan, Amerikako Estatu Batuetako Institutu handietara mugatzen zen erabilera, gaur egun, esfera guztietan zabaldua dago, ordea. Posta elektronikoa izan da, gainera, erabiltzaile askorentzat Internetera sartzeko atea, haren bitartez ezagutu dute amarauna. Horrez gain, euskarri moduko bat ere bada, beharrezkoa, beste hainbat eta hainbat zerbitzu erabiltzeko. Orobat, bere onarpen maila altuak eta **ubikuotasunak komunikatzeko tresna estandar gisa aintzakotzat hartzea ahalbidetu du**. Ez soilik urrun daudenentzat, gertu bizi direnen artean ere elkarreragin pertsonal zein profesionalerako bitartekoa da.

Aurretik aipatutako guzti horren ondorioz, herritar askoren bizia hartu dute emailak. Euskal Autonomia Erkidegoko datuak ere esanguratsuak dira zentzu horretan. 2013an argitaratutako “E-inklusioa eta Euskadin herritarrek IKTen bitartez gizartean eta eremu

publikoan parte hartzea” izeneko Arartekoaren txostenetik hartutako kopuruak dira hurrengoak, eta 10 eta 74 urte bitarteko Euskadiko herritarrek Internet erabiltzeko dituzten arrazoiak erakusten ditu ehunekotan:



2. Grafikoa: 10 eta 74 urte bitarteko Euskadiko herritarrek Internet erabiltzeko dituzten arrazoiak/ Iturria: “E-inklusioa eta Euskadin herritarrek IKTen bitartez gizartean eta eremu publikoan parte hartzea” Arartekoaren Txostena.

Posta elektronikoarekin mezuen bidalketa helbide bakarrera edo hainbat helbidetara aldi berean egin daitekeenez eta lan berdina eskatzen duenez, informazioa partekatu daiteke eta eztabaidak sortu hainbat kideren artean modu errazean (Mola, 2000). Hortik dator, hain zuzen ere, posta-zerrenden arrakasta.

2.2.1.2. Iraultza bertan zegoen

Esan bezala, zerrendak erabakigarriak izan ziren sareko lehen komunitateak sortzeko; haietan ematen ziren solasaldiei esker erabiltzaileak harremanak estutuz joan ziren. Hierarkiarik gabeko komunitateak eraiki zituzten, gainera. Horizontaltasunaz aparte, sareko parte hartzearen kulturaren zimenduak ere jarri zituzten eta horrek, informazioaren nolabaiteko demokratizazioa ere ekarri zuen: harpidedunak dira eztabaidatu edo iruzkindu nahi dituzten gaiak proposatzen dituztenak. Hala, programa erraz eta merkeekin, posible bihurtu zen momentu batean eta mundu guztian zehar gai batean interesa zuten pertsona ezberdinak harremanetan jartzea: ideia baten berri emateko, informazioa eskatzeko edota gai baten inguruan iritzi bat agertzeko.

Inportanteena izan da halaber, batzuei balio izan digula ahots propioz gauzak esan eta komunikatzeko "boteretzeaz" jabetzeko, ez bakarrik unean unean nahi duguna esateko (pertsonalki, inongo dependentziarik gabe, hedabide izateko aukera), baita ere besteek esaten duten kontuetan dialogo batean sartzeko (Fernandez, 2013).

2.2.1.2.1 Klik egin eta lehen komunitateak eratu

Argi dago tresnek besterik gabe ez dutela komunitaterik sortzen, baina sarearen hastapenetan interes edo identitate komun bat zutenak zerrendetan bildu ziren, eta euren parte-hartzea aktiboaren bitartez harremanak eratzen joan ziren. Hor kokatzen dute hainbat autorek komunitate birtualen jaiotza (Wellman eta Gulia, 1996; Vela, 2005;).

Zer du apartekorik, ordea, solasaldia digitala izateak ala elektronikoa, eztabaidak? Ez al dira, azken batean, hainbat lagun euren interesak, arazoak, desirak, eta abarrak adierazten?

Izatez, jendea betidanik elkartu izan da euren kezka edo zaletasunen inguruan solasean aritzeko; zerrendekin ekin zioten, alabaina, bitarteko teknologikoak erabiliz komunitateak eraikitzeari.

Komunikazio egitura berriak sortu ziren modu horretan. Haietan, denbora-espazio erreferentzia tradizionalak ez zuten ordura arte izandako garrantzia; hau da, leku ezberdinetan zeuden pertsonak aldi berean ala modu asinkronikoan komunikatu zitezkeen.

2.2.1.1.2. Klik egin eta berdintasunean eraiki

Komunitateak modu horizontalean ekin zioten eraikitzeari, gainera. Izan ere, zerrenda batean, harpidetu guztiek eskubide eta betebeharrak berdinak dituzte eta euren mezuak ere maila berean kokatzen dira. Leire Narbaiza Eibar.org-eko kideak EraldaLAB jardunaldietan (2012) nabarmendu zuenez, berdintasunean eraikitzen dira *Eibartarrak* posta-zerrendaren baitan ere harremanak:

Horretarako izen eta abizenekin funtzionatzen dugu eta gure artean dagoen harremana horizontala da. Inor ez da besteak baino gehiago (Iturri ez zuzenen azterketa. Narbaiza, 2012).

Bestalde, aukera berdinak izan arren, egia da, zerrendako kide batetik bestera parte-hartzea eta portaera asko aldatzen direla. Egon badaude, mezu asko elkartrukatu duten harpidedunak, baita inoiz iruzkinik egiten ez duten *lurkerrak* ere. Gauzak horrela, praktikan, jokabide gida informalak sortzen dira partaideen artean aktiboagoak eta ekarpenetan nabariak direnak sortuz (Kiley, 1998).

2.2.1.1.4. Klik egin eta sareko lengoia sortu

Bitarteko digital berriek, hiritarra eta parte-hartzailea den antzinako forma bat berreskuratu dute: ahozkotatasuna. XXI. mendeko ahozkotatasuna da, hala ere. Adierazpen gisa,

irakur-idazmenaren antza gehiago badu ere, eta egia bada ere, mezuak hizki forman eta irudien bitartez dabiltzala batetik bestera gure pertzepzioa ahozko elkarrizketarena da; esan eta entzutearena (Lara, 2012).

Sarekoa, beraz, lengoia hibridoa da; ahozkotik eta idatzizkotik, bietatik hartzen du, eta mailegu linguistiko eta sinbolo partikularrekin hornitzen da. Horiek horrela, galdu egiten ditugu hitzik gabeko komunikazioak adierazten dituenak (keinuak, begiratuak, mugimenduak...) Ez dugu hasperenik egiten inor ikusiko, ez eta algaraka hasten denik entzungo. Aitzitik, emotikonoak⁷, laburdurak... hutsune hori betetzeko erabiltzen dira.

Homer: What's an email?

Lenny: It's a computer thing, like, an electric letter...

Carl: ... Or a quite phone call⁸.

2.2.1.2.5 Klik egin eta hedabideetatik at, komunikazioa harrotu

Masa-hedabide hainbaten diskurtso ofizialetatik harago, informazioaren elkartruckerako tresna merke eta alternatiboa izan daiteke posta zerrenda:

Sasoi latzak izan ziren, Aznaratoa bete-betea, ezin dugu ahaztu otsailaren 2003an Egunkaria itxi zutela eta martxoan Irakeko inbasio/gerra hasi zela. Honekin esan nahi dut garai hartan komunikazio premia handia zegoela, eta e-maila bageneukanok inoiz baino gehiago hasi ginela erabiltzen (Narbaiza, 2012)

Horiek horrela, lanabes garrantzitsua bihur daiteke masa-hedabideetan nagusi diren joerei aurre egiteko.

⁷ Gorputz hizkuntza edo pertsonen gogo-aldarte adierazteko, aurpegi bat irudikatzen duten aurpegierak dira «emotikonoak». Funtsean, sinboloz osatutako kateak dira. :-) barrea adierazteko edo :-(triste gaudela ohartarazteko, adibidez.

⁸ "The Simpsons" telesailaren *The Computer, Wore, Menace, Shoes*, kapitulua-ren gidoiaren zati bat, *telebistan lehen aldiz 2000ko abenduan bota zuten*.

2.2.1.3 Parez-pare: Abantailak eta desabantailak

2.2.1.3.1 Abantailak: *Ona, ederra, merkea...eta askea*

Herrerok (1996), zientifikoak diren zerrendak aztertu ditu, berez, baina badira zerrenda guztietara estrapolatu daitezkeen ezaugarriak:

- Azpiegituraren kostua baxua da
- Informazioak ez du kosturik sortzen
- Ez du biltegi handiegirik behar
- Informazioa erraz banatzen da kideen artean
- Pertsona gutxi behar dira mantentzeko

Vidalen ustetan (1999), hiru abantaila nagusitan laburtu daitezke zerrendak erabiltzeko arazoak: erosotasuna, bere kostu txikia eta informazio elkartrukearen arintasuna. Bestalde, honako onura hauek aipatzen ditu, Alberto de Abajo Gonzalez desagertutako Euskal zerrendaren arduradunetako batek *Eztabaida Zerrendak Euskaraz eta beste* artikuluan (2001):

- Eztabaida zerrenda batek, denboraren eta espazio fisikoaren mugak eta baldintzak, aise, gainditzen ditu. Besteak beste, herri ezberdinetako elkarte edo pertsonen arteko informazio jariora zein esperientzien elkar trukaketa amen batean suertatu daitekeelako.
- Interes bereko gizabanakoen komunitate (birtualak) sortu daitezke.
- Komunikabideen monopolioa hausten duen baliabidea bada.

2.2.1.3.1 Desabantailak: *Denak urreak ez dira*

María del C. Malbrán eta Viviana R. Pérez ikertzaileek, ordea, beste aditu batzuek ontzat emandakoa arazo bihurtzen dute. Bitarteko asinkronikoa izatea, esaterako, autore askok

abantaila dela diote edonon edo edozein ordutan segitu dezakezulako eztabaida. Malbrán eta Perezek, aldiz, arrisku batez ohartarazten dute; izan ere, mezuak irakurtzeko orduan atzerapenak egon daitezke, eta horrez gain, baliteke mezuak gerorako uztea erabiltzaileak. Bi ekintza hauekin eztabaidaren haria galtzeko arriskua dagoela ondorioztatzen du, azkenik, ikertzaile bikoteak (2004).

Belmonte ikertzaileak (1998), aldiz, horrela zerrendatzen ditu posta-zerrendari eragiten dien arazoak:

- Spam edo zabor-posta
- Testuingurutik ateratzen diren eztabaidak
- Zerrendaren administrazioari lotutakoak
- Harpidedunen parte-hartze eskasa edo pasibitatearen arazoa

2.2.1.4 Posta-zerrendaren ezaugarriak

2.2.1.4.1 Moderazioaren arabera

- Moderatuak: Komunitateko kide bat edo hainbat kide zerrendako mezuen moderazioaz arduratzen dira. Hori horrela izanda, parte-hartzaile batek mezu bat bidaltzen duenean moderatzailea izango da edukia ikuskatu eta mezua zerrenda osoari birbidali ala ez erabakiko duena. Reciorek ustez, baditu zerrenda mota honek bere onurak eta kalteak: “Abantaila, kideek gaiaren esparrutik kanpo dagoen mezurik ez dutela jasoko da. Desabantaila, berriz, mezuak epez kanpo iritsi daitezkeela partaideengana, izan ere, ez dituzte jasoko mezuak moderatzaileak birpasatu eta birbidali arte” (2003). Merlo eta Sorliren esanetan, badute moderatzaileek beste funtzio bat ere, akuilu gisa jokatu behar dute eztabaidarako gaiak proposatuz edo parte-hartzea antolatuz. Horrez gain, elkarrizketak zaindu behar dituzte harpidedunen artean arazorik ez sortzeko (1999).
- Zerrenda ez moderatuak: Harpidetu guztien mezuak zuzenean jasotzen ditu taldeak, inolako galbaherik pasa gabe. Reciorek ustez badute desabantaila bat, gaitegitik ateratzen diren mezuak jaso ditzake harpidedunak, baita kalitate txarrekoak edo

okerrak ere (2003). Nahiz eta moderatzailerik ez egon beharrezkoa da administratzailearen figura. Bere zeregina zerrendaren mantenua eta taldearen funtzionamenduari erreparatzea da. Normalean ez ditu mezuak kontrolatzen. Zerrenda gehienek dute eginkizun horretaz arduratzen den norbait edo hainbat.

2.2.1.4.2 *Sarbidearen arabera*

- Irekiak: Edonor harpidetu daiteke zerrendara inolako baldintzarik gabe.
- Itxiak: Esparru profesional bateko partaide bagara, profil jakin bat badugu edo lehendik adostutako baldintza batzuk betetzen baditugu soilik izango gara harpidedunak zerrendan hauetan. Onartuak garen ala ez erabakitzeaz, zerrendaren administratzailea arduratuko da.

2.2.1.4.3 *Fitxategien kontsultaren arabera*

- Publikoak: Web orri batean eta daude mundu guztiaren eskura zerrendako mezuen fitxategiak.
- Pribatuak: Zerrendako kideek bakarrik ikus ditzakete mezuak eta artxiboak kontsultatu.

2.2.1.4.4 *Eibartarrak, eskema*

Ikusitako sailkapenaren arabera horrelakoa izango litzateke *Eibartarrak* zerrendaren izaera:

MODERAZIOA	SARBIDEA	FITXATEGIEN KONTSULTA
Ez moderatua	Irekia	Publikoa

4.Taula: Eibartarrak eskema moderazio, sarbide eta fitxategien kontsultaren arabera.

Iturria: Norberak egina.

2.2.2 Blog komunitatea, ezpala

2004an sortu zenean, euskal blog komunitateetan lehena izan zen eta erreferentziazkoa bihurtu da. Urteei, komunikazio egitura konplexu eta gizarte aldakor bati egin dio aurre bere ibilbidean, gainera.

XXI. mende hasieran, blogak oraindik ezezagun ziren garai hartan, Euskal Herriko lehenengo blog-komunitatea sortu genuen EibarOrg-ko kideok. 2004ko uztailean izan zen. Ikastaro txiki bat eman, eta 8-10 blogari hasi ginen lehenengo urratsak ematen sarean. Harrezkero beste hainbat batu zaizkigu komunitatera, 30 blogeko komunitate sendoa sortu arte, horietako asko erreferentziazkoak euskal blogosferan (Sarasua, 2014).

Mundua ikusteko eta ezagutzeko ez ezik, harremanetan jarri eta komunikazioan parte-hartzeko leihoak dira blogak. Haietan gure ikuspuntua, iritziak edota gogoetak plazaratu ditzakegu. Momentu batean eta munduko edozein txokotara iritsi daitezkeen bizipenak dira, bestalde. Beste erabiltzaileek, era berean, gure edukia iruzkindu dezakete eta haiek ere euren ikusmira, ideiak eta hausnarketak partekatu gurekin.

Adierazteko bitartekoa da, hortaz, bloga: blogariaren espazio pertsonala da (Huffaker, 2004) idatzitakoa besteei zuzendua egon arren (Mortersen, 2002), eta elkarrizketei bide ematea badu ere helburu (Moor eta Efimova, 2004).

Blogetako jarduna aztertzeke ere zerrendaren kasuan bezala, lau hilabetetako behaketa, galdetegia, eta elkarrizketak erabili dira. Beste ataletan egin dugun moduan, behin aztergaia eta prozedura aurkeztuta, has gaitezen fenomenoaren nondik norakoak azaltzen:

2.2.2.1 Zer da weblog bat?

Weblog⁹ terminoa, ingelesetik datozen bi hitzen elkarketa da: web (sarea) eta log (ontziko liburu edo nabigazio-egunkaria). Horiek horrela, web-ak munduko ordenagailu guztien sarea adierazi nahi du eta log-ek, berriz, tresnaren bereizgarriari egiten dio erreferentzia: blogaren erabiltzaileak (blogariak) egindako sarrerei. Justin Hall kazetaria izan zen lehena 1994. urtean bat martxan jartzen eta bera hartzen da lehen blogarizat. Weblog kontzeptua erabiltzen, dena den, Jorn Barger izan zen aurrenekoa. 1997an egin zuen, *Robot Wisdom* deituriko bere webgunea izendatzeko.

2.2.2.1.1 Zerk definitzen du? Eta zerk bereiztu?

Modu kronologikoan, data aldean dutela eta maiztasun batekin edukiak eguneratzen dituen webgunea da; horraxe, ikertzaileen artean definiziorik errepikatuena (Himmer, Herring, Kouper, Scheidt eta Wright, 2004; Nardi, Schiano eta Gumbrecht, 2004).

Maiztasun horrez gain, elkarreraginaren ideia aipatzen du Leibbrandt-ek (2013): *Blogariak erregularitasunez eguneratzen dituen ohar eta elkarrizketak dira blogak. 2007an egindako ikerketan, Schimidtek honako definizioa proposatzen zuen: Maiztasunez eguneratutako webgunea da, non edukia (testu idatzia, irudiak, soinu artxiboak etb.) modu erregularrean argitaratzen diren, eta alderantzizko hurrenkerak kronologikoan kokatu. Irakurleek banakako sarrera bakoitzean iruzkina uzteko aukera dute gehienetan, eta banakako sarrera horietako bakoitza URL bakar batekin identifikatu ohi da. Interesgarria da definizio hau ere, batez ere, izaera multimediarrean arreta jartzen duelako.*

Orihuelak eta Santosek, aldiz, blogetan banatzen den subjektibitatea ekartzen du definiziora: *Jatorrian, eguneroko pertsonalak bezala egituratutako webguneak dira; erregularitasunez eguneratzen diren esteka, albiste eta iritzietan oinarritzen dira, eta estilo informal eta subjektiboan idatzi (2004). Estalellaren hitzak ere jaso ditugu, izan ere, honek blogen arteko konektibitatea du hizpide: *Sozialitate era berriak garatzen diren espazio pertsonalak dira**

⁹ Hainbat adituk weblog hitza tresna kolektiboa denean erabiltzen dute eta blog terminoa, aldiz, bitarteko pertsonalerako.

blogak, ez soilik testu komunikazioan oinarrituak bai eta praktika eta mekanismo konektiboetan ere.

2.2.2.1.2 Ezaugarriak

Euren arteko aniztasunak bereizten ditu; aniztasuna formatuan, diskurtsoan eta esposizioan. Mota ezberdinetakoak izan daitezke (korporatiboak, kolektiboak, monografikoak, pertsonalak...), zernahi izan daiteke generoa ere (gogoeta, albisteak, iritzia, kronika...) eta baita formatua (testu idatzia, audioa, bideoa..). Baina aniztasun horren barruan, definitutako etiketa edo arlo zehatz batzuen arabera sailka daitezke sarrerak eta barne eta kanpo lotura asko izan ohi dituzte.

Ohiko web orri batekin alderatuta, blogak badituzte beren berezitasunak. Beti ere kasuistika ezberdinak daudela onartuz, blogetan **eguneraketa garrantzitsuagoa izan ohi da** webguneetan baino. Izan ere, orokorrean, etengabe berritzen doan produktu bat da bloga, ez du amaierarik. Horrez gain, **elkarreragina sustatzeko xedea ere badu**, normalean, web orriak duen interakzio asmoa baino handiagoa. Blogariaren zereginetako bat da, beraz, irakurlea geureganatzea eta iruzkinak uztera animatzea.

2.2.2.1.3 Egitura

Blogaren egitura, neurri batean, argitaratzeko aukeratutako plataformak baldintzatuko du. Dena den, badira blogak ohikoak dituzten hainbat elementu:

SARRERA: ALDIKO DOSIA	Blogaren oinarritzko unitatea da, bere atomoa. Edozein html dokumentuk bezala, idatzizko testuez, irudiez, audioez, bideoez... osatua egon daiteke. Goiko aldean berrienak kokatzen dira eta ondorengo guztiak alderantzizko hurrenkera kronologikoan doaz.
PERMALINK: ARTXIBOARI LOTUTA	Sarrera bakoitzak lotura iraunkorra izan ohi du. Url batekin banan-bana gordetzen da eta horrek ahalbideratzen du beste blog eta webgune batzuetan eduki horien estekak jarri eta jatorrizko

	artxiboetara bideratzea.
IRUZKINAK: BLOGAREN IZATEKO ARRAZOIA	Blog gehienek erantzunak uzteko aukera ematen dute sarrera bakoitzaren amaieran, blogari eta irakurlearen arteko solasaldiak ahalbidetuz.

5.Taula: Blogen ohiko elementuak.

Iturria: Norberak egina.

Ohiko egituretan aurrez aipatutako ezaugarri horiez gain, beste hainbat elementu ere aurki ditzakegu: gustukoen dituen blogen zerrenda jar dezake, esaterako, blogariak, edo baita informazioa kudeatzeko rss jariora harpidetzeko botoia ere, adibidez.

Eibar.org-eko blogariak norbere blogaren egitura euren gustura jartzeko aukera dute, plantilla, euren beharizanetara egokituz modu erraz eta eraginkorrean. Horiek horrela, atalak gehitu ditzakete, diseinua eta antolamendua aldatu, goiburua pertsonalizatu etab.

2.2.2.2 Blogintza, kazetaritza eta bien arteko elementu komun eta ñabardurak

Errealitateak ez dizkigu blogerako sarrerak eskaintzen bere horretan, errealitateak, gertakariak, gaiak, azken batean, egunerokoa eskaintzen digu eta guk egiten dugu haren gaineko aukeraketa eta interpretazioa. Zein da, orduan, blogariak duten papera eta zein blogen eragina egungo informazio jarioan?

We media edota *Don't hate the media, become the media* ideiek, publikoaren parte-hartzean arakutzen dute talde mediatiko handien kolaboratzaile bihurtuz edo haiei aurre egiteko bestelako espazioak sortuz. Sareak, herritarrari komunikatzaile bihurtzeko ahalmena eman dionez, kazetaritza molde berriak ere sortu dira, tartean, kazetaritza herritarra. **Blogak, hain zuzen ere, plataforma aproposak dira herritarrentzat eurek sortutako edukiak plazaratzeko.** Are gehiago, funtsezkoak izan dira komunikazioaren esparruan herritarrak ahalmenu eta mugiarazteko.

Kazetaritza-generoen sailkapenaren irizpideak jarraituta, berriz, blogak, zutabeak edo **iritzi-testuak** direla diote hainbat adituk (Armentia, 2006; Espinosa, 2007). Datu eta

deskribapenez osatutako piezak baino narrazio hibridoak egiten dituzte blogariek, osagai komunak informazio, esperientzia eta iritzia izanik. Jose Luis Orihuelak, dena den, blogintza zer den zehaztu, eta ez duela zertan kazetaritzaren jardunaren baitan sartu adierazten du (2014):

1. Blogak ez dira genero bat, hedabide bat baizik.
2. Blogak ez dira masa hedabideak, medio sozialak dira.
3. Blogak ez dira gunee pribatuak, bertakoa komunikazio publikoa da.
4. Blogak ez dute bestelako hedabideen amaiera ekarriko baina horiek aldatzea eragingo dute.
5. Blogak ez dira kazetaritza blogak direlako (izatekotan beste ezaugarri batengatik dira).
6. Blogak ez dute editorerik, autoreak autogestionatutako hedabideak dira.
7. Blogak ez dira zailak baina eurak mantentzeak dedikazioa eskatzen du.
8. Blogak ez dira formatu hutsak, kultura ere badira.
9. Blogak ez dira bakarrizketak, elkarriketak dira.
10. Blogak pertsonalak dira.

2.2.2.3 Gaitegiari dagokionez askea, askotarikoa

Blogez, Oxford English Dictionaryk 2003an egindako definizioa: *Blogak, albiste, hitzordu, ezkontza, dibortzio, haur, Ekialde Hurbileko politika eta beste milioika kontutaz edo ezertaz, eguneroko gogoetak dira.*

Hala, denetarik aurki dezakegu blogosferan. Interneteko katalogo infinituaz mintzo da Luistxo Fernandez; hau da, informazio orokorraren aurrean, *interes anitzen merkatu anitzez* (2005). Ildo horretatik doa Koldo Mesoren iritzia ere; komunikazioaren mundura blogak egindako ekarpena hedabideen ohiko agendetatik kanpo dauden gaiak aintzakotzat hartu dituztela da irakaslearen ustetan (2008). Norbere esparruan aditua izan daiteke, gainera, bere arloaz informatu dezakeena sarean, inoren bitartekaritzarik gabe.

2.2.2.4 Blogaria, edukia eta esfera publiko eta pribatua

Aniztasunaz gain, badute beste apartekotasun bat, eta hori kontakizunetan egoten den **subjektibitatea da** (Leibrandt, 2013; Brake, 2009; Orihuela eta Santos, 2004). Kasu askotan, narrazioak blogariaren esperientzia pertsonaletatik abiatzen dira: zinean ikusi duten pelikula atetik edota gasolina botatzean ordaindu dutena kontatzen. Batzuetan aitzakia da, esaterako, teknologia munduko azken joeretara edota nazioarteko ekonomiara salto egiteko gero. Beste batzuetan egunerokoa bera da kontakizunaren muina.

Bi kasuetan hor dago blogariaren ahots propioa. Are gehiago, esperientziei heldu gabe, nazioarteko ekonomiaz edo teknologia munduko azken joerez soilik hitz egiten badute ere, euren arrasto pertsonala hor dago. Izan ere, hizpide dugun ahots propioa ezaugarri askotan antzematen da: aukeratutako gaietan, erabilitako estiloan... Horiek horrela, patchwork eskulanen irudiko, blogaria, bere buruari buruzko oihal pusketa txikiak (zertan den aditu, zer interesatzen zaion, zein den bere iritzia...) harilkatzen doa zapi handi batean (blogean).

Autore ezberdinek aztertu duten gaia da honakoa. Tiscar Lara ikertzaileak blogak *sarean izan eta egoteko* moduak direla azpimarratzen du; gure identitate digitala eraiki eta proiektatzeko era (2012). *My blog is me* izena du, bestalde, Adam Reed ikertzaileak 2005ean argitaratutako artikulu batek, titulu esanguratsua. Guztiarekin, Eduardo Galeano idazlearen hitzak datozkigu gogora: *garena dioten hitzak gara*.

Modu horretan, gure buruaz hitz egiterakoan, eremu pribatua eta publikoaz daukaguna birdefinitzen ari da etengabe (Violi, 2008). Bitarteko elektronikoek, areagotu egiten dute fenomenoak. Non daude bien arteko mugak? Galdera honen inguruan bueltaka beste hainbeste ikertzaile aurkitu ditugu. José Luis Daderrek (1992) eremu pribatu, sozial eta publikoa bereizten ditu, eta hiru eraztunen bitartez adierazten du esfera horien arteko elkarbizitza. Batetik, esfera pribatua dago - barrura ematen duen zirkulua- eremu partikularrari edo familiari lotua. Bestetik, esfera soziala -kanpora begira dagoen zirkulua-, oihartzun publikoa zertan eduki ez duten aktibitate ekonomiko eta politikoak osatua. Eta horiek biak lotzeko esfera publikoa aurkitzen dugu. Sampedroren hitzetan, mugimenduan daude aipatutako esfera horiek eta bi joera ezberdin antzeman daitezke: gizartearen pribatizazioa eta pribatua gizarteratzea (2000).



3.Grafikoa: Esfera sozial, publikoa eta pribatuaren arteko eraztunak.

Iturria: Norberak egina.

Hain zuzen ere, González, López eta Redondoren arabera blogak izan ziren, sarean, eremu publiko eta pribatuaren arteko bereizketa dinamizatzen lehenengoak (2014). Ordutik, eta batez ere sare sozialen etorrerarekin, fenomenoak, are dimentsio konplexuagoak hartu ditu. Indefinizio honetan, Baumanek blogak, ez direla ez pribatu eta ez publikoa ondorioztatzen du; hau da, *pribatu eta publiko direla era berean* (1999).

2.2.2.5 Blogaria eta bere hamaika arrazoiak

Blogariak komunikatzeko beharrak eraginda argitaratzen du (Leibrandt, 2006). Komunikatzeko behar hori giza izaeraren oinarri-oinarrian dago; antzinako ahozko narratzaileek egiten zuten gisa, beranduago idazleek... blogariak ere bizipen, informazio, esperientzia, ideia eta bestelakoak argitaratzeko premia sentitzen dute.

3000 blogarik parte-hartu zuten ikerketa batean Ferreres eta Garrido ikertzaileek ondorioztatu zuten, motibazio pertsonalak dira pizgarri nagusiak bloga idazteko orduan. Eraitzen arabera, bitakorak, barrua husteko eguneroko bezala edo entretenimendu gisa

erabili ohi dira gehienetan. Ondoren, ikuspegi utilitaristagoak aipatzen ditu ikertzaile bikoteak, eta horren arabera, blogariak prestigioa lortzeko edo komunitate baten parte sentitzeko baliatzen dituzte. Azkenik, bada, inkestatik atera duten hirugarren motibazio talde bat eta horrek, komunikazioari lotutako arrazoiak biltzen ditu: *hedabide propio bat izatea, informazio ofizialari paraleloa den edukiak eskaintzea edo lagun eta familiako kideekin harremanetan egotea, besteak beste*.

Ikerketa honetan Eibar.org-eko kideei euren motibazioen inguruan galdegin diogu, emaitzetan ikusiko ditugu haien erantzunak.

2.2.2.6 Audientzia(k)

Ahots publikoaz ari gara lan honetan baina zertarako balio du ahotsa izateak entzulerik ez badauka atzean? Blogak jarraituko dituen audientzia sustatzea beharrezkoa da, jendea blogetan jardutera bultzatzea bezain beste (Rheingold, 2008). Izan ere, blogosferan, pentsatzen duzuna adieraztea ezinbestekoa da zure mezua aditzera emateko, baina zure mezua entzungarri izateak ez du esan nahi bere horretan entzuleak izango dituzunik.

Norentzat idazten du, orduan, blogariak? Brake ikertzaileak, batzuetan, bestaldean irakurlerik ez balego bezala idazten dutela dio. Bestetan, berriz, berehalako audientzia batean pentsatuta argitaratzen dutela, baina bere ikerketako blogariak etorkizuneko audientzia batean, horretan, ez dutela hainbeste pentsatzen ondorioztatzen du (2009). Howardek, aldiz, blogariak beste erabiltzaile aktibo batzuek gogoan idazten dutela dio, irakurtzeaz gain beren ekarpenekin erantzuten duten horientzat (2008).

3. Kapituluua: Ikerketaren metodologia

Ikerketa esploratzailea izango da honakoa, fenomenoaren ezagutza orokorra lortze aldera. Ikerketa mota honetan helburua gehiago da balizko azalpenak aurkitzea, hipotesi zehatzak frogatzea baino (Juaristi, 2003).

Eibar.org-era gerturatzeko asmoz, teknika kuantitatiboak eta kualitatiboak erabili ditugu. Dokumentazio lanekin ekin genion ikertzeari, teoria ezberdinetan murgilduz. Behin teoriak ezberdinak ezagututa, atariari jarraipena egin diogu Eibar.org-en errealitatea deskribatzeko helburuarekin. Behaketak iraun bitartean, berriz, inkesta eredu ezberdinak diseinatu eta banatu ditugu blogari zein zerrendakideen esperientziak jasotzeko. Horretaz gain, lana osatzeko asmoz, haietako batzuk elkarrizketatu egin ditugu.

Ekintza	Teknika mota
Dokumentazio lanak	Kualitatiboa
Atariaren jarraipena	Kuantitatiboa
Inkesta	Kuantitatiboa
Sakoneko elkarrizketa	Kualitatiboa

6. Taula. Ikerketan erabilitako teknika motak

Iturria: Norberak egina.

3.1 Atariaren jarraipena (Behaketa):

Elkartearen nortasun ezaugarriak behatu eta identifikatze aldera, lau hilabetetan (2013ko abendutik 2014ko martxora) adi egon gara Eibar.org atarira. Behaketa hori, gainera, parte-hartzailea izan da. Izan ere, garrantzitsua iruditu zaigu elkartea barrutik deskribatzea. Hori dela eta, ikertzailea elkarteko bazkide egin da eta blog komunitatean bloga zabaldu du –

ikerketaren ingurukoak argitaratu ditu “Juan San Martin Beka” bitakoran¹⁰-. Horrez gain, *Eibartarrak* posta-zerrendako harpidedun ere bihurtu da eta hainbat mezu elkartrukatu ditu, batik bat, proiektu honen ingurukoak.

Atariaren jarraipena egitean, hurrengo aldagaietan jarri da arreta: eduki sortzaileak identifikatu dira, mezu eta edukien maiztasun eta kopurua neurtu da, irakurleekiko elkarreragin zehaztu, idatzizko hizkuntzaren erabilera aztertu eta audientziaren inguruko datuak arakatu. Helburu horrekin, fitxa ezberdinak diseinatu dira atal bakoitza aztertzeko:

A. Blogei dagokionez

Blog bakoitzari fitxa bat sortu, eta hurrengo puntuetan jarri da arreta:

- o Sarrera kopurua
- o Sarrerren maiztasuna
- o Sarrerren egileak
- o Sarrera bakoitzean utzitako iruzkinak
- o Sare sozialetara egindako lotura kopurua

B. Zerrendari dagokionez

Zerrendaren kasuan, batez ere, elkarreraginean jarri da lupa:

- o Mezu kopurua
- o Proposatutako gaiak
- o Mezu bakoitzak izandako erantzunak
- o Mezuetan parte-hartu duten zerrendakideak

Azaldu bezala behaketa aktiboa lau hilabetetara mugatu da, baina elkarte honek ibilbide luzea duenez eta lana osatzeko asmoz, bertako erabiltzaileek hainbat komunikabide eta jardunaldietan egindako adierazpen eta iritziak ere jaso ditugu. 2012. urtetik aurrerakoak eta

¹⁰ <http://eibar.org/blogak/odriozola> da blogaren helbidea.

lan honentzako esanguratsuak direnak bildu ditugu emaitzen atalean *iturri ez zuzenen azterketa* identifikatzailearekin.

3.2 Inkesta

Informazioa biltzeko tresna honi esker, xehetasun handiagoarekin ezagutu dugu Eibar.org. Bistakoa denez, gure ikerketan protagonista absolutua eduki sortzailea da, horregatik zerrendakide eta blogarietan jarri dugu arreta. Sonia Ruiz Blancok 2009an argitaratutako “Del blog al microblog: el devenir del receptor en generador y emisor de contenidos en la web” doktorego-tesiko inkesta lagungarri egin zaigu.

Lagin modura, unibertso osoa hartu dugu; hau da, posta-zerrendaren bitartez zerrendakide eta blogariekin jarri gara harremanetan eta haren bitartez bidali diegu inkesta. Posta-zerrendan harpidetuta ez zeudenekin beste bide batzuk erabili dira. Parte-hartzea kasu guztietan, boluntario izan da.

Parte-hartzaileei, proiektuaren oinarri diren bi tresnen inguruan galdetu diegu: bloga eta posta-zerrenda. Honako atalak jasotzen zituen erabilitako galde-sortak:


- **Datu pertsonalak.** Partaideen ezugarri nagusiak identifikatu dira, eta modu horretan, zerrendakide eta blogarien perfilak zehaztu.
- **Ikuspuntu historikoa.** Elkartearen jatorri eta bilakaera aztertu dira.
- **“Eibartarrak” posta-zerrenda.** Bitartekoaren alderdien inguruan itaundu da; hala nola, parte-hartzea eta mezuen irakurketa, zerrendako kideen arteko harremana, eta abar.
- **Eibar.org blog komunitatea.** Blogiei buruz galdegin da: bloga idazteko arrazoiak, landutako gaiak, informazio-iturriak, blogari eskainitako denbora eta abar.

- **Eibar.org eta euskara.** Elkartearen baitan euskarak duen garrantzia aztertu da, hizkuntzaren inguruan galdekatuz. Gaian sakonduz, euskara batuaren eta lekuko euskararen erabilera beste puntu bat izan da.

- **Eibar.org eta teknologia berriak.** Elkartearen eta teknologia berrien lotura ikertu da; adibidez, teknologia berrien inguruko zaletasunari edo jakintzari buruzko galderak planteatuz.

- **Eibar.org eta Eibar.** Elkarreak Eibarrekin duen lotura zehaztu nahi izan da, gaiak herriarekin duten loturan arreta jarritz.

Dena den, partaideak Eibar.org-ekin duten harremana ezberdina izanik, hiru inkesta ezberdin egitea erabaki dugu.



4. Grafikoa: Inkesta eredu motak.

Iturria: Norberak egina.

Eredu denak kontuan hartuta, 24 lagunenak izan dira guztira, bueltan jaso ditugun erantzunak.

- 2014ko irailaren 9an 89 ziren zerrendakideak, horietariko 3 kontu artxibo-sistemenak dira (ez humanoak) eta ez ditugu kontatuko. Zerrendakideen % 24 izan dira inkesta bete dutenak.

- 2014ko irailaren 9an 37 ziren komunitateak bere baitan hartzen zituen blogak, blogarien % 32k erantzun dute.

3.3 Elkarrizketak

Ikerketa hau bat etorri da denboran Eibar.org-en hamargarren urteurrenarekin, eta gertaera hori erabakigarria izan da azterlanaren garapenean. Elkarrizketei dagokionez, bere biziko garrantzia izan du aldiberekotasun honek. Izan ere, mugarri hori ospatzeko bi bideo ekoiztea planteatu ziren; bata, Eibar.org-en historiaren inguruan; eta euskal blogosferari buruz, bestea. Ikertzaileak elkarrizketa guztietan parte-hartu du, proiektu honetarako materiala lortzeko asmoz. Horretaz aparte, bideoan parte-hartu ez duten beste zenbait lagun ere elkarrizketatu ditugu, tartean, Luistxo Fernandez, Eibar.org-en sustatzailea.

Elkarrizketa hauek bihurtu dira lan honen sostengu neurri batean; blogariak izanik solasaldietan hizpide eta hizlari.

3.3.1 Bideoan elkarrizketatuak

3.3.1.1 Bideoan parte-hartu duten Eibar.org-eko blogariak:

Oier Gorosabel. Eibar.org sortu zenetik blogari, *Garagoittiko Orakulua*¹¹ blogaren jabea da. Fisioterapeuta lanbidez, osasunaren ingurukoak <http://abante.eus/> webgunean argitaratzen ditu; espeleologiaren zaletu, ADES atarian ematen du haren berri. Twitterreko kontua ere badu: @txikillana.

¹¹ Garagoittiko Orakulua: <http://eibar.org/blogak/orakulua>

Mikel Iturria. 2000tik Eibar.org-eko kide, *Harrikadak*¹² bloga da bere edukiak gordetzen dituen etxea, blog bera gazteleraz idazten du www.javierortiz.net orriaren baitan. Twitterren: @iturri. Komunikazio-profesionala.

Elena Laka. Abokatua. Eibar.org-eko kide elkartearen hasieretatik, *Izan eta esan*¹³ bloga da berea. Horrez gain, Leire Narbaizarekin eskuz-esku *Anti-gona*¹⁴ modari buruzko blogean ere argitaratu izan du. @ElenaLaka da Twitterren.

Leire Narbaiza. Euskara irakaslea. 2002an posta-zerrendan izena eman zuen eta handik blog komunitatera jauzi egin, *Kalamuatik Txargainera*¹⁵ blogarekin. Horrez gain, Elena Lakarekin *Anti-gona*¹⁶ modari buruzko blogean ere idazten du. @txargain da bere erabiltzaile izena Twitterren.

Markos Zapiain. Irakasle, idazle eta filosofoa *Markos Zapiain*¹⁷ blogean idazten du, sarri, filosofiaren inguruan.

3.3.1.2 Bideoan parte-hartu duten Eibar.org kanpoko blogariak:

Iban Arantzabal. Komunikazio-profesionala. 2007tik bere blog propioan idazten du Goienako komunitatearen barruan dagoen *Etxebarri*¹⁸ izenekoan. Twitterren @iarantzabal.

¹² Harrikadak: <http://eibar.org/blogak/iturri>

¹³ Izan eta esan: <http://eibar.org/blogak/elena>

¹⁴ Anti gona: <http://eibar.org/blogak/antigona>

¹⁵ Kalamuatik Txargainera: <http://eibar.org/blogak/leire>

¹⁶ Anti gona: <http://eibar.org/blogak/antigona>

¹⁷ Garagoittiko Orakulua: <http://eibar.org/blogak/orakulua>

¹⁸ Etxebarri: <http://www.arantzabal.eus/>

Joxe Aranzabal. Komunikazio arloko irakaslea, Web 2.0 eta esparru digitalaren inguruko irakasgaietan, batik bat. 2001etik Sustatun kolaboratzaile eta 2004az gero, *Faroa*¹⁹ blog pertsonalaren jabe Goienako blog komunitatean. Twitterren, @joxearanzabal.

Gorka Bereziartua. Kultur kazetaria, Argiako webgunean dago bere bloga: *Boligrafo gorria*²⁰. 2006koa da bertan ageri den lehen sarrera. Horrez gain, Twitterren ere badabil @boligorrria erabiltzaile izenarekin.

Marijo Deogracias. Kazetaria. 2006tik dauka bere espazio propioa euskal blogosferan, Goienako komunitateko *Desplazatua*²¹ blogean. Twitterren ere @desplazatua izenarekin aurkituko duzu.

Maite Goñi. Irakaslea. Irakaskuntzan eta hizkuntzen hezkuntzan IKTak txertatzen dabil. Asmo horrekin hainbat webgunetan idazten du, tartean, *Euskaljakintza*²² blogean. Twitterren: @euskaljakintza

Mikel Irizar. *Ogibidez bankari, ofizioz mahastizain, afizioz komunikatzaile* idazten du bere buruaz *Piperrautsa*²³ blogeko aurkezpenean. 2005etik idazten du Goienako blog komunitatean aurkitzen den blog horretan. Twitterren @mikelirizartopa da.

Gorka Julio. Informatikaria. Sarean, proiektuak eta komunitateak eraiki ditu. *Teketen*²⁴ blogean idazten du web garapenez, sare sozialez, mugikortasunaz, e-irakaskuntzaz... Era berean, @teketen izenarekin ezagutzen da Twitterren eta sarean.

¹⁹ Faroa: "<http://blogak.goiena.eus/faroa/>"

²⁰ Boligorrria: <http://www.argia.eus/blogak/boligrafo-gorria/>

²¹ Marijo Deogracias: <http://blogak.goiena.eus/marijo/>

²² Euskaljakintza: <http://www.euskaljakintza.com/>

²³ Piperrautsa: <http://blogak.goiena.eus/piperrautsa>

²⁴ Teketen: <http://teketen.com/>

Txerra Rodriguez. Hizkuntza soziologia du ogibide eta baita hizpide *Garagoikoa*²⁵ blogean. 2006an egin zuen aurkezpena eta ehunka sarrera idatzi ditu ordutik. Twitterren ere @garagoikoa.

Bea Salaberri. Euskara irakaslea. *Han eta hemen*²⁶ blogean idazten du, euskara, irakaskuntza, didaktika, prestakuntza, sarea, kolaborazioa, parte-hartzea... izaten dira askotan erabiltzen dituen gaiak. 2010ean idatzi zuen blog horretan bere lehenengo sarrera. Twitterren ere badabil @beatxo erabiltzaile izenarekin.

Jabi Zabala. Kazetaria. Berea da euskarazko lehen blog pertsonala: *Sarean*²⁷. 2003ko otsailekoa du data hango lehenengo post-ak. Komunikazio profesionala. Twitterren ere, @sarean.

3.3.2 Bideotik kanpo egindako elkarrizketak

Horrez gain, elkartearen sustatzailea den Luistxo Fernandez elkarrizketatu dugu Eibar.org-en tripak ezagutzeko. Elkartearen historia, funtzionamendua, posta-zerrenda edota blog komunitatea izan genituen hizpide 30 galderak osatutako gidoitik abiatutako solasaldian. Eibar.org-en iragana, oraina eta gero gogoan.

Luistxo Fernandez. Eibar.org-en sortzaileetako bat, bere ekimenez sortu zen, esaterako, *Eibartarrak* posta-zerrenda. *CodeSyntax*²⁸ enpresaren sustatzaile eta bertako langile da, *Sustatu-n*²⁹ ere esku hartzen du eta baita *Azpitituluak.com*³⁰ proiektuan. Eibar.org-en

²⁵ Garagoikoa: <http://blogak.com/garagoikoa>

²⁶ Han eta hemen: <http://hanetahemen.blogspot.com.es/>

²⁷ Sarean: <http://www.sarean.com/>

²⁸ CodeSyntax: <http://www.codesyntax.com/eu>

²⁹ Sustatu: <http://sustatu.eus/>

³⁰ Azpigituluak: <http://azpigituluak.com/>

*Ingelesen hilerria*³¹ blogaren jabe da. Blog berak ingelerazko eta gaztelerazko bertsioa ere baditu: *The English Cemetery*³² eta *El cementerio de los ingleses*³³. @luistxo Twitterren.

Elkarrizketa guztiak erdi-egituratuak izan dira; hau da, landu nahi ziren gaiekin oinarrizko galdera multzoa prestatu genuen gidoia bideratzeko, baina galderen idazketa zehatza eta ordena ez zegoen aurrez finkatua. Bitarteko hau, datuak biltzeko beste teknika batzuen osagarri gisa erabili dugu, batik bat, beste modu batera sakondu ezin genituen gaiak lantzeko eta ideietan, iritzietan, jarreretan, asmoetan... arakatzeko.

³¹ Ingelesen hilerria: <http://eibar.org/blogak/luistxo>

³² The English Cemetery: <http://eibar.org/blogak/luistxo/en>

³³ El cementerio de los ingleses: <http://azpitoluak.com/es>

4. Kapituluua: Emaitzak eta analisia

Teknika kuantitatibo eta kualitatiboen bitartez bildutako datuak aurkeztuko dira kapitulu honetan. Horretarako, informazioa, Eibar.org-ek dauzkan komunikazio tresnen arabera banatu da: zerrendarekin hasi, blog komunitatearekin jarraitu eta elkarteari buruzko ohar batzuek eginez amaituko dugu atala.

4,1 Posta zerrenda

Elkarrizketa bilatzen duen hizlaria da zerrendakidea. Jakinguran, solasaldi interesgarriak topatu nahi dituen erabiltzailea. Zerrendaren biztanle bakoitzak du mundua ulertzeko eta ikusteko modu propioa eta horrek egiten du erakargarri, zentzu zabalenean hartuta, ideien hartu-emanen plaza digitala denez honakoa.

Jarduna hasi zutenetik gutxik pentsatuko zuten honaino iritsiko zenik lan honen ikerketa objektua. Dela bere egituragatik, dela landutako gaiengatik, eta batez ere, bertan eraikitako harremanengatik tresna preziatua da harpidedunen artean. Ikus dezagun, bada, zeintzuk diren bere ezaugarriak. Jarraian, posta zerrendari dagozkion ezaugarri garrantzitsuenak ikerketa galderekin uztartu, eta lortutako emaitza esanguratsuenak plazaratuko ditugu.

4.1.1 Lehen ikerketa-galderari dagozkion emaitzak

IG1. Ze ezaugarri ditu zerrendaren komunikazio prozesuak?

Komunikazio prozesuaz hitz egitean Eibartarrak posta-zerrendaren sarbidea, egitura, arauak eta tamaina aztertuko ditugu.

- Sarbidea

Parte-hartzea ez dago alor zehatz bati lotua, hartu-eman generalekua baita elkarrizketa (Fernandez, 2014). Edonork eman dezake izena, bere burua aurkezten bada eta euskaraz aritzen bada. Batzuek zerrendatik blogera eta elkartera egiten dute salto, beste batzuek zerrendaren jardunarekin aski dute. Egia da, ibilbideari ekin ziotenean ia guztiak eibartarrak zirela, baina herritik kanpoko jendea ere harpidetuz joan zen heinean, eibarnautenkomunitatea hedatzen joan da. Horiek horrela, atarian agertzen diren helburu informalak, zerrendaren orokortasunaren erakusle dira; euskarazko jarduna, informazio trukea komunitatea hedatzen joan da. Horiek horrela, atarian agertzen diren helburu informalak, zerrendaren orokortasunaren erakusle dira; euskarazko jarduna, informazio trukea³⁴ ...

Bertan landu daitezkeen gaiak, beraz, orotarikoak dira. Hitz egiten duten harpidetuak, berriz, jakintza esparru eta jardun profesional askotatik eratorriak, pentsamendu zein ikuspuntu ezberdinen jabe. Zerrendakide batek **aniztasun** hori modu honetan adierazten du inkestan komunikazio bitartekoa deskribatzerakoan:

Oso anitza dela esango nuke; era guztietako gaiak eta erabiltzaileak batu direla. (Inkesta, III. eredua)

- Egitura edo antolamendua

Teknologia berriek aukera ugari eskaintzen dituzte, norabide bakarreko eta goitik beherako komunikazioaz harago joateko. Posta-zerrendaz hitz egitean ere, ohikoa da horizontal hitza agertzea: *komunikazio, egitura, zerbitzu, eztabaida... horizontala* (Iturri ez zuzenen azterketa. Kiley, 1998). Ikerketa honetan azaldu den ezaugarria ere bada:

Dena posta-elektronikoz, parez-pare horrela funtzionatzen du, elkarrizketa benetan horizontal eta demokratikoa da (Elkarrizketa. Fernandez, 2014).

³⁴ Ikus posta zerrendaren helburuak guztiak marko teorikoan, 11. orrian.

Berdintasunean. Horretarako izen eta abizenekin funtzionatzen dugu eta gure artean dagoen harremana horizontala. Inor ez da besteak baino gehiago (Iturri ez zuzenen azterketa. Narbaiza, 2014).

- Arauak

Zerrenda ez da moderatua baina ezinbestean bete beharreko joko arauak ditu jokalaria guztientzat: batetik, jarduna euskaraz da eta bestetik, listan modu publikoan parte-hartzen da. Ikerketa honetarako egindako elkarrizketan, galdera zehatz hau izan dugu hizpide: *Zer dela eta arau hauek?* Eta horrela azaldu ditu arauok Luistxo Fernandezek:

Interneten euskaraz zebiltzan eibartarrak hasi ginen biltzen. Izan ere, baldintza bat jarri nuen: jarduna euskaraz izango zela. Orduan jada baneuzkan zantzu batzuk anonimotasuna ez zela komeni eta horregatik, arauak ziren norberaren izenarekin aurkeztu behar zela eta euskaraz izango zela. Garrantzitsua da, horrela ez duzu edozer gauza esaten. Alkatea ustel bat dela esaten baduzu, zure izen-abizenekin dago sinatuta eta hurrengo egunean egunkarian ikusten baduzu ezin zara kexatu, "hau nire lagun bati esan nion" adieraziz. Informazioarekin eta iritziarekin zuhur jokatzeko dugu eta horrek balio bat dauka. Hori guztia jendeak badaki. Arau horien gainean elkarrizketa bat zibilizatuagoa da (Elkarrizketa. Fernandez, 2014).

Galdetegian ere, partaideen kalitatearekin batera, zerrendakideen arteko errespetuzko harremana nabarmentzen du harpidetu batek:

Partaideen kalitate maila profesional eta intelektualak, batetik, eta zerrendakideen artean izaten den begirune-jarrera (Inkesta, III. eredu).

- Tamaina

Hizlari kopuruaren neurriari begira jarriz gero, **86 harpidetu** zituen zerrendak, ikerketa garaian sustatzaileei kopuruaz galdetu zitzaienean³⁵. Mezuen zenbatekoari dagokionez, ostera, irregularragoa da analisisa. Aldizka, etorria handia izaten da eta hitz jarioa azkarra; zenbaitetan, ordea, zerrendak denboran aurrera egiten du motel eta isilean. Behaketak iraun duen 4 hilabetetan jasotako datuen arabera, **ia hiru mezu trukatu dituzte egunero elkarren artean.**

4.1.2 Bigarren ikerketa-galderari dagozkion emaitzak

IG2. Zeintzuk dira harpidetuen erronka, oztopo eta motibazio nagusiak?

Zergatik erabiltzen dute? Zer uste dute zerrendaren bizitasunaz? Aktiboak al dira? Pasiboak? Zeintzuk dira harpidedun izateak ematen dizkien onurak? Nola baloratzen dute tresna? Puntu horiek hizpide jarraian, *Eibartarrak* posta-zerrendarekin erabiltzaileek duten esperientzia ezagutzeko.

- Zer nolako tresna nahi edo behar dute?


Aurreko atalean, behaketatik atera dugun harpidetuen kopuruaren eta mezuen zenbatekoaren inguruan galdetu dugu inkestan, harpidetuen pertzepzioa zein den jakiteko.

I. eta III. inkesta eredueta erantzunekin osatu dugu. Guztira, 21 lagunek erantzun dute. Lortutako datuek erakusten dutenez, galdetegia erantzun dute gehienek (% 71ak) zerrendan mezu gehiago elkartrukatzea nahiko luke.

³⁵ 2014ko irailaren 9an.

Orokorrean, zerrenda biziagoa izatea gustatuko al litzaizuke?

I. eta III. inkesta eredueta erantzunekin osatu dugu. Guztira, 21 lagunek erantzun dute.



5. Grafikoa: Zerrendaren bizitasunaren inguruan harpidetuen iritzia.

Iturria: Norberak egina.

Nolako izan da harpidedunen kopuruaren garapena?

Ez dago hazkunderik, eta bai gero eta jende gutxiago; kontuak iraungitu egiten dira edo jendea ezabatu egiten da. Gehikuntzarik, apenas. Inor ez da gehitzen (Komunikazio pertsonala. Fernandez, 2014).

Zerrendaren tamainaren inguruko puntu hau osatzeko, jarraian datorren galdetegiko erantzuna txertatzea garrantzitsua iruditu zaigu. Berak azaltzen baitu, urteen poderioz eta komunikatzeko beste tresna batzuen sorrera tarteko, zerrendan mezuetan gainbehera bat egotearen eta harpidedun berri gutxi erakartzearen arrazoietakoa bat izan daitekeena:

Aitzindari izan zen eta hamasei urte pasa ondoren bizirik dago. Sare sozialek min egin diote (bizitasun gutxiago dauka). Uste dut eibartarrok (eta zerrendakideok) harrotasunez hitz egin dezakegula posta-zerrendaz eta egindako ibilbideaz (Inkesta, I. eredu).

Dokumentazio lanetan ari ginela ere atera da gai hau:

Zerrenda honi esker sare sozialen esperientzia duela 15 urte daukagu batzuek, ez atzo bezperatik (Iturri ez zuzenen azterketa. Fernandez, 2013).

Hortaz, elkarrizketan ere galdetu genion gaiaz Fernandezi eta honek enpresa handien aurrean eibartarrek egindako tresna bat izatea nabarmendu zuen:

Baina horiek ez dira Eibartarrak sortuak. Beno ez eibartarrek, ez asteasuarrek... Nik uste dut interneten garrantzitsua dela espazio propioa norberak kudeatzea. Eibar.org gurea da, gure jabetzakoa da eta ez zait ondo iruditzen elkarrizketak edo jardun soziala uztea atzerriko zerbitzu batzuei... Erabili daitezke baina nik uste dut burujabe izatea ere garrantzitsua dela (Elkarrizketa. Fernandez, 2014).


- Erabilera

Erabileraz galdetuta, inkestan zehaztutako zergatietan ez da nagusitzen bat nabarmentzeko moduan. Horregatik, interesgarria izan daiteke galdera honetan ateratako erantzun libreetan arreta jartzea. Erantzun horien arabera, zerrenda ez da informazioa eman edo jasotzeko topaleku hutsa, zerrendakideen artean elkar eragitea da helburua, hartu eta ematea:

Zertarako erabiltzen duzu?

I. eta III. inkesta ereduetao erantzunekin osatu dugu. Guztira, 21 lagunek erantzun dute.

- Eguneroko kontuak komentatzeko (Inkesta, III. eredu).
- Informatuta egoteko (Inkesta, III. eredu).
- Komentatzeko eta iritzi trukaketa izateko (Inkesta, I. eredu).
- Batez ere berriak, ekitaldiak eta abarra komentatzeko. Iritziak eman eta jasotzeko (Inkesta, I. eredu).



6. Grafikoa: Zerrenda erabiltzeko arrazoiak.


Iturria: Norberak egina.

- Parte-hartzea

Azter dezagun segidan, elkartruke horretan nolakoa den harpidedunen parte-hartzea. Horretarako, euren burua ohikoan aktiboa, noizbehinka aktiboa edo pasiboa dela usten duten aukeratzeko eskatu diegu. Horiek lortutako erantzunak:

Zerrendari egindako ekarpenari begira, nola deskribatuko zenuke zeure burua?

I. eta III. inkesta ereduetao erantzunekin osatu dugu. Guztira, 21 lagunek erantzun dute.



7. Grafikoa: Harpidetuen parte-hartzea (Inkesta).

Iturria: Norberak egina.

Sarbidez hitz egin dugun atalean komentatu dugunez³⁶, zerrendakideen artean badira Eibar.org blog komunitateko blogari direnak eta elkartearen parte. Beste batzuen presentzia, aldiz, zerrendara mugatzen da. Bakoitzari inkesta eredu ezberdina banatu zaio eta horregatik grafikoan bereizita daude batzuen eta besteen artean lortutako emaitzak.

Goiko grafikoan bistan geratzen denez, aski ezberdinak dira erantzunak zerrendakide soilik direnen eta zerrendakide izateaz aparte, elkarteko kide ere badiren horien artean. Hala, elkarteko kide ez baina zerrendakide direnen artean % 58k ohikoan pasiboa dela adierazi du (% 11 soilik elkarteko kide ere badirenen kasuan). Euren buruan ohikoak aktibotzat dutenak, berriz, alderantziz: elkarteko kide eta zerrendakide biak direnak % 44ak ohikoan aktiboak dela diote (% 17 elkarteko kide ez diren zerrendakideen artean).

Jarrai dezagun orain, behaketak iraun duen lau hilabete hauetan harpidedunen portaera zein izan den agertzen:

Zenbat zerrendakidek hartu dute parte elkarrizketan?

Hilabetea	Hizlari kopurua	Hizlariak ehunekotan
Abendua	17	% 20
Urtarrila	27	% 31
Otsaila	18	% 21
Martxoa	16	% 19

7. Taula: Esku hartu duten harpidetuen zenbatekoa.

Iturria: Norberak egina.

Hizlari ezberdinak, orotara, 33 izan dira. Harpidetu kopuru osoa kontuan hartuta, beraz, behaketak iraun duen bitartean zerrendaren % 38 izan da parte hartu duena (2013ko abendutik 2014ko urtarrilera).

³⁶ Ikus 35.orrian Sarbidea atala.

Hitz egiten duten 33 zerrendakide horien parte-hartzea nolako izan den azaltzeko da ondorengo taula:


Hilabeteak	Hizlariak guztira	Mezu bat	2-9 mezu	10 mezu +
Abendua	18	% 39	% 61	0
Urtarrila	27	% 18	% 56	% 26
Otsaila	18	% 27	% 67	% 6
Martxoa	16	% 44	% 56	0

8. Taula: Esku hartu duten harpidetuen jokabidea.

Iturria: Norberak egina.

Lau hilabete hauek laburbilduz:

- Zerrendaren % 38k hartu du parte elkarrizketan
- Mezuak bidali dituzten harpidedunen artean gehienak 2 eta 9 mezu artean idatzi dituzte (% 76,22)
- Mezuak bidali dituzten harpidedunen artean badira hamar mezu baino gehiago idatzi dituztenak ere (% 7,86)

Mezuek izandako elkarreragina

8. Grafikoa: Mezuek izandako elkarreragina.

Iturriak: Norberak egina.

Proposatutako gaietako gehienek izan dute erantzunen bat gutxienez, behaketak iraun dituen lau hilabetetan. **Guztira, 82 elkarrizketa hasi dituzte harpidedunek denbora tarte horretan.** 82 elkarrizketa horietatik, 60ek izan dute iruzkin bat edo gehiago edo beste modu batera esanda, proposatutako gaietatik % 73k izan du erantzunen bat. Erantzundako horiek, gainera, guztira 275 iruzkin izan dituzte.


- Zerrendarekide izatearen onurak

Egunerokoan ematen diren mezuen joan-etorriarekin sortutako elkarbizitza da eibarnautena, tarteka, umorea erabiliz, askotan jakin-minak aginduta eta beti ekarpenak egiteko gogoz. Hartu-eman horiekin indibiduotik kolektibora jauzi egin eta talde izaera eraiki dute. **Bera da muina; inkesta bete duten harpidedunen artean %90,47 ados edo guztiz ados dago “zerrenda komunitate birtualarentzat kohesio tresna da” esaldiaekin.**

Horiek horrela, topaketarako duen balioaren inguruan galdetu diegu zerrendakideei, bertan sortutako harreman pertsonal eta profesionalei helduta:

Zerrendak beste kideren batekin laguntasun harremana garatzeko bide eman al dizu?

I. eta III. inkesta ereductako erantzunekin osatu dugu. Guztira, 21 lagunek erantzun dute.



9. Grafikoa: Harpidetuen laguntasun harremanak.

Iturriak: Norberak egina.

Inkesta eredu ezberdinetatik ateratako emaitzaren batez-bestekoa da aurrekoa. % 71k dio beste kideren batekin laguntasun harremana garatzeko bide eman diola. Dena den, eredu batetik bestera, asko aldatu dira emaitzak. Horiek horrela, Eibar.org elkarteko kide direnen artean laguntasun harremana garatzeko bide eman dienak gehiago dira, % 89, hain zuzen ere.

Leire Narbaiza harpidedunak, horrelaxe deskribatu zuen EraldaLab jardunaldietan zerrendako kideen arteko gertutasun hori (2012):


Jende interesgarria ezagutzeko aukera. Lehen ezagutzen ez nituen hainbat lagun interesgarri eta hainbat modutakoak aurkitu ditut (...) Harreman soziala ere bada, lagunartea (Iturri ez zuzenen azterketa. Narbaiza, 2012).

Erabiltzaileen arteko gertutasunaz ere galdegin dugu inkestan; izan ere, zerrenda deskribatzeko *Hurkotasuna lehen mailako balorea da* esaldiarekin zenbateraino zeuden ados zehazteko eskatu genien harpidedunei. Inkesta erantzun zutenen erdiak baino zertxobait gehiagok (% 52,37) esaldiarekin *ados* edo *guztiz ados* zeudela aitortu zuten. Nahiz eta, kasu honetan ezin den gutxietsi puntu horrekin *ez ados eta ez aurka* agertu den % 33.

Alde agertu direnen artetik, garrantzitsua da konplizitate pertsonala ere badagoela agertzea, bizitzaren egunerokoaren kontaketa egiteko; heriotza eta jaiotzen berri emateko, esaterako.

Zerrendak beste kideren batekin harreman profesionala garatzeko bide eman al dizu?

I. eta III. inkesta ereductako erantzunekin osatu dugu. Guztira, 21 lagunek erantzun dute.



10. Grafikoa: Harpidetuen harreman profesionalak. Iturriak: Norberak egina.

Honakoa, beste askorekin askorekin alderatuta, ez da zerrenda profesionala baina horretarako bide ere ematen du. Goiko grafikoan bi ereduaren arteko batuketara daukagu. Zerrendak beste harpidetu batekin **harreman profesionalak** garatzeko bide eman ote dien galdetuta, % **43k baietz esan du**. Dena den, elkarteko kide direnen artean harreman profesionala garatu duten pertsonen ehunekoa altuagoa da, haien artean % 56 izanik. Enpresa bat ere sortu dute zerrendan ezagutu ziren hainbatek:

Hemen alkar ezagutu dogun batzuk be, Code & Syntax enpresia be sortu dogu. (Iturri ez zuzenen azterketa. Fernandez, 2003)

- Balorazioa

Eibartarrak posta-zerrendaren ebaluazioa egiteko aldagai ezberdinak baloratzeko eskatu diegu harpidetuei. Horretarako, posta-zerrenda batean adierazgarriak izan daitezkeen elementu batzuk identifikatu ditugu, hala nola, funtzionamendua, erabilgarritasuna, balioa

eta mezuen kalitatea. 5eko gehienezko puntuazioa onartzen zuen eskala batean honakoak izan dira esparru ezberdinetan komunikazio bitarteko honek lortutako batz-besteak:

Esparruak	Puntuazioa
Funtzionamendua	4,3
Erabilgarritasuna	4,35
Baliogarritasuna	4,3
Mezuen kalitatea	4,2

9. Taula: Zerrendaz harpidetuek egiten duten balorazioa

Iturria: Norberak egina.

4.1.3 Hirugarren ikerketa-galderari dagozkion emaitzak

IG3. Nola uztartzen dira komunitatearen bereizgarriak zerrendan?

Elkartearen helburuak aintzat hartuta, lantzen dituen eremu gisa identifikatu ditugu Eibar, teknologia berriak eta euskara. Horiek horrela hiru dimentsio horiek zerrendan nolako eragin duten aztertuko dugu segidan.

- Zerrenda eta herria: Eibartarrak?

Hasteko, eibartar baten ekimenez eman zituen zerrendak lehen urratsak, eta beste eibartar esploratzaile batzuk izan zituen (gehiengo batean) bidelagun bere hastapenetan. Bere herriko jendearekin bat egiteko hautua hartu eta 15 urte igaro zirenean, *azierto* handi gisa deskribatu zuen Fernandezek erabakia (Iturri ez zuzenen behaketa. Fernandez, 2008).

Ez da soilik Eibarko gertaerei buruz aritzeko tresna, beste lekuetatik izena ematen joan den *eibarnauta* mordoa dagoenez. Ez dauka izaera baztertzaila, hortaz, informazioa ez delako Eibarrera mugatzen, eta beste herritako jendeak ere gozatzen duelako elkarrizketaz.


Ikerketaren atal honetan baina, zerrendak Eibarrekin duen lotura zehazten saiatuko gara eta horretarako herriko komunikabide gisa bere funtzioa aztertuko dugu.

Herri informazioaren esparruan *glokalizazioa*-z mintzo da “Euskarazko komunikabide lokalak Euskal Herrian” tesian Asier Aranguren (2000):


Mende honen amaieran bi norabide kontrako baina aldi berean osagarri hartu ditu, komunikazioak. Alde batetik, McLuhan-en etxalde globala geroz eta errealagoa da gure bizimoduan (gertatzearekin bat zuzenean ikusten ditugu Munduko Futbol Txapelketako finala edo Balkanetako Gerrako erasoak); baina, bestetik, berta-bertako berrien beharra du herritarrak (jaio, ezkondu eta hil direnen zerrenda edo zaborra ateratzeko egunen aldaketa) (Iturri ez zuzenen azterketa. Aranguren, 2000)

Arangurenen hitzak ekarri ditugu hona, izan ere, lurralde birtualen aroan, Eibarko bizitzaren isla ere bada zerrenda, mezuen joan-etorrian. Gure ikerketan jaso ditugun mezuek erakusten dute bertako ekimen kulturek, herriko kontuek edota ospakizunek interesa sortzen dutela zerrendako harpidedun batzuegan behintzat.

Hala, inkesta bete duten harpidedunen artean % 71,74 ados edo guztiz ados dago *herriko gertaeren berri izateko balio du* esaldiarekin. Are adostasun handiagoa lortu du *herriko gertaerak komentatzeko balio du* lerroburuak % 80,98 guztiz ados edo ados agertu delarik.



11. Grafikoa: Herriko gertaeren berri izateko. Iturria: Norberak egina.



12. Grafikoa: Herriko gertaerak komentatzeko. Iturria: Norberak egina.

Dena den, herriko informazioaren presentzia areagotzeko Fernandezek are balio handiago izango lukeela uste du, bertako komunikabide zein bestelako eragileek gehiago parte-hartuko balute. Udaleko langileek edo bertako komunikabideak aipatzen ditu, azken hauek euren jardunean jasotzen dutenaren berri eman zezaketela dio:

Egia esan, Eibarko gauza batzuk komentatzen dira eta beste batzuk ez. Nik hor hutsune handi bat ikusten dut "Eta kitto" elkarteak ez duela sekula parte-hartu. Ez dute parte-hartu, adibidez, esanez, "Eta kitto"-n hau eta hau dator aste honetako zenbakian... Udaletxeko zinegotzi eta langileek ere ez dute asko erabiltzen, erabiltzaile nahiko pasiboak dira (Elkarrizketa. Fernandez, 2014).

- Zerrenda eta hizkuntza: Euskararen garrantzia eta bertako euskalkiaren pisua

Bel Mallen ikertzaileak komunikatzeko bitarteko honen garrantzia aipatzen du tokian tokiko hizkuntzen erabileran. Serafin Basauri zerrondakideak *Eibarko Euskara. Gure hizkuntzaren doinu eta berbak* liburuaren aurkezpenean esandakoek *Eibartarrak*-en kasuan ere horrela dela erakusten dute. Andu Lertxundiren gogoeta baten harira datoz hitzak; euskarak zortzigarren lurraldea -teknologia berria eta internetena- konkistatu behar duela dio. Basauriren hausnarketa bide horretatik doa:

Ba honen harira esan gura neuke, badaguala eibaespazioan Eibartarrak posta-zerrenda deritxon posta elektronikoz funtzionatzen daben lekua, euskeraz edozeren gaiñian jardun zeinkiana, jentian arteko informaziñua trukatzeko, eta abar. Eibarko euskaraz idazteko aukera politta da, euskeria erabiliz eta idatziz ikasteko. Aukera bat da. Zerrendia bizi bizixa da eta asko ikasten da, euskerian gaiñian zein bestelakuen gaiñian (Iturri ez zuzenen behaketa. Basauri, 2005)

Hiru arrazoi nabarmendu dira Eibarko euskararen erabilerarekin lotuta:

- a) Zerrendako elkarrizketak testu idatziak badira ere, ahozko solasaldi baten antza handiagoa dute

Elkarrizketa teknologikoa: Aurrera egin ahala planifikatzen den elkarrizketa da, idatzia baino ahozkoa, tonu informala eta zehaztu gabeko hizlarien txandatzea medio. (Sanmartín, 2007)

Ahoz idatzi, eskuz hitz dio Joxerra Garziak eta hitz horiek geure egingo ditugu jarraian datorrena azaltzeko. Sareko elkarrizketetan, berehalakotasuna eta bat-bateko jarduna tarteko, eredu formaletan baino libreagoak dira idatzizko testuak: esaldi motzak erabiltzen dira, laburdurak... Hitz egiten dugun moduan idazteko ohitura ei dugu.

Fonetismoan jarri dugu puntu honetan arreta baina ezin da albo batera utzi Eibarko euskararen kasuan tradizio idatzi luzea ere badagoela.

- b) Eibartarrak euren euskara erabili dezakete “alfabetatuta” daudelako

Asier Sarasua elkarteko kideak Eibarko hizkera jasotzeko hainbat lan egin ditu eta honela azaldu digu Eibarko euskararen tradizio idatzia:

Juan Antonio Morgel eibartarrak bere liburu gehienak markinarrez idatzi zituen, Eibarko gaur egungo euskaratik ere nahiko gertu zegoen ereduan. Toribio Etxeberriak (Eibar, 1887 – Caracas, 1968) eman zion segida eta Etxeberriaren itzalera sortu zen hurrengo belaunaldia: Juan San Martin guztien buru, eta berekin batera beste 2 pieza klabe, Serafin Basauri eta Imanol Laspiur. Hiru horiek hartu zuten lekukoa 1950-1960 hamarkadetan (baita horrengeotan ere). Eibarko euskararen ezaugarriak jaso, liburuak idatzi eibartarrez, euskara-eskolak eman...

Azken 25-30 urteotan ere Eibarko euskara sakon aztertu da, eta erabilera publikoa ere eman zaio. Udalak berak ere zeresan handia izan du (Fernando Muniozguren ezin aipatu gabe utzi). Eibarko euskararen inguruko azterketak bultzatu ditu, leku publikoa eman zaio, eta Eibarko euskara aztertu eta hedatzeko udal mintegia eratu zen, erabilitako idaztarauetara nolabaiteko “berme ofiziala” emanaz. Horrekin batera, “...eta kitto!” aldizkarian ere erabili egiten da. Lehengo aleetatik hasita, zati bat eibartarrez idatzita dago.

Hortaz, herriko euskaraz irakurri eta idaztea arrunta da Eibarren, bai gutxienez azken 100 urteotan, eta bereziki azken bizpahiru hamarkadetan. Eibartarrez idazten “alfabetatuta” gaudela esango nuke. (Komunikazioa pertsonala. Sarasua, 2014)

c) Eibarko euskara aztertzen lan egin duten zerrendakideen eragina


Eibarko euskara aztertzen lan egin dute hainbat zerrendakidek, eta horiek ere zerikusia izan dezaketela nabarmentzen du Sarasuak:

Posta-zerrendari dagokionez, gainera, Eibarko euskara aztertzen, batzen eta hedatzen ibili garen gehienok zerrendakide gara (Serafin Basauri, Aintzane Agirrebeña, Leire Narbaiza, Juana Argoitia, ni neu...) eta horrek bultzada emango zion, ziurrenik, erabilerari (Komunikazio pertsonala. Sarasua, 2014).

Inkestetako datuek ere euskalkiaren aldeko jarrera erakusten dute. Euskara batua eta euskalkia zenbat erabiltzen duten galdetuta, honakoa erantzun dute zerrendan harpidetuek:

Euskara eta euskara batua: Zein erabiltzen duzu ZERRENDAN idazterakoan?

I. eta III. inkesta eredueta erantzunekin osatu dugu. Guztira, 21 lagunek erantzun dute.




13. Grafikoa: Euskararen eta euskalkiaren erabilera zerrendan.

Iturria: Norberak egina

Zerrenda euskalduna denez eta bere helburuetako bat *jardun eta jardun euskaraz, edozerren gainean* (Iturri ez zuzenen behaketa, Eibar.org), euskaraz aritzeari zer nolako inportantzia ematen dieten ere galdetu dugu inkestan.

*Zeure buruan pentsatuz, zenbateko garrantzi ematen diozu sarean euskaraz aritzeari?
I. eta III. inkesta ereduetao erantzunekin osatu dugu. Guztira, 21 lagunek erantzun dute.*



14. Grafikoa: Euskararen garrantzia sarean.
Iturria: Norberak egina.

Goiko grafikoan ikus daitekeenez berebiziko garrantzia ematen diete inkesta erantzun duten horiek sarean euskaraz jarduteari: % 95k garrantzia handia ematen dio eta gainerako % 5k nahikoa garrantzi.

- Zerrenda eta teknologia berriak: Alfabetizazioa eta burujabetza

Bi esparru ezberdinetan jarriko dugu arreta teknologia berriei dagokionean. Batetik, komunikazio bitarteko honek harpidetuen alfabetizazio digitalean izan duen eraginean, eta bestetik, teknologia berrien autogestioan.

Informazioaren edota ezagutzaren gizartean bizi garela entzuten dugu sarri han eta hemen. Sareen gizarteaz mintzo da Manuel Castells teorilaria. Kultura digitalak beharrezkoak dituen gaitasunetan trebatzea, hortaz, nahitaezkoa da. Hainbat adituren ustez, erronka, hain zuzen ere, 2.0 filosofiak maila teknologikotik harago aurrera egitea da. Eibar.org elkartearen helburuetako batek balio horiek hartzen ditu hizpide:

Guretzat, Internet eta teknologia berriak ez dira merkatu bat edo negozio aukera bat. Herritarrek erabil dezaketen eta erabili behar duten tresna da,

esate baterako balio hauek indartzeko: elkarlana eta elkartasuna, komunikazio irekia, informazioaren jario librea, kultura eta jakintzaren dibulgazioa... (Iturri ez zuzenen behaketa, Eibar.org)

Lanabesek komunikazioa sarbidea ahalbidetzen digute, eta mezuak sortzeko gaitasuna. Baina alfabetizazioa ez da hor amaitzen. Hasi besterik ez da egiten. Posta-zerrendak lagundu dezake, trebakuntza horretan. Zein da, beraz, “herritar digital” bihurtzeko orduan egiten duen ekarpena? Hona hemen, labur azalduta, Gros eta Contreras autoreen arabera tresna honekin garatu daitezkeen hainbat gaitasun (2006):

- Informazioa eta ideiak azaltzeko balio du; hortaz, argumentu sendo eta konplexuak eraikitzen trebatzen lagundu eta audientziara heltzeko komunikazio estrategia egokiak aukeratzeko tresna aproposa da.
- Eztabaida demokratikoan arauak jarraitzen eta zirkulu itxi zein zabalago batekin eztabaidatzen jardutea ahalbidetzen du.

Alfabetizazioaren ezaugarri “teorikoak” izan ditugu hizpide goian baina alderdi teknikoari dagokionez laguntza “praktikoa” ere elkartrukatzen da zerrendan, harpidetuen artean. Zerrendaren bitartez lortutako laguntza teknikoa eta emandako alfabetizazioa, inkestako erantzunen artean sarri atera den gaia da:

Alfabetizazio digitala lortzeko tresna garrantzitsua nire kasuan (Inkesta, I. eredua).

Posta-zerrenda, gainera, zalantza teknikoak plazaratzeko lekua da. Horiek horrela, asko dira Eibartarrak zerrendaren bitartez planteatzen diren arazo eta zalantza konkretuak. Gaia gehien menperatzen dutenek elkarri laguntzen diote.

Beste hanka, teknologien gaineko burujabetza da. Zerbitzu ona eskaintzeko eta erabilitako teknologien inguruan ahalik eta kontrol handiena izateko, hainbat aldaketa izan ditu bere hastapenetatik. Hona hemen, Eibar.org-en ibilbide tekniko historikoa:

Teknikoki, Findmail eta Makelist haiek laster eGroups bihurtu ziren. eGroups horrek bat egin zuen OneList izeneko beste zerbitzu batekin (han zegoen orduetik ere martxa bizian dabilen beste zerrenda bat, ItzuL, asmo profesionalekoa). Yahoook erosi zuen konpainia gero eta Yahoo Groups izendatu ondoren, nahiko tratu eskasa eman zioten zerrenda-kudeaketari, apenas berrikuntzarik edo hobekuntzarik ezarriz. Halako batean, artxibo mamitsu batzuk Yahooren eskuetan betiko geratu baino lehen, atera genuen gure artxibo osoa Yahooren tripetatik, Postariaren zerbitzua hartu genuen Mailman sistema euskaratua erabiliz, eta artxiboak Gmane leku ireki eta praktikoan ezarri genituen. (Iturri ez zuzenen azterketa, Fernandez)

Ikerketa honetarako egindako elkarrizketan aldaketa horietaz, eta egungo ereduaz galdetu genion Fernandezi. Behekoa da bere erantzuna:

CodeSyntaxeko Eibartarrak zerrendakoak arduratzen gara bertako kontu teknikoez. Orduan posta-zerrenda gure zerbitzu baten oinarrian dago. Lehen sareko doako zerbitzu bat erabiltzen genuen, gero migratu egin genuen eta gure kontrolpean dagoen gauza bat da (Fernandez, 2014).

4.2 Blog komunitatea

Blogaria, parean tokatzen zaiona begiratu, ezagutu, bereganatu eta kontatzeko grina duena. *Bloga*, haren neurrira egindako tartea. *Hartzailea*, pertsona interesatua, blogariak eskaintzen diona gustatzen zaion hori. Euskal blogosferan aitzindari izan zen komunitate honek, hamar urte bete ditu narrazioak sareratzen. Azter dezagun, orain, nolakoak diren medio parte-hartzaile honen ezaugarriak eta zeintzuk diren blogarien mundua mugiarazten duten arrazoiak: zergati pertsonal edo profesionalak, idaztearen plazera... Atal honetan azaleratzen saiatuko gara guztiak.

Segidan, hortaz, blog komunitateari dagozkion bereizgarri esanguratsuenak ikerketa galderekin lotu eta lortutako emaitza garrantzitsuenak mahai gaineratuko ditugu.

4.2.1 Lehen ikerketa-galderari dagozkion emaitzak

IG1. Ze ezaugarri ditu blogaren komunikazio prozesuak?

Atal honetan, orokorrean, blogintzaren joerak eta fenomenoaren eragina aztertuko dugu; zehaztasunetan sartuta, kazetaritza eta blogintzaren arteko harremanak, blogarien sinesgarritasuna, lantzen dituzten gaiak... izango ditugu hizpide.

- Komunikazioaren esparruan euren eragina


Eibar.org-eko blogariei egin diegun inkestaren baitan atal bat, komunikazioaren munduan blogintzaren jarduerak duen lekua eta funtzioa arakatzeko asmoarekin diseinaturiko iritzia-zterketa izan da. Horiek horrela, puntu ezberdinekiko euren adostasun maila zehazteko eskatu diegu Eibar.org komunitateko blogariei. Inkestako emaitzak, elkarrizketetako erantzunekin osatuko ditugu beharrezkoa izan den kasuetan.

Komunikazioaren munduko hainbat iritzi jarraian, agertu zeure iritzia.

I. eta III. inkesta eredueta erantzunekin osatu dugu. Guztira, 11 lagunek erantzun dute.

a) Iritzi-azterketa: Bloga nire hedabide pertsonala da

Inkesta erantzun dutenen artean % 70 ados edo erabat ados agertu da *Bloga nire hedabide pertsonala da* tesiarekin.



15. Grafikoa: Iritzi-azterketa (Blogak hedabide pertsonalak dira).

Iturria: Norberak eginda.

Eibar.org-eko blogariei zein komunitatearen parte ez diren euskal blogosferako blogariei egindako elkarrizketan hainbat modutan atera den gaia da honakoa. Soberanoa hitza erabiltzen du Mikel Iturria blogari *eibarnautak*:

*Norberaren espazio soberanoa direlako iruditzen zaizkit garrantzitsuak
blogak (Elkarrizketa. Iturria, 2014).*

Joxe Aranzabal irakasleak hedabideekin konparaketa egin, eta erredakzio guztia pertsona bakarrera mugatzen du blogen kasuan. Eduki sortzailearen askatasuna nabarmentzen du Marijo Deogracias kazetariak. Bi blogarien aipuak, hurrenez hurren:


*Nire blogean ni naiz idazle, zuzentzaile, zuzendari, editore eta banatzaile
(Elkarrizketa. Aranzabal, 2014).*

Libre antzean aritzeko aukera ematen dizu blogak, ez daukazu editorerik noiz argitaratu behar duzun esateko ezta zertaz idatzi behar duzun edo nola idatzi behar duzun esateko ere (Elkarrizketa. Deogracias, 2014).

Landu ahal diren gaien askatasunaz gain, Mikel Irizarrek blogeko sarreretan nahi den luzera erabiltzeko parada izatea eta osagarriekin hornitzeko aukera edukitzea nabarmentzen du. Horrez gain, bada, Irizarrek azpimarratzen duen beste ezaugarri esanguratsu bat: blogaria da argitaratzen duenaren arduradun nagusia.

Dudarik gabe inon libre bazara, blogean zara. Nahi duzun gaia joratu dezakezu, nahi duzun aldetik, nahi duzun luzeran eta nahi duzun osagarriekin eta argitaratzen duzu zure izenarekin eta zure erantzukizunpean (Elkarrizketa. Irizar, 2014).

b) Iritzi-azterketa: Blogetako sarrerak, iritzi-artikuluak dira



16. Grafikoa: Iritzi-azterketa (Blogak iritzi-artikuluak dira)

Iturria: Norberak egina.

Blogeko sarrerak iritzi-artikuluarekin lotzen badira (%64a ados agertu da), honatx, elkarrizketen eta dokumentazio lanen bidez blogari iritzi-emaileen inguruan lortu dugun informazioa. Blogariaren gaitzak direnak edo, hizpide izan dituzte tartean:

Batzuetan badirudi ez dagoela ongi ikusita gure iritzia ematea, beldurra ere ematen digu; zer pentsatuko ote dute besteek? [Bloga] Aske adierazteko espazio da. Geure espazioa da, inori kalterik egin gabe gure iritzia emateko balio diguna. Dena den, oraindik lantzeko daukagun zerbait da, batzuetan ez dagoelako bermatuta. Gertatu ohi da nahiz eta inor ez iraindu, zure iritzia ematen baduzu, irainak jasotzea bueltan. Ez gaude ohituta ideien elkartrukean jardutera (Elkarrizketa. Narbaiza, 2014).


Blogariek, horren aurrean arduratsu jokatzeko dutela nabarmentzen du jarraian datorren elkarrizketatuak, eta ahots publikoa erabiltzearen erantzukizuna oso barneratuta daukatela. Modu horretan, blogak eskola ere izan daitezke eztabaidatzen edota iritzia argumentatzen praktikatzeko:

Jendeak nahi duena esateko erabiltzen du baina beti errespetu batetik eta argumentuak erabiliz. Inoren kontra jo baino lehenengo argumentatu egiten da. Lan handia egiten dute blogariek beren iritzia plazaratzen edo gai bati buruz hitz egiteko orduan. Aldez aurretik, informazioa topatzen dute eta ez dute edozein modutan argitaratzen. Landutako post edo lanak izaten dira, eta alde horretatik bakoitza libre da nahi duena esateko, baina igarri egiten da ez dutela edozein modutan erabiltzen plaza publikoa (Elkarrizketa. Deogracias, 2014).

Izan ere, eragozpenak eragozpen, parte-hartzaileek azaleratu dutenez, norbere ideiak adierazteko gune gisa ikusten dituzte blogak. Ondo laburbiltzen du Fernandezek:

Interneteko promesa, hiritargo parte-hartzaileago batek bete behar du. Izen-deiturekin eta ahots pertsonalarekin, artaldearen bozak jarraitu barik, pentsamendu, informazio eta iritzi pertsonala emateko prest daudenak. Horiek dira blogistak, Interneteko herritarrak. (...) laster bihur zaitezketen blogista, laster herritar eta hiritar, kexatzeko eskubidearekin, ideiak emateko erantzukizunarekin. (Iturri ez zuzenen azterketa. Fernandez, 2014)

c) Iritzi-azterketa: Kazetaritza parte-hartzailearen baitan sartzen dira blogak



17. Grafikoa: Iritzi-azterketa (Blogak kazetaritza parte-hartzailearen baitan sartzen dira)

Iturria: Norberak egina.

Adostasun maila handia lortu du esaldi honek, hala, ia kasuen erdiak (% 46) ados dagoela adierazi du eta beste % 27 guztiz ados azaldu da. Esaldiarekin aurka dagoenik ez da agertu; gainontzeko % 18k ez ados eta ez aurka aukera hautatu baitu eta beste % 9k ez daki/ ez du erantzun. Inkesta bete dutenek, hortaz, herritarrek edukiak sortu eta komunikazio publikoan parte-hartzeko, blogen erabilgarritasuna edo funtzioa aitortzen dute.

Kazetaritza parte-hartzaileak, oro har, profesio horretako kide ez diren pertsonen informazioaren esparruan egiten dituzten ekarpenak hartzen ditu bere baitan, teknologia eta bitarteko berriak erabiliz. Informazio horiek guztiak ezin dira sartu, dena den, kazetaritzaren baitan. Marko teorikora Orihuelaren hitzak ekarri ditugu eta haren arabera, *Blogak ez dira kazetaritza blogak direlako (izatekotan beste ezaugarri batengatik dira)* (Iturri ez zuzenen azterketa, 2014).


Horren haritik, kazetari eta blogari jarduna bereizi eta banatzea hobe dela aipatu da elkarrizketetan:

Kazetaritza, ofizio bat da, blogek ez dute dirurik ematen eta ez da gauza profesional bat, hor, ezberdintasun handi bat (Elkarrizketa. Fernandez, 2014).

Hurrengo elkarrizketatuak azpimarratzen du blogek ekarpen interesgarriak egin ditzaketen arren, proiektu komunikatibo batek jarraikortasuna behar duela, eta horrek, profesionalak eskatzen dituela. Erredakzioak kazetariz husten ari diren honetan (Iturri ez zuzenen azterketa. Reuters Institutua) eta herritarrek ekoiztiko informazioak geroz eta eremu handiagoa hartzen ari diren garaiotan (Madariaga, 2006) kazetari profesionalak oinarri diren eredu baten alde egiten du:

Nik kazetaritzari dagokionean, kazetaritza profesionala defenditzen dut (Elkarrizketa. Bereziartua, 2014)

d) Iritzi-azterketa: Blogak hedabide tradizionalekin alderatuz, espazio alternatiboak dira



18. Grafikoa: Iritzi-azterketa (Blogak espazio alternatiboak dira).

Iturriak: Norberak egina

Grafiko honetako emaitzek erakusten dute inkesta erantzun dutenen artean adostasun nahikoa lortu duela esaldiak, guztiz ados eta ados, biak gehituz gero, % 64 hartzen baitu.

Batetik, **euren ekarpena gaitegiari begira egindakoa da**. Masa hedabideek, oro har, lantzen dituzten interes orokorreko gaien aurrean, plataforma egokiak izan daitezke gai espezializatuez hitz egiteko:

Blogek ematen dute askatasunez idazteko leku bat. Esango nuke territorio libre bat direla eta territorio horretan edozein modutan lantzen dituela jendeak gauzak: oso komunitarioak diren blogak daude, oso espezializatuak direnak, teknologian edo gantxilloan edo xakean...(Elkarrizketa. Arantzabal, 2014).

Bestetik, blogen ugaritzeak, komunikabideen eremuan **ahotsak anitzagoak izatea eragin du**, tartean, diskurtso ofizialen aurkakoak:

Garai batean informazio publikoa estatuaren esku zegoen bakarrik eta izan zitezkeen kritiko eta lagunartean aurre egin, baina horrek ez zuen indar handirik (Zapiain, 2014).

lido horretatik, blogek, adierazpen askatasunari bide ematen diotela azpimarratu da:

Bloga, nik uste dut adierazpen askatasuna bermatzeko tresna badela; bermatzeko, eta batez ere, adierazpen gaitasun hori zabaltzeko tresna bat. Zure etxean, tabernan edo kuadrillan egin ditzakezu adierazpen batzuk baina eragina multzo horretara mugatzen da. Ostera, hori plaza batean egiten baduzu, hau da, interneten blog batean egiten baduzu, hedapena askoz zabalagoa izan daiteke. Agian, zuk esaten duzu blogean eta inori ez zaio interesatzen, baina, beno zuk hustu duzu, zure adierazpen askatasun horri ekin diozu eta uste dut horretarako bidea errazten dutela blogek (Elkarrizketa. Laka, 2014).

Hala ere, blogak, eztabaida eta iritzi publikoa diren arren, euren boterea mugatua dela aipatu dute elkarrizketetan:

Eragin pixka bat badu, baina gutxi. Eztabaida publikoa beste parametro batzuetan erabakitzen da. Telebista edo egunkarientzat euskal blogosfera ez da existitzen, burutik pasatu ere ez zaie egiten hor zerbait interesgarria dagoenik. Gero aparte nik uste dut Euskal Herrian ez dagoela eztabaida irekietako gogorik. Egia da, Internet izan daitekeela parte-hartzerako tresna horizontal bat, kontua da, ea jendeari interesatzen zaion hori (Elkarrizketa. Fernandez, 2014).

- Gaitegia

Landutako istorioak, gaiak eta giza esperientziak askotarikoak dira blogarien eguneroko solasean eta ezinezkoa zaigu jorratzen dituzten gai guztiak zerrendatzea. Haatik, gure ustez ohikoenak diren arloak kategorietan banatu, eta horien artean zeintzuk erabiltzen dituzten aukeratzeko eskatu diegu inkestan parte hartu dutenei.

Emaitza esanguratsuenak laburbilduz:

- Arlo zehatz baten ingurukoak baino askotarikoak dira gaiei dagokienez Eibar.org-eko blogarien sarrerak.
- *Gai autobiografikoak* dira gehien erabiltzen dituztenak. Jarraian, *Teknologia, Medioak eta kazetaritza* edo *Bidaiak eta txangoak* aurki ditzakegu.
- *Fikzioa* erabiltzen dute gutxien.




21.Grafikoa: Blogarien gaiteria.
Iturria: Norberak egina.

Hartara, inkestako datuak lotuta, gai autobiografikoak dira garaile eta fikzioa galtzaile. Ikerketa askotan, blogen fenomenoaren irakurketa egiteko gakoetako bat, hain zuzen ere, bizitza pribatuaren eta diskurtso publikoaren arteko harremanak dira (Sampedro, 2000; Violi, 2008; Bauman, 1999). Espazio mediatikoan egondako aldaketek, igorle eta hartzailearen, urruti eta hurbilekoaren, pribatu eta publikoaren... arteko harremanak eraldatu dituzte. Ikus dezagun, bada, nola bizi duten gaia elkarrizketatuek:

Asko du exhibizionismotik blogak batzuetan (Inkestako erantzuna).

Azkenean zuk neurtzen duzu. Zuk erabakitzen duzu zein implikazio pertsonal daukaten publiko egiten dituzun kontuek. Egia da, blogek, eta, batez ere, sare sozialek arinkeriak tratatu dutela gai hau baina hor baremoa zuk jartzen duzu. Blog batean idatzi dezakezu maila pertsonalago batean artikulu arrunt batean egingo zenukeena baino, baina, azken batean, gradua hor zuk jartzen duzu (Elkarrizketa. Bereziartua, 2014).

Euren jardunean gaurkotasunarekin lotutako gaiak lantzen dituzten ere galdetu diegu. Inkesta erantzun duten erdiek gaurkotasuna aintzakotzat hartzen dutela adierazi dute. Grafikoari begira jarrita baina, ez dela ezinbesteko irizpide ikusten dugu:



20. Grafikoa: Blogetako sarreraren gaurkotasuna.
Iturria: Norberak egina.

- Blogarien sinesgarritasuna

Zeintzuk dira bloga baten sinesgarritasuna baldintzatzen duten arrazoiak? Nolako eragina dute elementu estetikoek, blogariarekin izandako denbora harremanak edota haren ideiak ezagutzeak ?

Sinesgarritasunarekin lotuta baloratu ondorengo elementuen garrantzia.

I. eta III. inkesta ereduetakoko erantzunekin osatu dugu. Guztira, 11 lagunek erantzun dute.

Blogarian izen ona	<ul style="list-style-type: none"> • %9 erabat ados dago • %63 ados dago • %27 ez dago ez ados eta ez aurka
Blogariaren eskarmentua	<ul style="list-style-type: none"> • %9 erabat ados dago • %82 ados dago • %9 aurka dago
Blogariarekin izandako esperientzia	<ul style="list-style-type: none"> • %82 ados dago • %18 ez dago ez ados eta ez aurka
Blogariaren iritziak ezagutzea	<ul style="list-style-type: none"> • %9 erabat ados dago • %55 ados dago • %36 ez dago ez ados eta ez aurka
Hiperlotura eta iturri primarioei lotura egitea	<ul style="list-style-type: none"> • %18 erabat ados dago • %18 ados dago • %46 ez dago ez ados eta ez aurka • %18 aurka dago
Itxurarekin lotutako elementuak	<ul style="list-style-type: none"> • %27 ados dago • %27 ez dago ez ados eta ez aurka • %46 aurka dago
Elementu multimedialak	<ul style="list-style-type: none"> • %27 ados dago • %18 ez dago ez ados eta ez aurka • %55 aurka dago

10.Taula: Blogaren sinesgarritasunarekin lotutako elementuak.

Iturria: Norberak egina.

Goiko taulari erreparatuz, inkesta erantzun dutenentzat blogariari lotutako ezaugarriak dira garrantzitsuenak sinesgarritasunari dagokionez (blogariaren izen ona edota blogariarekin izandako denborazko harremana) eta ez hainbeste diskurtsoaren formatuari edo aurkezteko moduari erlazionatuak (itxurarekin lotutako elementuak edo elementu multimediak).

4.2.2 Bigarren ikerketa-galderari dagozkion emaitzak


IG2. Zeintzuk dira blogarien oztopo, erronka eta motibazio nagusiak?

- Blogariaren arrazoiak

Ikerketa honetarako egindako inkestan Eibar.org-eko blogarien arrazoietan ere arakatu nahi izan dugu. Blogarien unibertsoa osatzen duten guztien arrazoiengatik inguruan galdetzea ezinezkoa dela pentsatuta, lau parametro finkatu ditugu (Arrazoi pertsonalak; Arrazoi profesionalak; Euskara sustatzea; Sormena garatzea), eta ondoren laukitxo bat utzi dugu blogariak izan daitezkeen eurak nahi duten arrazoiak gehitu dezaketenak. Gauzak horrela, parametro horietako bakoitzari 5 eta 1 arteko zenbaki bat jartzeko eskatu zaie inkestan parte hartu dutenei: 5ek guztiz ados esan nahi du; 1ek guztiz aurka.

Zeintzuk dira blogean idazteko zure arrazoi nagusiak?

I. eta III. inkesta eredueta erantzunekin osatu dugu. Guztira, 11 lagunek erantzun dute.



21. Grafikoa: Blogean idazteko arrazoiak./ Iturria: Norberak egina.

Jarraian, galdetutako arrazoiarekin lotuta, inkestako erantzun irekietan zein elkarrizketetan lortutako hainbat aipu esanguratsu.

Blogintza elkar ekintza soziala da. Blogak zer eman dieten galdetuta, esparru pertsonalean jendea ezagutzeko eta harremanetan jartzeko parada ematen dietela nabarmentzen dute blogariek gehienetan.

Pertsonalki, jende pilo bat deskubritu dut (Elkarrizketa. Gorosabel, 2014).

Jende pilo bat ezagutzeko aukera eman dit (Elkarrizketa. Narbaiza, 2014).

[Blogak] Gehien eman didana eta gehien baloratzen dudana, lagunak dira (Elkarrizketa. Arantzabal, 2014).

Jendea ezagutzea. Bitxia bada ere nire idazkiak hor jartzen nituen aldioro joan nintzen jende berri batzuk ezagutzen, beste ideia batzuk jasotzen (Elkarrizketa. Salaberri, 2014)

Arlo profesionalean zertan lagundu dieten zehazteko eskatuta, ondorengoak izan dira inkestako erantzun irekietan utzi dituzten erantzunetako lau:

Ez dut uste zuzenean aterik ireki didanik, baina bloga+twitter bikoteak ezagunago bihurtu nau, nire iritzi eta lanak ezagunago bihurtu ditu, nire lan arloen berri eman ahal izan dut... Hortaz, esango nuke ez didala zuzenean aterik zabaldu, baina bai zeharka lagundu egin didala (I.inkesta eredua).

Bezeroak errazago topatu naute (I. inkesta eredua).

Enkargu eta kolaborazio ordainduak atera zaizkit blogean idatzitakoagatik (II.inkesta eredua).

Baiezkoa jarri dut, baina ez da profesionalki ateak zabaldu dizkidalako, beste medio batzuetan kolaboratzeko aukera eman dit. Ez da profesioa, baina... (I.inkesta eredua)

Azkenengo bi erantzun horien mamia, gainera, asko errepikatu den gaia izan da elkarrizketetan; kolaborazioak egiteko zubia dela bloga, alegia.

Nik uste dut, gainera batzuei balio izan diela ahots publiko bat garatzeko; bai zerrendak eta bai blogak eta hortik, beste medio batzuetara egin dute salto (Elkarrizketa. Fernandez, 2014).

Alderdi profesionalean, ni irakaslea naiz eta ez dut sumatu ezberdintasunik, baina bai eman dit aukera kolaboratzeko hainbat mediotan, adibidez, orain uda bi "Berrian" abuztuan eguneroko kolaboratzailea nintzen. Niretzat izan zen gauza sinestezina. Aurten, berriz, Euskadi Irratian ibili naiz astean behin kolaborazioak egiten janzkeraren inguruan. Bloga izango ez banu hori ezinezkoa izango zen (Elkarrizketa. Narbaiza, 2014).

Gorosabelen kasuan, blogak zein blogarengatik sortutako kolaborazioek, ezagun egin dute bezero berrientzat kasu batzuetan:

Gero eta gehiago dira esaten digutenak blogarengatik edo blogaren bitartez egiten hasi naizen beste kolaborazioengatik, behar bada, Izparringian, Garan, ETBn edo Euskadi Irratian... agertzen direla. (Elkarrizketa. Gorosabel, 2014)

Inkestan atal bezala jarri ez arren, bada, elkarrizketetan atera den hirugarren dimentsio bat, maila pertsonal eta profesionalarekin batera; dimentsio publikoa.

Maila pertsonal, profesional eta publikoa. Presentzia bat eman dit ez bakarrik blogak, baita zerrendak ere (Elkarrizketa. Laka, 2014).

Ezagun gehiago edukitzeko aukera eta ni neu ezagutzera ematekoa. Ez hainbeste esaten dudanagatik baizik eta ematen dizun presentziagatik (Elkarrizketa. Deogracias, 2014).

Euskara sustatzea blogintzan aritzeko arrazoietakoa bat izan daitekeen galdetuta, % 18 guztiz ados agertu da, % 37 ados, % 18 ez ados eta ez aurka eta gainerako % 27k ez daki edo ez du erantzun. Aurka dagoenik, inork ez du adierazi. Dena den, blogarientzat euskara

sustatzearen garrantzia nolakoa den edota euskararentzat blogak nolako inportanteak diren sakonago aurrerago aztertuko dugu, *Komunitate euskalduna* deituriko atalean.

Norbere sormena garatzea argitaratzera bultzatzen dien zergati bat den galdetuta, % 46 ados agertu da. Kasu honetan ere, ez dakitenak edo ez dutenak erantzun (% 18) eta ez ados eta ez aurka agertu direnen arteko batura altua da (% 36). Horrez gain, beste % 18 esaldiaren aurka dago.

- Blogari gustuz

Blogintza ez dute ogibide elkarrizketan parte-hartu dutenek, zaletasun gisa hartzen dute, oro har. Horiek horrela, jardueraren bizipenak berak dakartzan plazer eta premiak aipatu dituzte inkesta zein elkarrizketetan. Idaztearen plazera aipatu dute hainbatek:

Nire helburua ez da eskola sortu edo jarraitzaileak lortzea. Ez dut horregatik egiten. Besterik gabe, gustatu egiten zait tarteka idaztea (Elkarrizketa. Deogracias, 2014).

Gustatzen zaidalako, plazer hutsez idazten dut (Inkesta, I.eredua).

Idaztearen plazera (Inkesta, I.eredua).

Idazteko grina asetzen zidan blogak (Inkesta, I.eredua).

Blogariaren txip-az hitz egiten du Narbaizak, norbere esperientzia eta ideiak partekatu beharraz:

Harrapatu egiten zaitu, kateatu. Batzuetan niri gertatu izan zait, ez ordenagailu ez ezer ez duzun nonbait egotea eta boligrafo batekin burura etortzen zaizkizunak idaztea, izan ere, jada txip hori daukazu jarrita. Kontatuko nuke hau eta tokatu zait ezin idaztea. (Narbaiza, 2014).

- Audientzia eta elkarreragina

Blogen audientzia eta zehatzago esanda, audientzia horrekin izandako elkarreragina ezagutzea izango da atal honen helburua. Elkarrizketetan, audientziaren gaia hizpide izan dutenean, oro har, blogen irismena txikia dela nabarmendu dute blogariek:

Komunikazioa demokratikoagoa egiten dute baina egia da, oso audientzia txikiak ditugula. Audientziak kontrolatzen ditugunok badakigu oso jende gutxi irakurtzen dituela (Elkarrizketa. Iturria, 2014).

Blog bat ez duzu egiten milioika pertsonari gustatzeko helburuarekin edo milaka pertsonak sinetsi dezaten esaten duzun hori (Elkarrizketa. Irizar, 2014).

Norentzat pentsatuta idazten du, orduan, blogariak? Nor dauka buruan edukiak argitaratzen dituenen? Nola irudikatzen du bere audientzia? Marko teorikoan, blogariak publikoarekin duen harreman bereziaz aritu gara eta galdera horrek beste ikerketa batzuetan emandako erantzunak ekarri ditugu. Brake ikertzaileak, esaterako, hainbatek, pantailaren bestaldean inor edukiko ez balute bezala, euren buruarentzat idazten dutela azaltzen du (2009). Howardek aldiz, irakurtzeaz aparte iruzkinak uzten dituzten horiengan pentsatuta idazten dutela dio (2008). Horrela islatu da gaia, lan honetarako egindako elkarrizketetan:

Hausnarketa tokia da bloga eta horregatik zure burua amueblatzeko aukera ematen dizu. Niri horregatik egiten zait interesgarria (Elkarrizketa. Iturria, 2014).

Nik oso modu egoistan idazten dut, neuretzako erabiltzen dut (Elkarrizketa. Gorosabel, 2014)

Egia da oso baliagarria dela bakoitzaren ideiak antolatze eta idazteko. Hor benetan dakizu, zerbaiti buruz dakizun; hau da, ideia horiek antolatzen ikasten duzu edo ikusten duzu zerbait hori menderatzen

duzun edo ez (...) Horretarako tresna paregabea da (Elkarrizketa. Julio, 2014).


Norberari begira egin arren, publikoari zuzenduta dago edo alderantziz publikoarentzat egin arren norberarentzat ere bada:

Zerbait interesgarria badaukazu esateko, esan. Horretarako da, azken finean, blog bat. Eta esateko daukazuna ez bada hain interesgarria ere, ez dakit, zuretzako hala bada... Nik uste dut euskal blogari edo interneteko komunikatzaileak audientzia txikiarekin edo ia nuluarekin jakin behar duela konformatzen. Artikulua idatzi duzu, ez du inork iruzkinik laga, baina gai bazara zu pozik geratzeko esan duzunarekin.... Erantzun pilo bat izango balitu edo Twitterren mundu guztiak zabalduko balu, ba, agian, egoa pixka bat puztuko litzaidake, baina, beno, jakin behar duzu umiltasun apur batekin jokatzeko, nik esaten dudanak ez du oihartzun handirik edukiko, baina esan dut eta horrek badauka balio bat (Elkarrizketa. Fernandez, 2014).

Batzuk agian botatzen dituzu deskargatzeko, barruan daukazun hori botatzeko, baina, beste batzuetan esaten duzu: hau guztia pentsatu dut eta nahi dut jendeak irakurtzea (Elkarrizketa. Narbaiza, 2004).

Aipatzekoa da blogeri buruz hizketan ari garenean, audientziarekin lotuta doala elkarreragina. Interakzio aukera berriekin, irakurleak kontsumitzen duen edukietan bere ekarpena egin dezake Erabiltzaile horiekiko elkarreragina sustatzen jartzen dute, beraz, blogariek, neurri batean arreta.

Saia zaitez zure blogean egindako iruzkinei ematen diezun garrantzia zehazten I eta II inkesta eredueta erantzunekin osatu dugu. Guztira, 11 lagunek erantzun dute.



22. Grafikoa: Iruzkin garrantzia blogetan.

Iturria: Norberak egina.

Inkesta erantzunen artean, garrantzi handia (% 27) edo garrantzi nahikoa (% 46) ematen dietenak dira gehienak. Dena den, ezin alde da batera utzi, erdipurdiko garrantzia ematen dien inkestatuen kopurua (% 18). Halaber, inkestan atera ditugun erantzun askeen leihatilan jarri dituztenak ikusita, *feed-backa eman* eta *konpartitzea* edo *laudorioak* egitea izango lirateke iruzkin horien funtzioak.

Behaketako datuak erabiliz, honakoa da atariaren jarraipenak iraun duen bitartean iruzkinen araberako elkarreragina:

Hilabetea	Sarrera kopurua	Iruzkinak dituzten sarrerak	Iruzkinak guztira	Blogariaren iruzkinak
Abendua	55	16	35	8
Urtarrila	58	14	25	6
Otsaila	45	4	17	1
Martxoa	44	7	14	5

11. Taula: Iruzkin kopurua blogetan.

Iturria: Norberak egina.

Taulako datuak laburtzeko, aipamen bi:

- Sarrera gehienek ez dute iruzkinik izan (% 80).
- Blogariek ere parte hartu dute iruzkin bat jaso duten hainbat kasutan: galdera bati erantzuteko, iruzkinagatik eskerrak emateko, zerbait argitzeko...

Iruzkin kopuruak bakarrik aintzat hartuta ezin da neurtu, ordea, blogeko sarrerek izan duten eragina. Azterketa honetako datuek erakusten dutenez, sare sozialen agerpenetik, hauek ere bitarteko garrantzitsu bihurtu dira edukien zabalkunderako eta erabiltzaileek elkarri eragiteko.

Blog batek egingo du bere bidea, eta sare sozialetan mugitzen duzunaren arabera jende gehiagorengana edo gutxiagorengana iritsiko da (Elkarrizketa. Irizar, 2014).

Nik uste dut lehen gehiago segitzen nuela “ea zer idatzi duen Pepitok ea zer idatzi duen Mariak”, baina gaur egun Twitterren agertzen dena jarraitzen dut. Konturatu naiz blog batzuk jada ez ditudala jarraitzen Twitterren ez ditudalako ikusten (Elkarrizketa. Narbaiza, 2014).

Esandakoak ikusita, azter dezagun, orain, zenbatek zabaltzen dituzten euren sarrerak sare sozialetatik inkestatik ateratako datuen arabera.

Sare sozialetatik zuen blogeko edukiak zabaltzeko ohitura duzu?

I eta II inkestea eredueta erantzunekin osatu dugu. Guztira, 11 lagunek erantzun dute.



22. Grafikoa: Blogean hedapena sare sozialetan.
Iturriak: Norberak egina.

Blogaren akuilu gisa ere erabiltzen dituztela sare sozialak erakusten du grafikoak. Kasuen erdietan baino gehiagotan adierazi dute euren sarrerak sare sozialetatik zabaltzen dituztela beti. Elkarrizketan ere bi plataformen arteko sinergia eta osagarritasuna nabarmendu dute; hala, blogak diskurtsoa eraikitzeko espazio gisa ikusten dituzte eta sare sozialak banaketarako bitarteko moduan. Sare sozialen agerpenarekin blogen jarraikortasuna zalantzan jarri bazen ere, bien arteko elkarbizitzak emaitza oparoak izan ditu.

Sare sozialak etorri zirenean esan zen: horrek zer ekarriko dio blogari? Oso ohituta egon gara bai teknologian eta bai agerkari digitaletan gabilenok jaio, sortu eta hil oso azkar egiten ziren tresnetara. Bloga ere horrela hilko ote zen galdetzen ginen. Gero ikusi da ezetz, sare sozialak direla banatzeko eta partekatzeko tresna izugarriak baina partekatu nahi duzuna ere nonbait gordeta egon behar duela; hedabide batean edo zure blogean (Elkarrizketa. Irizar, 2014).

Blogen inguruko martxa pizten lagundu dute sare sozialek neurri handi batean. Elkar hartzen duten tresna dira: Twitter edo Facebooken bitartez zabaltzen dituzun gauzak txispa dira, eta bloga izaten da metxa. Zerbaiti buruzko analisiak ateratzeko edo eduki luzeagoak idazteko espazio mantentzen dizu, eta sare sozialek eduki horien zabalkundea eta eztabaida bultzatzeko balio dizute (Elkarrizketa. Bereziartua, 2014).

Nik uste dut norberak eraikitako espazio hori oso inportantea dela sarean, eta gero, modan egongo dira tabernak, askotan esaten dugun bezala... gaur da Twitter, bihar da Facebook, etzi auskalo zer... Nik uste dut gaur egun sare sozialetan egon behar duzula entzutera emateko (Elkarrizketa. Iturria, 2014).

Autoreak berak egiten duen zabalkundeaz gain, kontsumitzaileak egiten duen erabilera dago. Audientziarena geroz eta kontsumo aktiboagoa da, sare sozialetan edukiak partekatu egiten ditu, komentatu, eztabaidatu, zuzendu, elkartrukatu, estekatu... Horiek horrela, interesgarria da behaketak iraun duen bitartean edukiak haien bidez zenbat aldiz partekatu diren ikustea:

Hilabetea	Sarrera kopurua	Partekatzeak
Abendua	55	570
Urtarrila	58	158
Otsaila	45	283
Martxoa	44	201

12. Taula: Partekatze kopurua.

Iturria: Norberak egina.


- Bloga elikatzen jarraitzeko zailtasunak

Zabaltzeko erraztasunak eta dohainik izateak blogen hilkortasun tasa altuan eragina du. Prozesua oso arrunta dela erakusten dute datuek: Technoratik 2008an egindako ikerketa baten arabera, enpresa horrekindexatuak zituen 133 milioi blogetatik 7,4 milioi besterik ez ziren eguneratu aurreko 120 egunetan (Iturri ez zuzenen azterketa).

Blogean argitaratzeari utzi duten bi lagunen iritziak ere jaso ditugu blogean idazteko premiarik ez izatea argudiatu du haietako batek (Elkarrizketa. Laka, 2014), bere burua jendaurretik ezkutatu nahia besteak (Inkesta). Azken honek denbora falta ere aipatu du. Biek, dena den, ez dute baztertzeko berriz ere argitaratzeari ekitea, eta biek, elkartarekin harremana izaten jarraitzen dute. Horrez gain, jardunean ari diren horiei ere galdetu diegu ea blogean argitaratzeari uztea inoiz pentsatu ote duten.

Inoiz pentsatu al duzu bloga uztea?/ Zergatik?

I eta II inkesta ereduetako erantzunekin osatu dugu. Guztira, 11 lagunek erantzun dute (Arrazoa, berriz, bloga uztea pentsatu dutenek bakarrik)



23. Grafikoa: Bloga bertan behera uztea. 24. Grafikoa: Bloga uzteko balizko arrazoiak.
 Iturriak: Norberak egina. Iturria: Norberak egina.

Grafikoari erreparatura % 40k, noizbait bloga uztea pentsatu duela ikusten dugu. Arrazoien artean, *denbora falta* izan da zergati nagusia, baina *gogo falta*, *idea falta* edo *aspertuta egotea* ere argudiatu dituzte.

Erantzun askeetan bere kasua azaldu duenik ere egon da. Blogari batek bere hamar urteko jardunean argitaratu gabe egon den boladak izan dituela kontatzen du, *bloga kudeatzeko denbora eta gogo gutxiago* izan dituelako. Hala ere, sekula ez duela bertan behera uztea pentsatu nabarmentzen du (Inkesta, I.eredua). Horrez gain, erantzun askeetan, beste blogari batek arrazoi gisa *etxean koberturarik ez izatea* jarri du (Inkesta, I.eredua).

Zaletasuna eta autodiziplina (Inkesta, III.eredua), hortaz, gakoetako bi izan daiteke bloga elikatzeko orduan. Izan ere, blogarien egunak ere 24 ordu ditu eta lan honetan parte hartu dutenen artean ez dago blogeko jarduna ogibide duenik:

Hemen blogari profesionalik ez dago, blogak ez dute dirurik ematen izatekotan gastuak dira, denbora gastu bat da. Afizio bat bezala hartzen duzun gastu bat (Elkarrizketa. Fernandez, 2014).

Dena den, komunitatearen babesa izateak badu garrantzia gai honetan, eta ikusi bestela: bloga uztea pentsatu dutenen artean % 100k Eibar.Org komunitatearen baitan ez balego, bloga bertan behera utziko zuela pentsatzen du³⁷.

4.2.3 Hirugarren ikerketa-galderari dagozkion emaitzak

IG3. Nola uztartzen dira komunitatearen bereizgarriak blogetan?

- Komunitate baten parte

Komunitate baten baitan aritzea bera, bereizgarri gisa hartu daiteke blogen kasuan. Izan ere, blogintza, ekintza indibidual izatetik, jarduera kolektiboa izatera pasatzen da, batez ere blogaria, komunitate baten parte denean. Oro har, ikerketan parte-hartu duten blogariek nahiago dute talde baten konpainian aritu:

Esperientzia sozial moduan bizi dut, bloga. Gustatzen zait elkarte baten parte izatea eta komunitate batean egotea; hau da, ez izatea blog isolatu bat. Zentzu hori oso garrantzitsua iruditzen zait (Iturria, 2014).

Talde baten parte izatea badauka inportantzia nire ustez (Narbaiza, 2014).

³⁷ Inkestako “Zure bloga blog komunitate batean egongo ez balitz, lehenago bertan behera utziko zenuela uste duzu?” galderaren erantzunetan oinarritutako emaitza.


[Abantailak] Elkarkidetza edo blogarien arteko harremanak (Inkesta, III. eredua) .

Talde izpiritua, bestalde, datu hauetan ere azaleratzen da: egunerokoan Eibar.org-eko blogik irakurtzen duten galdetuta, inkesta erantzun dutenen artean, gehiengoak (% 64) beti edo ia beti irakurtzen duela dio. Nahiz eta gero, iruzkinak egiten dituzten galdetuta kopuru hori asko jaisten den, eta “batzuetan” (% 46) edo “gutxitan” (% 27) diren erantzun errepikatuenak.

1) Egunerokoan ba al duzu Eibar.org-eko blogik irakurtzeko ohiturarik?

2) Egunerokoan ba al duzu Eibar.org-eko blogetan iruzkinik uzteko ohiturarik?

I eta II inkesta eredu etako erantzunekin osatu dugu. Guztira, 11 lagunek erantzun dute.



25. Grafikoa: Komunitateko beste blogak irakurri edo komentatzea. Iturria: Norberak egina.

Horretaz aparte, aurreko atalean aipatu bezala, komunitateko kide ez baziren bloga bertan behera uzteko probabilitatea handiagoa izango zela uste dute inkestan parte-hartu duten guztiek.

Izaera kolektibo hori, den den, ez dago komunitate bati hertsia; areago, ondorengo elkarrizketatuak blogosferaren dinamikaren parte bezala deskribatzen du. Besteari entzun eta jarraitzeaz gain, norberaren ahotsa erabili beharra:

Hor bazaude beste batzuk irakurtzeko zera bat ere pizten zaizu. Indibidualki egiten duzun zerbait da baina ez zaude zu bakarrik, jende asko dago. Hortaz, besteena irakurri eta zuk ez egitea ezer... Eskatzen du alde bietako izatea: besteak irakurri eta norberarena ere egin. Informazioa izan al da interesgarria ala ez baina jasotzen duzun heinean zuk ere eman egin behar duzu. Blogak hori ere ematen du (Elkarrizketa. Deogracias, 2014).

- Komunitate euskaldun baten parte

Euskararekiko kezka zuten erabiltzaileek sarea aliatu gisa ikusi zuten hizkuntzaren garapenean. Are gehiago, ezinbesteko jotzen zuten euskararen presentzia bermatzea; internet, euskara gabe garatzen bazen hizkuntzak ez zituelako esparru berriak bereganatuko. Testuinguru horretan, blogena, euskarazko edukiak sareratzen egindako ekarpena da:

Lehenago egunean irakurri nuen Interneten ez dagoen hizkuntza kondematuta dagoela hiltzera. Nik uste dut, irakaslea naizen aldetik, blog euskaldunak sortu direnetik askoz ere baliabide gehiago ditugula (Elkarrizketa. Narbaiza, 2014).

Abantaila batez ere euskararentzat, blogosfera martxan jarri zenetik euskaraz interneten zabaldu zen edukien kopurua dezente hobetu zela. Bestela, beti geunden hedabideak argitaratzen zutenaren menpe (Elkarrizketa. Bereziartua, 2014).

Aukera, plazaratzeko edukiak eta batez ere euskara ipintzeko interneten
(Elkarrizketa. Goñi, 2014).

Sustatu izan zen lan horiek egiten lehena, 2001ean. Jabi Zabala izan zen, berriz, euskarazko blog pertsonal bat abiatzen aurrenekoa, 2003an ekin zion berak, argitaratzeari. Eibar.org ere bidegile horien taldean sartzen da, bera izan baitzen komunitateetan aitzindari. 2004.urtean hasi zuen ibilbidea eta urte horren amaierako jadanik 20 blogari biltzen zituen. Geroztik urteen joanean, 12.000 artikulua sareratu dituzte Eibar.org-eko kideek: euskarazko eduki hutsak gehien-gehienak eta hamaika gaien ingurukoak. Honetaz eta hartaz, edozerren gainean hitz egiteko blogontzia baita Eibar.org. Bost sarrera iritzira hartuta: paboi handia tximeletaren azalpena³⁸; itsasoari eskainitako argazki artistikoa³⁹; pikillo, tipula eta itsas kabra pateen errezeta⁴⁰; euskararen transmisioaren inguruko ardurak eta gakoak⁴¹; Eguiguren eta bere titularrak⁴².

Horren harira, kideek, komunitatearen aniztasuna garrantzizkotzat jo dute. Bloga, aipatu bezala oso medio pertsonala denez, blogarien aniztasuna eta gaien aniztasuna eskutik emanda doaz:

Aipatuko nuke ere oso komunitate dibertsoa dela bai tematikan, bai politikoki, bai interesen arabera edo ez dakit nola esan jatorriz batzuek, eibartarrak eta beste batzuk Eibartik kanpokoak. Hori ere nik uste dut badela garrantzitsua (Elkarrizketa. Iturria, 2014).

³⁸ "Paboi handiaren" (S.pyri), Europako tximeleta handienaren beldarra" sarrera," Asier" Sarasuaren "Eibartik" blogetik.

³⁹ "Itxaso" sarrera, Juan Luis Irigoien "Irigoien" blogetik.

⁴⁰ "Hainbat pate" sarrera, Igone Lamarainen "SU BILA nabil" blogetik.

⁴¹ "Transmisioa aldarrikatu nahi dut" sarrera, Ane Sarasketaren "Berkak dantzan" blogetik.

⁴² "Titularrak emateko makina da Eguiguren", Mikel Iturriaren "Harrikadak" blogetik.

- Aitzindari eta bi bider eredu

Internauta *goiztiar* moduan deskribatzen ditu komunitatea Jabi Zabalak, euskarazko blog pertsonala izan zuen lehenak (Elkarrizketa. Zabala, 2014). Aitzindari izana aitortzen diote, hortaz, Eibar.org-etik kanpoko hainbat blogarik komunitateari, eta aitzindaritza hori, batez ere bi elementugatik nabarmentzen dute; euskaraz izateagatik, batetik; eta, talde modura aurrera eramateagatik, bestetik.

Eibar, Codesyntax, Eibar.org... hor sortu zen talde eta dinamika hori izan zen aitzindaria. Sustaturen sorrera ere hor kokatzen da. Multzo horretan dozena erdi bat lagunek usaintzen zuten zetorrena eta gaitasuna izan zuten nolabait motibatzeke, saretzen hasteko eta jendeari bultzatzeko euskaraz idaztera eta digitalean aktibatzerara (Elkarrizketa. Irizar, 2014).

[Eibar.org-en ekarpena] Hasieratik egon dela antena bat piztuta teknologiari begira eta hori ekarri dela euskaltzaletasunera (Elkarrizketa. Arantzabal, 2014).

Euskal blogosferaren lehen pausoak emateko erabiltzaile talde bat elkartu eta denak batera argitaratzeari ekitearen balioa ere azpimarratu dute.

Gainera, aitzindaritza hori talde moduan edo kolektibo moduan eraman zuten aurrera (Elkarrizketa. Rodriguez, 2014).

Euskal blogosfera osoari oparitu dio komunitate izaera hori. Taldean lan egiten erakutsi du. Askoz ere gauza gehiago lor zitezkeela taldean lan eginda (Goñi. Elkarrizketa, 2014).

Modu horretan, inspirazio edo eredu ere bihurtu ziren aitzindariak.

Egia da, geroztik etorri garenok -neure moduan- hortik edan dugula apur bat. Ikusi genuen posible zela eta esan genuen, zergatik ez egin blogetara saltoa? (Elkarrizketa. Rodriguez, 2014)

Eibar.org komunitatean dauden blogari asko izan dira, eta dira, oso erreferentziazko pertsonak; ez blogosferan bakarrik, oro har, euskarak Interneten bere pisua izan dezan lanean aritzen garenon artean ere (Elkarrizketa. Bereziartua, 2014).

Hain dira garrantzitsuak orain horrelakoak sortzeari ekin beharko geniola. Era horretako komunitateak sortzea ezinbestekoa izango da hurrengo urteetan (Elkarrizketa. Julio, 2014).

4,3 Elkarteak

Komunitate bakoitzak identitate propioa dauka, eta atariko azalpenei begira, **Eibarren, teknologia berrien** eta **euskararen** inguruan biltzen dira eibar.org-eko kideak. Helburutan, alde batetik, herriaren inguruko aipamenak daude:

- Eibarren, Internet eta teknologia berrien erabilera sustatzeko ahalegina egin.
- Interneten eta euskarri teknologi berrietan Eibarren irudia eta informazioa zabaldu.

Horri lotuta, sareak kokaleku fisikorik izan ez arren, Eibar dute hiriburu. Posta-zerrendak, bere atalean ikusi dugun moduan nahiko lotura estua du herriarekin. Atariari dagokionez, aldiz, batik bat hasieran izan zuen Eibar.org-ek konexio handia. Bigarren helburua, Eibarren irudia eta informazioa zabaltzeari egiten diona erreferentzia, esaterako, atariaren lehen fasean izan zen bereziki garrantzitsua. Izan ere, orduan, herriari buruzko informazio gutxi zegoen sarean eta elkarteak jaioberri zen garai hartan, Eibarri buruzko edukiekin hasi ziren elikatzen webgunea. Gerora, administrazio publikoek ekin zioten egiteko horri eta blog komunitatea martxan jarri zenetik Eibarren presentzia ez da hain adierazgarria.

Dena den, Eibarren inguruko edukiak han jarraitzen dute, batez ere, Materixala atalean: 1974eko Eibarko ordenantzak aurki ditzakegu, egungo udaleko helbide elektronikoak, herriko jai eta ospakizunak, gerrako dokumentuak, gargolak, trikuharriak, San Blasen errezeta, herriko pertsonaia ezagunen inguruko informazio ... Denetik dago, beraz: anekdotak, herriaren egunerokoaren isla diren dokumentuak, Eibarren historia markatu duten pasarteak...

Filosofia da, bestetik, elkarteen ezaugarri nabarmenena eta sareko 2.0 balioei egiten diete helburuetan erreferentzia: elkarlana eta elkartasuna, komunikazio irekia, informazioaren jario librea, kultura eta jakintzaren dibulgazioa...

Azkenik, aipatu dugun moduan, **euskarari** lotutako puntuak daude:

- Gurea elkarte euskalduna da eta euskaraz funtzionatuko du.
- Interneten eta teknologia berrien inguruan dabilzan gainerako euskaldunekin loturak estutu, eta eremu euskalduna sustatu eta indartu.

*Zerrendatuko ahal zenituzke Eibar.org blog komunitatea aukeratzeko
hiru arrazoi nagusiak? Zerrendatuko ahal zenituzke bloga Eibar.org komunitatearen
hiru onura handienak?*

Aitzindaritza eta erreferente	- Orduan zegoen bakarra zen - Erreferentziakoa zen - Interneten ibiltzen hasi nintzenean, 2000. urtearen bueltan, Eibar.org zen punta-puntan zegoen komunitatea - Aitzindaritza - Esango nuke prestigio puntu bat ere badu
Euskararen lehentasuna	- Euskararen lehentasuna - Euskararen presentzia interneten sustatzea - Euskalduna da - Euskaldunen komunitatea da
Eibarkoa	- Eibarkoa izatea - Guk sortutakoa izan da, Eibarkoa da - Eibartarra izatea - Eibarko ekimena izatea - Diasporatik herriarekin lotura izateko modu bat da - Eibartarra da
Ez Eibarkoa soilik	- Eibartarrak ez diren ekarpenei irekia izatea

Elkarkidetz	<ul style="list-style-type: none"> - Animoak ematea inportsoa - Hurbileko jendez inguratuta egotea - Komunitate bateko kide sentitzea (horrek dakarrenarekin: elkar ezagutu, konfiantza, babesa, afariak...) - Giro ona eta laguntza - Blogari batzuk ezagunak ditut - Elkarkidetz edo blogarien arteko harremana - Lagun artea eta komunitatea osatzen lagundu digu - Lagunak egitea bertan - Giro ona
Solasaldia	<ul style="list-style-type: none"> - Eztabaida interesgarria - Eztabaida eta bronka gustatzen zaizkit
Aniztasuna	<ul style="list-style-type: none"> - Anitza da - Informazio ugari biltzen du, dena espazio batean - Aniztasuna
Laguntza teknikoa	<ul style="list-style-type: none"> - Eskaintzen digun laguntza - Laguntza bloga martxan jartzeko - Laguntza teknikoa - Ez duzu diseinatu beharrik eta arazoak daudenean erraza da eskua botako duen norbait topatzea - Laguntza
Teknologiak	<ul style="list-style-type: none"> - Asko ikasten da joera berriak hasieratik harrapatzen dituztelako - Internet eta sare sozialetarako sarbidea izan da - Plataforma oso establea da, atzean dagoen jendea bezala
Horizontaltasuna	<ul style="list-style-type: none"> - Inoren gain agintzeko borondaterik eza
Talde egituratua	<ul style="list-style-type: none"> - Komunitatea osatzea - Inteneten euskal komunitatea artikulatzen lagundu du - Taldea izatea - Komunitate baten egotea - Bisitak lortzea komunitatean egoteagatik

* *Hainbat blogariri ahotsa eman dio, dohainekoa da eta beste hainbat proiekturako sarbidea dira, atal horietan sailkatu ezin ditugun eta eman dituzten beste erantzunak.*

13. Taula: Komunitatearen abantailak eta onurak.

Zerrendatuko ahal zenituzke bloga Eibar.org komunitatearen hiru desbantaila nagusiak? I. eta III. inkesta eredueta erantzunekin osatu dugu. Guztira, 11 lagunek erantzun dute.

Berrikuntza gutxi	<ul style="list-style-type: none"> . "Prebisible" samarra izatea . Patxadatxuegia beharbada . Nolabaiteko berrikuntzaren falta
Sinplea	<ul style="list-style-type: none"> . Sinplea
Anonimotasun eza	<ul style="list-style-type: none"> . Norbera ere ezagutzen dutela. Anonimotasun falta batzuetan . Bisibilitatea (ixileko gauzak ezin atera)
Laguntza	<ul style="list-style-type: none"> Laguntza eman dezaketenak bolondres izatea

* 11 lagunetatik zazpi ez diote desabantailarik ikusi.

Inkesta bete duen batek ez du galdera hau erantzun.

14. taula: Komunitatearen desabantailak.

Iturria: Norberak egina.

- Zerrendatik, blog komunitatera: erreferentziaren etorkizuna

Sarea oraindik gutxiengo baten kontua zen garaian, Eibartarrak posta-zerrenda sortu zuten 1998an (euskarazko lehenengotarikoa eta martxan dagoen bakarretakoa). Etxeak oraindik ez ziren modu masiboan saretzen hasi, eta posta-elektronikoak ez zuen oraingo erabilera estandarra. Testuinguru horretan hasi ziren biltzen eibar.org-eko kideak eta komunitatea eratzen joan ziren postontzi telematikotik bidali eta jasotzen zituzten mezuen bitartez.

Zerrendaren atalean aipatu bezala min egin die sare sozialek bertako jardunari. Mezuen joan etorria lehen baino urriagoa da eta baita harpidetzak ere. Fernandezek dionez, bitarteko bezala, *ez da beste munduko ezer* baina ia hamasei urteko elkarrizketa jarraitua ahalbidetu du eta kideek tinko eutsiko diete zerrenda bidezko hartu-emanari.

Ez da beste munduko ezer, baina gauza interesgarria zen orduan eta gaur egun oraindik ere bada. Azken batean, jende interesgarri batek interneten konbertsazioari eusteko balio izan du eta balioko du oraindik ere. Zaharraren zaharrez hiltzen garen arte, erreleborik ez dago baina beno urte batzuk geratzen zaizkigu (Fernandez, 2014).

Elkartearen ibilbidea laburbildu eta aurrerantzean ere azken joerei begira jarraituko dutela nabarmentzen du Fernandezek:

Ez dakit, Twitter eta mugikorrek hor daude, agian, horren inguruan asmatu beharko dugu zerbait. Sortu zenean web estatiko moduko bat zen, non, Eibarreko informazioa zegoen eta posta-zerrenda. Web estatiko horrek funtzioa galdu zuen gero, Eibarko informazioa udalak eta beste hainbatek hartu dute, eta Googlen erraz bilatzen da Eibarreko informazioa. Hortaz, web estatiko hori ordezkatu genuen web dinamiko batekin, bertako funts nagusia blogak dira. Orain, agian, beste fase bat asmatu beharko genuke. Mugikorrean irakurtzen dugu posta-elektronikoa, webak ere bisitatu daitezke, baina beste zerbait asmatuko bagenu, beste mugikorra Eibar bat mugikorretik ikusiko dena

edo... Norbaiti piztu beharko zaio bonbilla. Zer izango ote den? Ez dakit. Eta izatekotan zer izango den ere ez dakit. Blogetan aitzindari izan ginen bezala horretan ere aitzindari izatea posibilitate bat da. Agian, usurbildarrek asmatzen dute eta guk haiek kopiatzen diegu, hori ere izan liteke. Ikusiko dugu, ezta? Mugikorren mundua oso indartsu dator eta pentsatu behar da horren inguruan.

5. Kapituluia: Ondorioak

Egindako bidea amaitzera doa, hasierako korapiloa askatzeko txanda da. Bildutako informazioa aztertuta, gaiaren inguruan lortu ditugun emaitzak laburbilduko ditugu orain (Juaristi, 2011). Ikerketa esploratzaile baten bidez Eibar.org-en esperientzia eta errealitatea azaltzen saiatu gara metodo kuantitatibo eta kualitatiboak erabiliz, eta ikerketa-galderei erantzutea denez lan honen helburu nagusia, ondorioak galdera horien arabera aurkeztuko dira jarraian.

Komunitateari tresna dinamiko eta horizontala eskaintzen dio proiektu honek, eta herritar guztiei informazioaren munduan parte-hartze zuzena izateko aukera eman; informazioa sortu, landu zein euren iritzia agertzerakoan. Horregatik izan dugu *komunitateko kideen parte-hartzea sustatuz euren mezubide propioa eratu dutela* ideia abiapuntu ikerketan.

Modu horretan, komunitateak eraikitako eredu parte-hartzaile bat posible dela erakutsi digute, gainera. Sorrerako bigarren ideiak, hain zuzen ere, izaera kolektibo hori nabarmentzen du: *informazio emaria ez ezik, Eibar.org herritarrek elkar topatzeko espazioa da*. Zerk egiten ditu baina, komunitate? Euskarak egiten ditu, Eibarrek, eta publikoki eta norberaren ikuspuntutik aritzeak.

Hori esanda, ekin diezaiogun mamia papurtzeari. Zerrendarekin hasiko gara lehenengo, blogekin jarraituko dugu eta elkartearekin amaitu.

5.1 Posta-zerrenda

- “EIBARTARRAK”, aspalditik

Internet jaiotako eta gizarteratzen hasi zenean posta-zerrenden inguruan batu ziren sarelariak. Orduan, sarean ibiltzeko modu praktikoena zen (Fernandez, 2014). Tresna horietan emandako hartu-eman eta elkarrizketei esker sortu ziren, gainera, lehen komunitate birtualak (Albarrán, De Pablos eta Montero, 1996; Vela, 2006). Ikerketa honek aztergai duen

komunitatearen kasuan ere horrela gertatu zen; hau da, *Eibartarrak* posta-zerrendatik sortu zen ondoren etorriko zen guztia (Fernandez, 2014). Zerrendaren jardunari zor zaio, beraz, Eibar.org elkartearen, webgunearen eta blog komunitatearen sorrera. Bera da muina; inkesta bete duten harpidedunen artean % 90,47 ados edo guztiz ados dago *zerrenda komunitate birtualarentzat kohesio tresna da esaldiarekin*.

Ordutik, kideen parte-hartzeari esker bizirik dagoen proiektua da Eibar.org; zerrendaren kasuan, geroztik, 16 urteko elkarrizketa jarraitua dago. *Ahots propioz gauzak esan eta komunikatzeko boteretzeaz jabetzeko* balio izan die horietako askori, hau da, *pertsonalki, inongo dependentziarik gabe, hedabide izateko aukera eman die* (Fernandez, 2013). Horiek horrela, tresna preziatua da, ez bairik gabe, kideen artean; *informatuta egoteko, eguneroko kontuak komentatzeko zein iritziak eman eta jasotzeko* (Inkesta, I. eta III. ereduak).

5.1.1 Lehenengo ikerketa-galderaren inguruko ondorioak:

IG1. Ze ezaugarri ditu zerrendaren komunikazio prozesua?

- Zaku zabal eta malgua

Ikerketa honek protagonistatzat duen zerrenda, publiko orokorrari zuzendua dago eta hartueman *jeneralekua* da (Fernandez, 2003). *Informazioa trukatu eta euskaraz jardun nahi duen eibarnauta orori, txoko bero bat eskaintzea* du helburu (Helburu informalak, Eibar.org). Xede zabal horren estalpean hazi den taldearen aniztasuna nabarmentzen da inkestan; bai gaiei, baita erabiltzaileei dagokienez ere.

Bertan, posta-elektronikoz, parez-pare, horrela funtzionatzen du (Elkarrizketa. Fernandez, 2014). Maila indibidualean, norbere iritzien berri emateko, egunerokoa komentatzeko... espazioa da. Taldearen baitan, eztabaidak emateko edota informazioa partekatze esparrua.

Berdinen arteko komunikazioa dela diogu, mezuak, automatikoki taldeko kide guztiei iristen zaizkielako eta denek dutelako euren ideiak bota edota defendatzeko aukera. Teorian, beraz, eta masa komunikazioaren ohiko eskemekin alderatuta, harpidetu bakoitzak du

ahotsa eta parte-hartzeko aukera. Praktikan, ordea, erabiltzaileen artean ezberdintasunak nabarmenak dira, erabiltzaileak ez duenez nahi esan, derrigorrez, eduki sortzailea.

- Arauak dira eztabaidaren kalitatearen berme

Komunikatzeko beste edozein bitartekok bezala Eibartarrak zerrendak ere baditu bere arauak. Beste batzuekin alderatuta, arau gutxi ditu zerrenda honek baina ezinbestean bete beharrekoak, izan ere, sarea ulertzeko ikuskera baten parte ere badira.

Batetik, jarduna euskaraz da. Ez da kontu hutsala, aintzat hartzen badugu zerrendako parte-hartzaileen artean 5 - 1 eskala batean - gehienezko puntuazioa 5 izanik eta garrantzi handia esan nahi duelarik- % 95k 5eko garrantzia eman diola sarean euskaraz aritzeari, eta gainerako % 5k 4ko puntuazioa.

Bigarren hankak, partaideak eta artxiboak publikoak izateak ere pisu handia dauka, elkarrizketa *zibilizatuago* baten mesedetan (Elkarrizketa. Fernandez, 2014).

5.1.2 Bigarren ikerketa-galderaren inguruko ondorioak

IG2. Zeintzuk dira zerrendakideen oztopo, erronka eta motibazio nagusiak?

- Zerrenda eta sare sozial masiboak: Tra(d)izio baten historia?

Emaitzen analisisian ikusi dugun moduan, sare sozial gisa deskribatzen dute harpidetuek posta-zerrenda. Are gehiago, bitarteko hauen erabilera horren zabaldua dagoenean, garrantzia ematen diete oraindik fenomeno ezezaguna ziren garaietan komunitate bat sortzearen balioari.

Komunitateak, software soziala, sare sozialak... Asko egiten da berba horretaz. Duela 10 urte ere bazegoen bidea komunitateak sortzeko Interneten, eta sortu genuen (Fernandez, 2008).

Nahiz eta, beste sare sozial masiboago batzuk agertu diren eta bere jarduna moteldu egin den. Hala ere, eteten ez den soka da posta-zerrendarena:

Aitzindari izan zen eta hamasei urte pasa ondoren bizirik dago. Sare sozialek min egin diote, bizitasun gutxiago dauka baina uste dut eibartarrok eta zerrendakideok harrotasunez hitz egin dezakegula posta-zerrendaz eta egindako ibilbideaz (Inkesta, I. eredu).

Izan ere, harremanak mantentzeko balio duten zerbitzu gisa definitzen dituzte adituek sare sozialak -inguruko beste erabiltzaileekin harremanak sortu eta horiei eusteko- eta *Eibartarrak* zerrendak ere funtzio hori betetzen du. Facebook eta Twitter gure bizitzetan agertu baino lehen ere horretarako balio zuen. Enpresa handiek kudeatutako sare sozialen aurrean, halaber, etxekoaren balioa nabarmentzen da; taldearen auto-antolaketa eta burujabetza teknikoaren euren esku izatearen garrantzia.

Baina horiek ez dira Eibartarrak sortuak. Beno ez eibartarrek, ez asteasuarrek... (Fernandez, 2014)

- Neurriko zerrenda?

Emaitzetako datuak laburbilduz, 86 kidek osatutako zerrendatik **33 harpidetuk hartu dute parte elkarrizketan behaketak iraun dituen lau hilabetetan** (% 38). Denbora horretan, 82 elkarrizketa hasi dituzte eta **mezu horietako % 73k izan du segida**. Garrantzitsua da datu hau, edozein izanda ere posta-zerrendaren asmoa, bere arrakasta, harpidedunen ekarpenak baldintzatuko baitu. Galdera, iruzkin, proposamen... gehienek jasotzen dute erantzunen bat eta hortaz bere eraginkortasun maila altua dela esan dezakegu. Haritik tiraka, berriz, guztira, 275 iruzkin egon dira solasaldi horietan. Gauzak horrela, **eguneko ia hiru mezuko batz bestekoa** atera da zerrendari jarraipena egin diogun bitartean.

Zer uste dute, ordea, komunitateko kideek kopuru horien inguruan? Harpidedunek mugimendu handiago baten aldeko aldarria egiten dute (% 71ari zerrenda biziagoa izatea gustatuko litzaioke).

Harpidedun gehiago izateko irrika ere badago erantzunetan, baina gehikuntzarik, apenas. *Inor ez da gehitzen* (Fernandez, 2014).

Ahots eta kontu berrien bila dabilta, hortaz, baina ez da lan erraza. Izan ere, testuingurua asko aldatu da tresna sortu zenetik hona eta komunikatzeko espazio berriak ere agertu dira, gorago aipatu dugun moduan.

- Esatearen ederra baina egiteko hain zaila

Komunikazio parte-hartzaileari, indarra, erabileratik datorkio (Rheingold, 2008). Garrantzitsua da beraz, erabiltzaileen esku hartzeko borondatea neurtzea. Horren harira, kapitala eta gizarte-kultura ezberdintzea garrantzitsua da. Gauza bat baliabide teknikoak eskura izatea da eta bestea, baliabide tekniko horiek erabili eta edukiak sortzea.

Teknologiaekin ohituta dauden erabiltzaileen artean partaide pasiboak nagusi dira (Martinez, 2008).

Paretoen printzipioa edota 80/20 araua testuinguru elektronikora ekarri duten ikertzaileek, zerrendetan mezuen % 80, harpidedunen % 20k sortzen dutela azaltzen dute (Mitchell, Liston, Peters, Wentz, 1995). Ehunekoak ezberdinak izan arren, ikerketa honetako behaketak iraun duen bitartean ere, hitz egin dutenak gutxiago izan dira (% 38), isilik mantendu direnak baino.

Bar-Ilanek (1997) ere, bitarteko modernoak izan arren, bertan ematen diren jokabideak tradizionalak direla dio; elkarlana eta parte-hartzea mugatua dela, eta bizitasuna eta berrikuntza talde txiki beretik datozela ia beti. Talde txiki hori ohikoan parte-hartzen duena da Victor Feluiren arabera (gaiak proposatuz, beste erabiltzaileek esku hartzera animatuz...). Behaketako datuei begira, badaude *Eibartarrak* posta-zerrendan hilean hamar mezu baino gehiago bidali dituzten partaideak (% 8). Talde horretako partaideak gainera, elkarteko

kideak dira gehienetan. Izan ere, inkestan adierazi duten moduan euren burua aktibotzat dutnen artean askoz gehiago dira elkartearen kide diren harpidedunak; % 44, hain zuzen ere (% 17 elkarteko kide ez diren zerrendakideen artean).

- Lankidetzeta eta adiskidetasuna

Egunerokoan ematen diren mezuen joan-etorriarekin sortutako harremana da elkarteko kide askorena. Gaiari sakonduz, harreman pertsonal eta profesionalen inguruan ere galdetu diegu zerrendakideei: % **71k dio beste kideren batekin laguntasun harremana garatzeko bide eman diola aztertutako zerrendak**. Emaitza horretatik elkarteko kide ere badiren zerrendakideen erantzuna estrapolatzen badugu, bistakoa da hauen artean, adiskidetasun harremanak are ohikoagoak direla (% 89).

Hurbiltasun hori mezuen joan etorrian ere islatzen da. Bizitzaren egunerokoaren kontaketa egiteko; heriotza eta jaiotzen berri emateko, esaterako. Modu honetan deskribatzen zuen Narbaiza zerrendakideak, bitarteko honen inguruan egindako aurkezpen batean 2012an:

Kariñotik. Onerako zein txarrerako. Gure poz eta tristuren berri emanez: jaiotza, haurdunaldi, heriotza eta gaixotasun berri emanez.

Zerrendak beste harpidetu batekin **harreman profesionalak** garatzeko bide eman ote dien galdetuta, % **43k baietz esan du**. Kontuan hartzeko zifra da hau ere, nahiz eta, lan munduari bereziki zuzendutako zerrenda ez izan. Elkarteko kide direnen artean harreman profesionala garatu duten pertsonen ehunekoak altuagoa da, haien kasuan % 56 izanik. Enpresa bat ere sortu dute zerrendan ezagutu ziren hainbatek: *Hemen alkar ezagutu dogun batzuk be, Code & Syntax enpresia be sortu dogu* (Fernandez, 2003).

Zerrendako kideen hartu eman hauek, gainera, ez dira soilik eremu birtualera mugatzen:

Eibartarrak zerrendako lagunak elkartzeari ekin zioten hasi eta berehala. Urtean pare bat afari egiten dira, eta elkartzen gara koadrilatxo bat (Fernandez, 2008).

Elkartea sortzeko ideia bera ere afari horietan sortu zen:

Afari haietako batetik, sortu zen elkarte bat sortzeko ideia
(Fernandez, 2008).

Gisa honetako foroetan parte-hartzen duten asko ez datozela **informazio bila soilik, elkarri eragitea bilatzen dutela**. Ildo horretatik, ***Eibartarrak* topaleku da eurentzat**, eztabaidatzeko, hitz egiteko, entzuteko, iritziak partekatzeko eta talde izateko.

- Ondo baloratutako tresna

Tresnarekin gustura aritzea ere bertan parte-hartzeko arrazoi indartsua izan daiteke, eta emandako puntuazioa ikusita, *Eibartarrak* posta-zerrendak aise asebetetzen ditu inkesta bete duten harpidedunen espektatibak funtzionamenduari (5eko gehienezko puntuazioa onartzen zuen eskala batean 4,3), erabilgarritasuna (5etik 4,35), balioa (5eko 4,3) eta mezuen kalitateari (5etik 4,2) dagokionez, behintzat.

5.1.3 Hirugarren ikerketa-galderaren inguruko ondorioak

IG3. Nola uztartzen dira komunitatearen bereizgarriak zerrendan?

- “Eibartarrak”, neurri handi batean

Izanaren itzala, izena. Titulutik hasita, badu zerrendak, Eibarrekin zerikusia. Eibartar baten ekimenez eman zituen, zerrendak bere lehen urratsak eta beste eibartar esploratzaile batzuk izan zituen (gehiengo batean) bidelagun bere hastapenetan. Fernandez, zerrendaren sustatzaileak *azierto* gisa deskribatzen du bere herriko jendearekin ekitea tresnaren ibilbidea. Egunerokoan ere, herriko kontuak oso presente daude. Ulegarria den zerbait da, bestalde, jatorri komuna partekatzen duten gehiengo bat egonda. Horiek horrela, zerrendak Eibarrekin duen loturaz galdegin dugu inkestan, eta harpidedunen gehiengoak bien artean

lotura dagoela uste du: % 85,70k lotura ikusten du herriaren eta zerrendaren artean, horietatik % 38,09ak, gainera, lotura hori erabatekoa dela dio. Lurralde birtualen garaian ere, informazio lokalak jendea erakartzen jarraitzen du. Asier Arangurenek *glokalizazioa* kontzeptuarekin bere tesian azaltzen duen bezala herritarrak *berta-bertako berrien beharra* izaten jarraitzen baitu eta zerrendak erakusten duenez, baita komentatzekoa ere.

- Eibarko euskara, bitarteko

Eibarko euskararen erabilera aztertzean hiru arrazoi nabarmendu dira: batetik, Eibarko euskarak tradizio idatzi handia du; bestetik, zerrendaren formatua idatzizkoa bada ere, askotan ahozko elkarrizketaren antza gehiago du eta horrek ere eragina du euskalkiak erabiltzeko orduan; eta azkenik, zerrendan parte-hartzen duten kide hainbat Eibarko euskara aztertu, batu eta hedatzen ibili dira (Sarasua, 2014).

Bertako euskarari bultzara ere bada, hortaz, zerrenda. *Eibarko euskaraz idazteko aukera polita da, euskeria erabiliz eta idatziz ikasteko* (Basauri, 2005), Inkestako datuek ere horrela erakusten dute, euskalkian idazten duenez % 58k beti edo ia beti.

Halaber, zerrenda euskalduna izatea ere pisuzko ezaugarria da harpidedunentzat, izan ere, zerrendako parte-hartzaileen artean 5-1eko eskala batean - gehienezko puntuazioa 5 izanik eta garrantzi handia esan nahi duelarik- % 95k 5eko garrantzia eman die sarean euskaraz aritzeari eta gainerako % 5k 4ko puntuazioa. Zerrenda euskalduna izatea, beraz, harpidetuen aldetik babes osoa duen bereizgarria da.

- Komunikazioan ez ezik, teknologietan ere burujabe

Alfabetizazioa dago, batetik: zerrendari eta elkarteari zor diela diote hainbatek alfabetizazio digitala. Alderdi teknikoari erreparatuta ez ezik, komunikazioaren botereaz jabetzeari begira ere oso garrantzitsua izan da hainbat harpidedunen kasuan, ahalduntze teknologikoaren bidean. Horrez gain, baliabideen eskuduntza dago:

*Gure kasuan mailman izeneko software bat. Eibartarrak
posta-zerrendako batzuk pentsatu genuen urrats bat gehiago ematea,*

eta enpresa bat sortu genuen: CodeSyntax. Arlo honetan egiten dugu lan. Enpresako guztiak ez gara Eibartarrak zerrendako kide, eta Eibartarrak zerrendako kide guztiak ez dira CodeSyntaxekoak, noski, baina CodeSyntaxeko Eibartarrak zerrendakoak arduratzen gara bertako arlo teknikoaz. Orduan posta- zerrenda gure zerbitzu baten oinarrian dago. Lehen sareko doako zerbitzu bat erabiltzen genuen, gero migratu egin genuen eta gure kontrolpean dagoen gauza bat da ordutik (Fernandez, 2014).

5,2 Blog komunitatea

Bere baitan ikuskera asko gordetzen dituen etxea da aztertu dugun blog komunitatea, 37 ate dauzka blogari bakoitzaren unibertsoa ezagutzeko eta beste hainbeste leiho, blogariak eurak, mundura ateratzeko. Egin dezagun, bada, ondorioak azaltzeko azken sartu-irten bat.

5.2.1 Lehenengo ikerketa-galderaren inguruko ondorioak

IG1. Ze ezaugarri ditu blogaren komunikazio prozesuak?

- Askatasuna = aniztasuna = uholdea

Internetek informazio ekoizle bihurtzeko aukera ematen dio erabiltzaileari. Hala, esfera publikora jauzi egiteko modua baliatu dute hainbat erabiltzailek. Blogak izan dituzte lanabes horietariko askok.

Blogetan askatasuna topatu dute. Askatasuna tamainan, espazio aldetik ez dagoelako mugarik; formatuetan, multimedia edukiak nahastu daitezkeenez; generoetan; gaietan... Eta horrek, aniztasuna ekarri du; aniztasuna tamainan, formatuetan, generoetan, gaietan...

Informazioa ekoizteko moduak ez ezik, edukiak kontsumitzeko ohiturak ere asko aldatu ditu. Erabiltzaileek, aniztasun hori baliatu dute. Klik batean ia edozein gairi buruzko informazioa aurki dezakegu. Gauzak horrela, audientziaren zatiketak eta banaketak zerikusi zuzena dauka blogen fenomenoaren arrakastarekin.

Izan ere, gizarteko interes-gustu-iritzi espektroa zabala da eta blogetan denetik aurkitzen da. Interneteko katalogo *infinituaz* mintzo da Luistxo Fernandez; hau da, informazio orokorraren aurrean, *interes anitzen merkatu anitzez* (2005).

Edukien zatiketa horrek, hein batean gure informazio beharrak asetzen ditu, baina, era berean, infoxikazio sentazioa eragin dezake; neurrigabeko eduki kopuruagatik itota sentitu eta informazioarekin intoxikatzea. Izan ere, sarri, gai baten inguruko edukiek ez dute, ez hasiera ezta amaiera jakinik ere (Cerezo, 2008). Blogak arazoaren parte izanagatik erremedioa gisa ere erabili daitezke: mezu eta edukien uholdean gustuko blog horiek *arnasbide* bihur daitezkeenez (Iturria, 2014).

Askatasuna eta aniztasuna blogen bereizgarri gisa aurkeztu ditugun arren, badira teorian eta emaitzetan azaleratzen joan diren ezaugarri komun batzuk, jarraian zerrendatuko ditugu:

- Iritzi-artikulu herritar, alternatibo eta espezializatua

Datu eta deskribapenez osatutako piezak baino narrazio hibridoak egin ohi dituzte blogariek, informazioa, esperientzia eta iritzia izanik osagai komunak. Hala, iritzi-artikuluak dira blogetako sarrerak Armentientzat (2006), baita inkesta bete duten gehienentzat ere (% 64). Hari horri jarraituz, berriz, blogak iritzi-artikuluak badira, blogariak iritzigileak dira: euren ikuspegia argitaratzera ausartzen diren erabiltzaileak.

Dena den, iritziak ematera edo ideien elkartrukera, ez gaudela ohituta ere nabarmendu da ikerketako elkarrizketetan (Narbaiza, 2014). Baina, iritzia emateko prestutasunaren balioa azpimarratzen ere entzun ditugu. Zentzu horretan, blogari izateak, interneteko herritar bihur zaitzakeela ere agertu da: *kexatzeko eskubidearekin, ideiak emateko erantzukizunarekin* (Fernandez, 2014).

Herritarra baita, neurri handi batean blogen mugimendua. *We media* ideiak, komunikazioaren munduko profesional ez direnek sortutako edukiei egiten die erreferentzia. Ideia horretan sakonduz, inkesta erantzun duten % 80 ados edo guztiz ados dago *Kazetaritza parte-hartzailearen baitan sartzen dira blogak* esaldiarekin. Dena den, gaiari lotutako ñabardurak ere agertu dira. Kazetaritza eta blogak bereizten hasita, *kazetaritza profesionala dela* (Fernandez, 2014) edo *kazetaritzak profesionala behar duela* nabarmendu dute hainbat elkarrizketatuk (Bereziartua, 2014). Hala, Jose Luis Orihuelaren iritzia berreskuratzen dugu, esandakoak borobiltzeko: *Blogak ez dira kazetaritza blogak direlako (izatekotan beste ezaugarri batengatik dira).*

Izan ala ez izan, hedabideen esparrura ekarritako aldaketa agerikoa da. *Blogak hedabide tradizionalekin alderatuz, espazio alternatiboak dira* esaldiarekin %64 ados edo oso ados dago. Teoriaren atalean, Mesoren hitzak jaso ditugu eta haren arabera hedabideen ohiko agendetatik kanpo dauden gaiak aintzakotzat hartu dituzte blogek (2008). **Espezializazioaz mintzatu dira solasaldietan, gantxilloa** edo *xakea* hizpide dituzten blogak adibide jarrita (Arantzabal, 2014). Horretaz aparte, **diskurtso alternatiboak** zabaltzeko bitarteko gisa ere deskribatu dute, **adierazpen askatasunari ekiteko** balio dezakeelako.

Hala eta guztiz ere, bitarteko honek komunikazioaren munduan duen pisuaz ari bagara, **eztabaida publikoa sustatzeko orduan eragin txikia dutela** dio Fernandezek, eta eztabaida ez dela blogen mailan ematen, medioek ez dietelako behar adina garrantzirik ematen bertan aurkitzen denari. Bestalde, herritarren aldetik benetako eztabaida publiko baten nahia ere zalantzan jartzen du. Baina, *norberaren adierazpenari bide behintzat ematen diote* (Laka, 2014) eta horrek ere balio bat dauka.

Batzuk zein besteak entzun, argi dagoena da, blogek erakutsi dutela euren esparrua irabazi dutela sareko komunikazioaren ekosisteman: erabiltzaileak mobilizatzeko ahalmena dute, jendaurrera gai ezberdinak ateratzeko gaitasuna... Esfera publikoari dagokionez, beraz, **medio masibo batzuk bezain erabakigarriak izan gabe, itzal handia izan dezakete.**

- Bloga, norberaren territorio libre eta soberanoa

Lehenengo puntuan aipatutako askatasunaz aparte, **blogariaren ahots propio eta pertsonala** da blogen beste bereizgarria. *Bloga norberaren hedabide pertsonala da*, ikuskera hori nagusitu da inkestan galdekatu ditugunen artean (% 64 erabat ados agertu da esaldiarekin). *Soberanoa* ere izan daiteke (Iturria, 2014) eta bertan blogaria *librea* da (Deogracias, 2014). *Bera da idazle, zuzentzaile, zuzendari, editore eta banatzaile* (Joxe Aranzabal, 2014) eta, noski, bera da argitaratutako horren *arduraduna* (Irizar, 2014).

- Garena dioten hitzak gara

Ahots propioa kontakizun pertsonalekin uztartzen da blogetan. Inkestan garaile, gai autobiografikoak atera dira; fikzioa, berriz, galtzaile. Norbere bizitza al du inspirazio iturri blogariak? *My blog is me*, dio Reed ikertzaileak (2005) eta ez zaio arrazoirik falta; norbere esperientziak islatu ala ez, **beti egongo da blogariaren ahotsean bere arrasto pertsonala: aukeratutako, gaietan, estiloan...** Horiek horrela, blog batek gauza asko esan ditzake bloga egiten duenaren gainean. Izan ere, sarrerak, independenteak izan arren, guztiak daude osotasun baten baitan; eta, guztien artean osatzen doaz etengabe blogariaren erretratua.

- Publiko eta pribatu

Gai autobiografikoen erabilerarekin lotuta, blogak asko dutela *exhibizionismotik* esaten duen inkestako erantzuna daukagu. Ondorioen bigarren puntuan, berriz, iritzia agertzeak beldurra eman dezakeela ere agertu da. Hedabideen eta sareko komunikazioaren eraginez, azken urteetako joera omen da **gizartea pribatizatu egin dela eta pribatua, gizarteratu** (Sampedro, 2000; Violi, 2008). Neurria hartzea, berriz, elkarrizketetan azalduenez norberaren kontua da. Oreka zaila izan daiteke, ordea, blogei buruz Bauman ikertzaileak esandakoak aintzat hartzen baditugu behintzat; blogak ez direla ez pribatu eta ez publiko, pribatu eta publiko direla aldi berean (1999).

- Konfiantza, denbora kontua da

Xehetasun eta ñabardurez eginda dago mundua. Berdin da zeri buruz ari garen, errealitateak beti agertzen ditu bere ertzak, hitzek beti erakusten dituzte euren mugak. Hartara, fidagarritasuna ere eraiki egiten da, errealitatea bezala. Emaitzak ikusita, denboraren eskutik, gainera. Inkesta erantzun dutenen artean % 82 ados dago *blogariaren eskarmentuak* eta harekin izandako *denborazko harremanak* baldintzatzen duela bere sinesgarritasuna. **Beste modu batera esanda, ez dugu blog bat jarraitzen; blogari bati jarraitzen dugu.**

5.2.2 Bigarren ikerketa-galderaren inguruko ondorioak

IG2. Zeintzuk dira blogarien oztopo, erronka eta motibazio nagusiak?

- Afizioa baina baita lotura ere

Guk ere munduarekin zerbait partekatzeko dugula pentsatuta, sortu eta gogo handiarekin hainbat eguneraketaren ondoren, asko dira makaldu, ilundu eta itzali diren blogak. Bizitzako etapa batean, agian, bidelagun izan, baina, aspertuta, denbora faltagatik, sormen eskasiagatik edo besterik gabe, jada ez gaituelako betetzen utzitakoak. Horien artean daude, hasieran euren espazio propioa elikatzeari ekin zioten batzuk eta sare sozialetan edo beste plataforma batzuetan bilatu dutenak orain estalpea.

Zabaltzeko erraztasunak eta dohainik izateak blogen hilkortasun tasa altuan eragina du. Prozesua oso arrunta dela erakusten dute datuek: Technoratik 2008an egindako ikerketa baten arabera, enpresak indexatuak zituen 133 milioi blogetatik 7,4 milioi besterik ez ziren eguneratu aurreko 120 egunetan (Iturri ez zuzenen azterketa).

Bertan behera utzi dutenak ez dira proportzio horretan ematen aztertzen ari garen komunitatean. Ikerketak iraun duen bitartean, 37 blogeko taldetik 20 blog izan dira eguneraketan bat izan dutenak⁴³, % 54 hain zuzen ere.

Azterketan, blogean argitaratzeari utzi duten bi lagunen esperientziak jaso ditugu: horretarako *premiarik ez izatea* argudiatu du haietako batek, bere buruaren *jendaurreko erakustaldia* uzteko beharra besteak. Azken honek *denbora falta* ere aipatu du. Biek, dena den, ez dute baztertzen berriz argitaratzeari ekitea eta biek elkartearekin harremana izaten jarraitzen dute.

Oraindik jardunean ari diren horiei ere galdetu diegu inkestan, ia inoiz bloga uztea pentsatu ote duten, eta %40k baiezkoa adierazi du. **Blogaren jardunak zailtasunak berekin dakartza eta jarraikortasunez elikatzea da horietako bat.** Bloga bertan behera uztea pentsatu duten horien artean *denbora falta* izan da zergati nagusia, baina *gogo eta ideia falta* ere argudiatu dituzte.

Izan ere, zaletasuna aktiboa da honakoa; blogean argitaratzeko gaien bila jardun behar da, informatu egin behar da, edukiak sortu, ideiak modu ordenatuan antolatu... **Horrek, lana esan nahi du; horrek, denbora eskatzen du.** Fernandezek ondo azaltzen du: *Hemen blogari profesionalik ez dago, blogak ez dute dirurik ematen izatekotan gastuak dira, denbora gastu bat da* (2014).

- Niretzat, munduarentzat eta pantailaren beste aldean dagoen horrentzat

Howarden hitzak gogoan hartuta, jendea blogak irakurtzera animatzea, idaztera bultzatzea bezain garrantzitsua da (2008). Badu horrek, zerikusirik, elkarrizketetan aipatzen den blogen audientzia txikiarekin (Fernandez, 2014; Iturria, 2014). Kontuan izan behar dugu blogak ez direla definizioz medio masiboak. Zer nolako eragina dute, orduan, jarraitzaileek, edukiak sortzen dituztenean? Batzuetan, pantailan bestaldean inor egongo ez balitz bezala idazten dute blogariak (Brake, 2009). Autozerbitzu gisa erabiliko lukete, euren pentsamenduen

⁴³ Denbora epe hau zabalago da ohikoan erabili diren behaketaren baitako lau hilabeteak baino. Kasu honetan, eguneraketak begiratzeko orduan ikerketak osorik iraun dituen hemezortzi hilabeteak hartu ditugu aintzakotzat: datu independentea delako batetik; eta ahalik eta datu osoena lortzeko, bestetik.

gordeleku bezala edota ideiak ordenatzeko (Iturria, 2014; Gorosabel, 2014; Julio, 2014). Baina eguneroko hau publikoa da. Ildo horretatik, identifikatu gabeko audientzia batentzat edo munduarentzat ere idazten dute. Hala ere, ahots publikoa erabiltzen duten neurrian, garrantzitsua da entzuleak izatea. Bere edukiak kontsumitu ez ezik, iruzkinak uzten badituzte jarraitzaile horiek hainbat eta hobe.

Blogen edukiak zabaldu eta audientziarekin harremanetan jartzeko paper garrantzitsua betetzen dute sare sozialek. Zerrendarentzat, sare sozial masiboak oztopo edo erronka gisa deskribatu ditugu, haien agerpenaz gero, izena ematen joan diren harpidetuak gutxitzen joan

direlako eta zerrendako mezuen erritmoa jaitsi. Blogekin ere gauza bera gertatuko ote zen pentsatuz, bere etorkizunaz zalantzati egon ziren hasieran (Irizar, 2014), bata bestearen osagarri izan zitezkeela ikusi zuten arte. **Blogak edukiak plazaratzeko erabiliko lirateke eta sare sozialek haiek zabaltzeko.** Modu horretan, sare sozialek aukera berriak eskaini dizkiete blogei. Izan ere, **edukia da oinarria, baina distribuzioan egin behar da ahalegina.** Gauzak horrela, *blogak metxa dira eta sare sozialek txispa* (Bereziartua, 2014). Edota, *blogak etxea dira eta sare sozialek taberna* (Iturria, 2014). Txispa eta taberna, edukiak ikusgarri egiteko, partekatzeko, zabaltzeko, komentatzeko.

- Zergatik merezi duen

Blogak, ikerketan parte hartu duten lagunen bizitzetan leku garrantzitsua betetzen dutela esan dezakegu, haien kontakizunaren arabera. Audientzia mugatua eta eztabaida publikoan eragiteko ahalmena txikia izan arren, eta lana eta denbora eskatzen badute ere, mundura zabaltzeko leiho dira eta euren ahotsa entzunarazteko modua. **Lotura da bai, baina baita ohitura eta jarduera estimatua ere:**

Harrapatu egiten zaitu, kateatu (Narbaiza, 2014).

Galdetutako hainbati, gainera, blogari izateak, **jendea ezagutzeko aukera eman dio maila pertsonalean, atak zabaldu maila profesionalean eta presentzia publiko bat izateko parada eman, maila publikoan.**

a. Maila pertsonalean, jendea ezagutzeko aukera

Blogosfera ehun bihur daiteke beste blogari edo erabiltzaile batzuekin konektatu dezaten. Blogak zer eman dien galdetuta, ikerketa honetarako elkarrizketatu ditugun askok jendea ezagutzeko parada aipatu dute (Arantzabal, 2014; Gorosabel, 2014; Narbaiza, 2014 eta Salaberria, 2014).

b. Profesionalean, atek zabaltzeko giltza

Blogari izatea ez da ogibide. Ez behintzat Eibar.org-eko kideentzat, baina arlo ezberdinetako profesionalak, bloga tresna baliotsutzat dute euren lanbideetarako: ezagun egin dituztelako, beste hedabide batzuetan kolaborazioak egitea ahalbidetu dielako (Gorosabel, 2014; Narbaiza, 2014)... Sarean komunikatzen ikasteko eskola ere bada eta hori ere baliagarria izan daiteke euren arlo profesionaletarako (Laka, 2014).

c. Publikoan, presentzia lantzeko erreminta

Sarean zerbait zintzilikatzen duzun heinean zure diskurtsoa zabaltzen zoaz; zure marka uzten duzu. Esandakoari erreparatuta, blogak ematen dien presentziaz jakitun dira elkarrizketatuak eta euren identitate digitala eraikitzeko baliatzen dute (Deogracias, 2014; Laka, 2014).

5.2.3 Hirugarren ikerketa-galderaren inguruko ondorioak

IG3. Nola uztartzen dira komunitatearen bereizgarriak blogetan?

- Aitzindari talde bat teknologiari eta euskarari begira

Aitzindari izatea aitortzen diote, bai komunitatearen barnetik (Laka, 2014) bai eta kanpotik ere (Goñi, 2014; Rodriguez, 2014). **Aitzindaritza** hori halaber, bi arrazoigatik deskribatu dute

garrantzitsu: **euskaraz egiteagatik** (Irizar, 2014; Arantzabal, 2014) **eta talde moduan eramateagatik aurrera** (Rodriguez, 2014; Julio, 2014; Goñi, 2014).

Gaitasuna izan zuten nolabait motibatzeke, saretzen hasteko eta jendea bultzatzeko euskaraz idaztera eta digitalean aktibatzerara (Elkarrizketa. Irizar, 2014).

Euskal blogosfera osoari oparitu dio komunitate izaera hori. Taldean lan egitea erakutsi du, askoz ere gauza gehiago lor zitezkeela (Goñi. Elkarrizketa, 2014).

Blogari dagokiona ekintza kolektibo moduan ulertzen dute taldeko kideek ere. Komunitate batean jardutea **babesa eta konpainia** da eurentzat. Konpainia diogu, blogen arteko elkarkidetzak izan dutelako sarri hizpide. Babesa, komunitateko kide ez baziren bloga bertan behera uzteko probabilitatea handiagoa izango zela uste dutelako.

5.3 Elkarteak

Elkarteak hitz egitean ere, sarri aipatu dira orain arte azaldu diren ezaugarriak. Azken finean, Eibar.org bera da erreminta eta topaleku. Komunikazioaren arkitekturaren departamentu isolatuak baino konektatutako hodiak hobe direla erakusten du, eroale baitira. **Lan honetan ikasi dugunez, beraz, tresnaz harago, praktika da nabarmendu behar dena.**

Emaitzen arabera, **komunitatean oinarritzen** den eredua izatea da arrakastaren giltza (*kide sentimendua, giroa, konfiantza, lagunartea...*); **talde gisa auto-antolatzea elkarlanean** (*interneten euskal komunitatea artikulatzen lagundu du...*) **eta ez hierarkian** (*inoren gain agintzeko borondaterik eza*).

Auzolanak ere lotzen ditu: [kideek] *borondatezko lanen bitartez kolaboratzen dute elkartearekin. Bakoitzak ahal duen neurrian* (Elkartearen helburuak). Nahiz eta, praktikan, eskatzen den lana ez den handia hainbat kideren ustetan, eta bai, bueltan jasotzen dutena:

Eibar.org da elkarte bakarra ostera, gutxi ematen dioguna baina asko jasotzen duguna trukean. Hori da behintzat nire pertzepzioa. Alfabetizazioa jaso dugu, komunitate bat, jaso dugu interneten presentzia bat... eta gero horrek guztiak eman dizkigun onurak (Laka, 2014).

Bere baitan, **ekimena etxekoa izatea asko baloratzen den beste ezaugarri bat da:** *Eibartarra da, Guk sortutakoa izan da, Eibarkoa da...*“Geurea” izatea ikuskera baten parte ere bada, burujabetzaren erakusle: *Eibar.org gurea da, gure jabetzakoa* (Fernandez, 2014).

Horretaz aparte, **euskaldunen komunitatea** izatea da, erabiltzailekn onura eta arrazoi en artean asko estimatzen duten bereizgarria; *Euskararen presentzia interneten sustatzea, euskararen lehentasuna...*

Azpimarratzekoa da, bestalde, **alfabetizazioa eta laguntza teknikoa** ere sarri aipatzen dituztela (*Eskaintzen digun laguntza, erraza da esku bat botako digun norbait topatzea*)...

Ezaugarri horiek elkarri lotuta, **teknologia berriak ekarri dituztela maila lokalera eta euskaltzaletasunera** esan dute elkarrizketatuek. Talde moduan egin dute, gainera, eta asmatu dute ereduarekin ikerketan parte hartu dutenen arabera.

Izan ere, aztertutako komunikazio bitartekoen indarra parte-hartzaileen jardunetik dator. 1998tik sarean, osasun onez dago, erabiltzaile askok zerrendakide eta blogari izaten jarraitzeko euren asmoa agertu dutelako. Txanponaren beste aldean, **jende berri gutxi gehitzen dela**. Dena den, atzera begira jartzean **bere funtzioa bete duela, betetzen ari dela eta beteko duela uste du** Fernandez sustatzaileak:

Ez da beste munduko ezer, baina gauza interesgarria zen orduan eta gaur egun oraindik ere bada. Azken batean, jende interesgarri batek

interneten konbertsazioari eusteko balio izan du eta balioko du oraindik ere. Zaharraren zaharrez hiltzen garen arte, erreleborik ez dago, baina beno, urte batzuk geratzen zaizkigu (Fernandez, 2014).

Bistan da, ibilean dabilena ezin dela gelditu. Aitzindari eta erreferente, **urteen joanean egokituz joan den komunitatea da honakoa**, garaian garaiko beharrei erantzuteko. 1998an posta-zerrenda sortu zuten. Han sortutako hartu-emanen esker, urrats bat gehiago eman eta Eibarri buruzko informazioarekin webgune estatikoa eraiki zuten, web estatiko horrek bere funtzioa galdu zuen, ordea, Eibarko informazioa argitaratzearen eginkizuna udalak eta beste hainbatek hartu zutenean. Estatikoa dinamiko bihurtu zen orduan, eta blog komunitatean oinarritzen da orduetik ataria.

Eta etorkizunera begira, zer? **Teknologia, euskarri, sare eta komunitatak etengabe planteatzen ari diren erronkei eustea beharrezkoa dute**. Inkestako emaitzetan, berrikuntzen beharra aipatzen duenik bada (Inkesta I.eredua). Fernandez, elkartearen sortzaileak ere pentsatu du horren inguruan:

Orain, agian, beste fase bat asmatu beharko genuke. Mugikorrean irakurtzen dugu posta-elektronikoa, webak ere bisitatu daitezke, baina beste zerbait asmatuko bagenu, beste mugi Eibar bat mugikorretik ikusiko dena edo... Norbaiti piztu beharko zaio bonbilla. Zer izango ote den? Ez dakit. Blogetan aitzindari izan ginen bezala horretan ere izatea posibilitate bat da (Fernandez, 2014)

Bien bitartean, Eibar.org-eko kideek ahots publiko eta propioz gertuko eta konfiantzazko gunea eraikitzen jarraituko dute, beti komunitateari begira. Gizartearena izango den sarea eraiki eta sareen gizartea bihur dadin.

Bibliografia

